

Euskal Autonomia Erkidegoko

jokoari buruzko liburu zuria

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HERRIZANGO SAILA

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Dirección de Juego y Espectáculos

Argitaratzen du:

Eusko Jaurjaritzaren Herrizaingo Sailaren Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

Argitalar koordinakuntza eta disenua:

MBN Comunicación.

2009



Benetan pozgarria da niretzat Jokoari buruzko Liburu Zuri berria aurkeztea.

Ezinbesteko tresna izango da arlo horretako enpresa eta erakundeentzat, lanpostuak sortzen dituen eta etorkizun oparoa duen jarduera sozio ekonomiko horren egoerari buruzko ikuspegi zabala eskaintzen duelako.

Herrizaingo Sailean jakin badakigu jokoia jarduera berezia eta inguruko gorabeheren menpe dagoena dela, bereziki gaur egungo krisiak nabarmen eragin diola, eta hala izanik ere, aurrera egin nahi du, egoera berrietara egokituz, ausardia eta irudimena bi-delagun dituela.

Oso ondo ezagutzen ditugu aurrez aurre ditugun arazoak: azken urteotako joeren ondoriozko konplikazioak, esate baterako gaur egun indarrean den erregelamenduak malgutasun handirik ez izatea tramitazio berriak bultzatzeko orduan, edo berez garai berrion ondoriozkoak diren zailtasunak, hau da, globalizazio geldiezina, eta horren ondorioz "on line" apustuak ugaritu izana; horrek, jakina, gure gaur egungo sistemarekin leialtasunik gabeko lehian aritzea dakar.

Badakigu sare bidezko jokoia gutxieneko batzuetan araututa ez egoteak kapital-ihesa eragiten duela, gure profesionalekin lehia desleialean aritzea dakarrela, erabiltzaileei ez diela bermerik eskaintzen eta ludopatiak agertzea areagotzen duela.

Horregatik, eta garrantziko beste arrazoi batzuegatik, areagotu egingo ditugu arlo horretan egiten ari garen ahaleginak.

Garbi ikusten dugu aurrerantzean, administrazioa garen neurrian, gure eginkizuna ezin dela soilik jarduera kontrolatzea izan.

Kontrakoa esango genuke: oreka egokia bilatu behar dugu, alde batetik, lehiakortasun eta enpresen interes legitimoen eta, bestetik, erabiltzaileek eskatzen dituzten bermeak zaintzearen artean, eta aldi berean, joko arduratsua sustatu beharrean gara, ezinbestekoa baita hori eskaintzen den zerbitzua kalitatezkoa izateko.

Jokalariei sinestarazi behar diegu, sentsibilizazio-kanpaina egokiak eginez, jokatzeak ez duela esan nahi, nahitaez, diru-kopuru jakin bat irabaziko denik; jokatzea batez ere gure aisialdiaz gozatzea da, modu arrazional eta dibertigarrian, eta beste batzuekin batera.

Hori hala izanik, jarraian irakurleak izango du datu eta kopuru ustez hotzak ikusteko aukera, baina sakonean, estatistika gordinen azpiko aldean, ikusiko du Euskadiko jokoaren proiektu handi horrekiko loturaren bat dugun guztiok gauzak ondo egiteko dugun gogo zintzoa.

Rodolfo Ares Taboada

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailburua

Aurkibidea

A. Jokoaren sektorea Euskal Autonomia Erkidegoan

1. Jokoaren alderdi ekonomikoa	3
2. Jokoa, fenomeno soziala	24
3. Euskal Autonomia Erkidegoko araubidea	31

B. Joerak eta jardunbide onenak jokoaren sektorean

1. Ekonomia- eta enpresa-joerak	55
2. Europako legeriak	71

C. Euskadin jokoaren sektoreak dituen erronkak

1. Sarrera	97
2. Ahulezi, Mehatxu, Indar eta Aukerei buruzko azterketaren laburpena	98
3. Euskal Autonomia Erkidegoan sektoreak dituen erronken xehetasunak	99

D. Laburpen exekutiboa

1. Jokoaren sektorearen egoera ekonomikoa Euskadin	105
2. Jokoaren sektorea Euskadin 2005/2006, begi kolpe batez	107
3. Euskal herritarrek jokoaren inguruan dituzten ohiturak	108
4. Jokoari buruzko araudiak Euskadin	109
5. Araudien joerak jokoaren esparruan	111
6. Jardunbide onenak joko arduratsuen alorrean	113

Jokoaren sektorea Euskal Autonomia Erkidegoan



1. Jokoaren sektorea Euskadin

1.1. Sarrera

Jokoak tradizio handia du euskal herritarren artean. 2006. urtean jokaturako diru-kopuruak 1.365 milioi egin zuen; hau da, aisiaren sektorearen zati handia hartzen du. Horrenbestez, sektorearen azterketa ekonomiko sakona egingo dugu atal honetan. Lehenik eta behin, herritarrek eskura duten joko-eskaintza aztertuko dugu. Hau da, xehetasunez aztertuko ditugu honako hauek: Euskadin dauden joko eta apustu-modalitate guztiak; euskal administrazioaren eskumen esklusibokoak diren jokoak; arautu gabe dauden modalitate berri guztiak (Internet, telebista digitala, esku-telefonoa); eta Espainiako administrazioak araututako modalitate guztiak.

Bigarrenik, honako hauek aztertuko ditugu: jokoarekin zerikusia duen gastu guztiaren zenbatekoa; modalitate bakoitzeko merkatu-kuotak; eta kuota horren bilakaera, benetako gas-tua eta jokaturako kopurua kontuan hartuta. Jokoaren azpi-sektoreak aztertuko ditugu, banan-banan, eta bereziki erreparatuko diegu Jokoen Katalogoan jasota dauden modalitateekin lotura dutenei eta haiei lehia egiten dietenei: kasinoak, bingoak, B motako makinak, apustuak, ONCE, LAE eta Internet bidezko jokoak.

Horrezaz gain, sektoreko agenteen edo eragileen zerrenda ere egin dugu, enpresaburuen zein jokalarien elkarrekin; horien barruan kontuan hartu ditugu autonomia-erkidegoetakoak, Espainiakoak, Europakoak bai eta Internet bidez aritzen diren enpresa nagusietakoak ere.

Eta azkenik, diagnosi ekonomiko honetan azterketa makroekonomikoa ere egingo dugu, jokoaren sektorea ekonomia osoaren barruan erlatibizatzeke, foru-aldundiei eta Eusko Jaur-laritzari egindako zerga-kontribuzioaren bilakaera erakusteko eta horietan izan diren aldaketan zergatiak azaltzeko.

1.2. Joko-eskaintza Euskadin

A. Kasinoak ^{[1] [2]}

Gaur egun, bi kasinok osatzen dute Euskadiko kasinoen sek-torea: Bilboko Gran Casino Nervión eta Donostiako Gran Ca-sinoa Kursaal kasinoek. Legez lurralde historiko bakoitzeko kasino bat izateko aukera badago ere, Arabak ez du kasi-norik.

Bilboko Gran Casino Nervión kasinoko C motako 38 makina daude eta Donostiako Gran Casino Kursaal kasinoko 42. Bie-tan, kasinoretan ohikoak izaten diren jokoak eskaintzen dituzte: Black Jacka, amerikar erruleta, kartak uzte gabeko pokerra, minipuntua eta banka, poker sintetikoa, Pai Gow pokerra. Ho-rrezaz gain, "Hipodromoa" izenekoa ere badute, kanpoko apustu hipikoak egiteko.

Euskadiko bi kasinoen egitura antzekoa da. Sarrerako gelan jokorako makinak, apustu hipikoak egiteko terminala eta ta-berna bat. Jatetxea ere badute eta, jakina, joko-eremua. Ja-kinarazi nahi dugu kasinora sartu ahal izateko ezinbestekoa dela dokumentazioa erakustea.

Aurreikuspenen arabera, 2010. urtean Gran Casino Nervión kasinoko Coliseo Alba zinema-areto zaharrera eramango dute. Establezimendu berriak 8.847 metro koadro erabilgarri izango ditu, bi pisutan banatuta.

EUSKADIKO KASINOETAKO AISIALDIKO ZERBITZU-SORTA (XEHEZASUNIK EZ)


Jokoen eskaintza	Jatetxea	Jarduerak
<ul style="list-style-type: none"> • C motako makinak • Black Jacka • Amerikar erruleta • Kartak uzte gabeko pokerra • Mini puntua eta banka • Poker sintetikoa • Pai Gow Pokerra • Kanpoko apustua "Hipodromoa" 	<ul style="list-style-type: none"> • Restaurante Ibaigane (Gran Casino Nervión) • Restaurante La Boule (Gran Casino Kursaal) 	<ul style="list-style-type: none"> • Pintura erakusketak • Liburuak aurkeztea • Moda desfileak • Puruak dastatzea • Eta abar.

Euskadiko kasinoaren azpi-sektorea egonkorra da. 1966. urtean Gran Casino Nervión kasinoko baimendu zenetik, establezi-mendu-kopuruak bere horretan jarraitzen du.

^[1] Gran Casino Nervión eta Gran Casino Kursaal-ek emandako datuak.

^[2] Jokoaren Urteko Txostenaren informazioa (1999-2006), Jokoaren Batzorde Nazionalak eginda.


EESPAINIAKO KASINO-KOPURUEN BILAKAERA



Espanian 42 kasino daude. Eskualdeetan aisiako turismoa sustatzeko proiektuen zati dira azken urteotan zabaldu diren kasino horietako asko. Orain artean, normalean, biztanleria-kopuru handia eta turistaren joan-etorri handia zuten probintziako hiriburuetan kokatu izan dira kasinoak. Egun, eskema alderantzikatu egin da. Kasinoak turistak erakartzeko eraikitzen dira, eskualdeetako aisia-eskaintza osatzeko aldera.

3. grafikoan ikus daiteke Espainian milioi biztanleko dagoen kasino-kopurua.

MILOI BIZTANLEKO KASINO-KOPURUA AUTONOMIA ERKIDEGOETAN




Euskadin milioi biztanle bakoitzeko kasino bat baino gutxiago dago eta, hortaz, Espainiako batez bestekoaren azpitik dago

Kanariar Uharteak da kasino gehien dituenen, milioi biztanleko 4,5 baititu —dentsitatea batez bestekoaren oso gainetik du—. Beste muturrean Nafarroa dago, ez baitago kasinorik egun. Bestalde, eskualdeen zerrendan, atzetik hasita bigarren postuan Madril dago, erkidegoko biztanleria-dentsitatea dela eta. Eskualde mugakideetan duten kasino-dentsitatea ere aipatzeko modukoa da. Esate baterako, Kantabrian eta Errioxan, milioi bakoitzeko duten kasino-kopurua Euskal Herriko baino handiagoa da, nahiz eta establezimendu bana duten.

Espanian dauden 42 kasinoen %30 duela 10 urte baino gutxiago eraiki dira. Gainera, nabarmena da azkenaldian eraikitakoak **aisialdiko zentro gisa** eraiki direla, eta ez jokorako zentro soilik izateko. Horren adibide argia Madrileko Aranjuez kasinoa da, ikuskizunak eskaintzen baititu eta mota guztietako ekitaldiak antolatzen baitira bertan. Askoz ere adibide nabarmenagoa da laster eraikiko duten Ciudad Realeko kasinoa, “El Reino de Don Quijote” izeneko gunean kokatuko dutena. Makro-gune horrek hotelak, Europako kasinorik handiena, dendak, etxebizitzak eta kirol-instalazioak izango ditu. Dibertsifikazio-estrategia horren xedea da instalazioetara bisitari-kopuru handiagoa erakartzea eta kasinoa denbora-pasarako gune gisa sustatzea.


ESTATUKO KASINOAK



Bestalde, Espainiako kasinoek duten joko-eskaintza nahiko berdintsua da, eskaintzen dituzten jokoei dagokienez. Nolanahi ere, egun, zenbait autonomia-erkidegotan baimenduta dago *Texas Hold'Em* izeneko poker-modalitatea eskaintzea. Joko horrek gero eta arrakasta eta zaletu gehiago ditu, telebistan halako txapelketak ematen baitituzte.

B. B motako makinak ^[3] ^[5]

Ostalaritza-establezimenduren batean sartzen den edonor berehala ohartuko da halako tokietan izaten diren B motako makinak ez direla itxuraz asko aldatu azken hamar urteotan. Bitxia badirudi ere, makina-parkea berriro egin da harrezkero, baina oso antzekoa da orduan zuten itxura eta egun dutena. Euskadin arrakasta handien duten makinak arrabolak dituzten betikoak dira; izan ere, bideoke bertsioek ez dute betiko makina horiek ordeztzea lortu. Arrabolak dituzten makinaren modalitateen artean, erruleta bertualak, erruleta mekanikoak eta sasiloteriak daude.



Makina baten gehieneko sariari eta apustuari dagokionez, ezinbestekoa da bereiztea B motako makinak eta B+ motako makinak. B motako makinetan (ostalaritza-establezimenduetan eta joko-aretoetan egoten direnak), gehieneko saria 120 eurokoa da eta apustua, berriz, 0,20 eurokoa. B+ motako makinetan eta bingoetan (joko-aretoetan soilik egoten direnak), ordea, gehieneko saria 240 eurokoa da eta apustua, berriz, 0,40 eurokoa.

B+ MOTAKO MAKINEN OINARRIZKO EZAUGARRIAK ^[4]

% Itzulketaren	Zikloak	Denbora	Bideoa	Gehieneko apustua.	Makina 1eko gehieneko saria	Interkonektatutako gehieneko saria. Makina bereziak	Interkonektatutako gehieneko saria. Makina arruntak	Joko-aretoetan
75	20.000	120/10	Sí	0,40 €	240 €	2.700 €	2.700 €	No

^[3] B makinei eta joko-aretoei buruzko datuak Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak eman ditu.


^[4] ANESARrengandik jasotako datuak.

^[5] Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzatik lortutako informazioa.

Ildo beretik jarraituz, adierazi behar da B motako makinak Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak homologatu behar dituela horiek abian jarri aurretik.

Euskadin, makina-parkearen inflexio-puntua 2003. urtea izan zen; izan ere, B motako makina-kopuruak gora egin zuen, 12.700 izateraino. Harrezkero, makina-kopuruak behera egin du pixkanaka, eta 2006. urtean 11.772 makina baimendu zeuden, ostalaritza-establezimenduetan zein joko-areto eta bingoetan. Espainiari dagokionez, berriz, B motako makina-kopuruak gora egin du pixkanaka azken urteotan, eta 2006. urtean 248.796 zenbatu ziren.

B MOTAKO MAKINEN BILAKAERA/ ESTATUKO ETA EAE-KO BIZTANLERIA



Iturria: CNJko urteko txostena eta JIZko estatistikak

B motako makinak, ostalaritza


B motako makinak, batik bat, ostalaritza-establezimenduetan daude. Izan ere, 2006. urtean Euskadin B motako 11.772 makina baimendu zeuden; horietatik 1.500 joko-aretoetan zeuden eta gainerako 10.272 makina ostalaritzako establezimenduetan (%87), eta horietatik 250 bingo-aretoetan zeuden. Nabarmenezko modukoa da Euskadin dauden ostalaritza-establezimendu guztien %61ek duela B motako makina bat.

B MOTAKO MAKINAK DITUZTEN ESTABLEZIMENDUEN PROPORZIOA EAE-N




Gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuz gero, Euskadi batez bestekoaren barruan dago, milioi biztanleko 5.500 makina inguru baititu. Balear Uharteak da biztanleko B motako makina gehien dituen autonomia-erkidegoa, milioi biztanleko 7.408 makina baititu.

AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO MILOI BIZTANLEKO B MAKINA-KOPURUA




Grafiko honetan B motako makina-kopurua ikus daiteke, autonomia-erkidegoka.



Andaluzia da B motako makina gehien dituen autonomia-erkidegoa; guztira, 40.389 makina daude. Gutxien dituen eskualdea, berriz, Ceutako Hiri Autonomoa da.

JOKO-ARETOEN BANAKETA LURRALDI HISTORIKOEN ARABERA




B motako makinak, joko-aretoak

Euskal Autonomia Erkidegoko jolas-aretoei dagokienez, biztanle-kopuruarekiko ia proportzionalki banatuta daude hiru lurraldeetan: 14 Araban, 34 Gipuzkoan eta 45 Bizkaian. Egitura eta makina-mota desberdinak badituzte ere, hau da areto horien profila: 15 makina inguru izaten dituzte, bai eta ostalari-tzako zerbitzu osagarriak ere.

Establezimendu-mota horietarako sarrera ez da kasinotarako eta bingoetarako sarrera bezala kontrolatzen. Horietan, aretoaren sarreran adierazi dute 18 urte baino gutxiago dituztenek sarrera debekatuta dutela.

B MAKINEN EREDUAK EAE-N




B motako makina-fabrikatzaile azpisektoreari dagokionez, bi fabrikatzaile handi nabarmentzen dira, batik bat: Recreativos Franco eta UNIDESA. Ia merkatu guztia berenganatuta dute, kasik oligopolioa ere badela esan daiteke; izan ere, bi agente nagusi daude eta gainerako sektorea atomizatuta

dago. Euskadin, B motako eta B+ motako makina-parkeari dagokionez, Recreativos Franco fabrikatzaileak du merkatu-kuota handiena —abian jarrita dauden makinaren %39,29— eta UNIDESA fabrikatzaileak ondoren —makinaren %38,49—. Euskal fabri katzaileek, berriz, merkatu-kuota txikia dute: Kursaal K7 SA enpresak 11.689 makinetatik 42 makina fabrikatu ditu; hau da, %0,37, eta Picmatic SA enpresak 14 makina; hau da, merkatu-kuotaren %0,12.


Merkatu-kuota fabrikatzaile hain gutxiren esku egoteak B motako makina-parkea gutxi dibertsifikatua egotea eragin du. Euskadin, hamar makina-ereduk hartzen dute merkatuaren %72 eta horietatik lauk %49. Ildo beretik jarraituz, Recreativos Franco fabrikatzailearen Gnomos modeloko 2.500 makina baino gehiago daude, eta gainerako motakoak oso gutxi dira, kopuru guztiaren %28 egiten dute horiek.

B MAKINEN EREDUAK EAE-N



B+ motako makina-parkearen egoera eta B motako makinena antzekoa da, dibertsifikazioa oraindik ere txikiagoa bada ere. Mota horretako makina-parkearen %68 bi eredutakoak bakarrik dira.


B+ MAKINEN EREDU SALGARRIENAK



C. Bingo-jokoa Euskadin [6] [7]


Euskadin, 2007ko abenduaren 31n, guztira, 19 bingo zeuden, guztien artean 6.947 lagunentzako tokia osatzen zutela. Espainian gertatzen den bezala, nabarmena da bingo-jokoa atzeraldi-unean dagoela. 1992. urtean Espainian 604 bingo zeuden eta 2007. urtean, berriz, 443k jarraitzen dute zabalik. Sektoreko profesionalek adierazi dutenaren arabera, ezarrita dituzten zergak oso handiak izateak eragin du egoera halakoa izatea. Enpresaburuen elkarteek adierazi dute, enpresek kartoiaren prezioa garestitzea erabaki zutela etekin "txikia" ateratzen zutelako. Joko merkea izatetik joko garesti samarra izatera pasa da bingoa.

ESTATUKO BINGO-KOPURUAREN BILAKAERA – 1999-2007 ALDIAN



Euskadin bingo-kopuruak %24 egin du behera; 1995ean 25 establezimendu zeuden eta 2007. urtean 19

EAE-KO BINGO-KOPURUAREN BILAKAERA – 1999-2007 ALDIAN





Grafiko honetan ikus daiteke 443 bingoak nola dauden banatuta autonomia-erkidegoka.

Bingo-dentsitateari dagokionez, Euskadi batez bestekoaren inguruan dago. Milioi biztanleko bingo-kopuru handien duen autonomia-erkidegoa Ceuta da; milioi biztanleko 39,5 bingo daude. Beste muturrean, Gaztela-Mantxa dago, milioi biztanleko 4,65 bingorekin.


[6] BAEk emandako datuen arabera, Euskadiko Bingo-jokoaren Araudia erabiltzeaz gain.

[7] Jokoaren Urteko Txostena, Jokoaren Batzorde Nazionalak eginda.

ESTATUKO BINGOEN BANAKETA



AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO MILOI BIZTANLEKO BINGO-KOPURUA



Euskadiko bingoek, guztira, 6.947 lagunentzako lekua dute, indarrean dagoen araudian ezarritako gutxienekoa baino askoz gutxiago, 10.000 lagunentzako baita. Araudi horrek ezarritakoaren arabera, bingoak lehen eta bigarren kategoriarako izan daitezke.

Gure autonomia-erkidegoan dauden bingoetan, guztira, 758 lagunek egiten dute lan; hau da, batez beste, 39 langile bingo bakoitzeko. Bingoek duten ordutegia eta eskaintzen dituzten ostalaritza-zerbitzuak direla eta, langile-kopuru handia behar izaten dute eta hori da, hain zuzen, horietan hainbeste lagun lanean aritzearen zergatia. Horrez gain, ezinbestekoa da jokoaren arduratuko diren gutxieneko langile-kopurua izatea.


Euskadiko bingoek duten egiturari dagokionez, bi ataletan banatuta daude: makinak eta bingo-aretoa. Makinak aretoaren sarreran daude eta horietan jokatu ahal izateko ezinbestekoa da NANA aurkeztea. Bingo-aretoaren barruan egiten dira jokatzeko apustuak, eta sukaldaritza-zerbitzuak ere bertan kokatuta daude.

[8] LAEren Euskadiko probintzia-ordezkaritzek emandako informazioa

D. Estatuko Loteria eta Apustuen Erakunde Nazionala (gaztelaniaz, LAE) [8]


Estatuko Loteria eta Apustuen sarea (LAE) oso hedatuta dago, Euskadin zein gainerako estatuko eremuan. Bi saltoki-mota daude LAEren salmenta-sarearen barruan. Batetik, oinarritzko sarea izenekoa; hau da, administrazioak. Eta bestetik, sare osagarria izenekoa; hau da, ostalaritza-establezimenduak eta, horietan, LAEren joko jakin batzuk soilik sal daitezke.

ESTATUKO LAE SALMENTA-GUNEEN BANAKETA



Estatuan LAE 10.871 saltoki ditu; 4.086 oinarritzko sarean eta gainerako 6.785 saltokiak sare osagarrian. **Euskadiri dagokionez, 587 daude, horietatik 230 oinarritzko sarean eta 357 sare osagarrian.** Milioi biztanleko saltoki gehien dituen autonomia-erkidegoa Gaztela eta Leon da. Euskal Herria batez bestekoaren barruan dago.

AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO MILOI BIZTANLEKO SALMENTA-GUNEA



Hona hemen LAEk merkaturatzen dituen joko-motak:

Loteria Nazionalea. Estatuko ausazko jokorik ezagunenetako bat da eta sari handienak banatzen dituenetako bat ere bai. Ehun urte baino gehiagoko tradizioa du loteriak eta Espainiako gizartean oso errotuta dago. Ostegunero eta larunbatero izaten da. Gabonetan, Gabonetako Zozketa Berezia eta Errege Magoen eguneko Zozketa Berezia izaten dira.

Kiniela. Espainiako futbol-liga du oinarri jokoak. 15 partidako zerrenda bat du abiapuntu apustuak, horietatik 10 Lehen Mailakoak eta 5 Bigarren Mailakoak, eta horietako bloke bakoitzean adierazi behar da apustua. Konbinazioak ere egin daitetzke, apustu bat baino gehiago aukeraturuta.

Loteria Primitiboa. Ausazko jokoak da, eta 1etik 49ra bitartean dauden zenbakien artean zenbaki-kopuru jakin bat aukeratzean datza, zozketa horri dagokion konbinazio irabazlea izango dena asmatze aldera; loteria-ontzian 49 bola daude eta horietatik 6 ateratzen dira konbinazioa osatzeko. Aparteko bola bat ere ateratzen da, zenbaki osagarri gisa eta, horrez gain, beste loteria-ontzi batetik beste bola bat ateratzen da —Otik 9ra bitartean— “itzulketa” zenbaki gisa. Ostegunetan baino ez da jokatzeko.

Bonolotoa. Loteria Primitiboa bezalakoa da, baina astelehene-tan, asteartean, asteazketan eta ostegunetan jokatzeko da.

Kinigola. Joko honek, Kinielak bezala, futbol-partidetako emaitzak ditu oinarri. Baina kinielan ez bezala, Kinigol jokoan partida-emaitzak asmatu behar dira; hau da, talde bakoitzak sartuko duen gol-kopurua.

Euromilioiak. 50 zenbakiko zerrenda batetik, 5 zenbaki asmatzean datza eta horrez gain, 9 zenbakiko zerrenda batetik beste 2 zenbaki asmatzean. Hau da, saria jasotzeko 7 zenbaki asmatu behar dira. Hasieran Frantziako, Erresuma Batuko eta Espainiako erakundeek parte hartzen zuten baina, egun, herrialde gehiagok parte hartzen dute. Bildutako diru guztiaren %50 saritan banatzen da. Apustuaren prezioa bi eurokoa da.


Lototurfa. 31 zenbakiko zerrenda batetik —korrelatiboak 1etik 31ra bitartean— 6 zenbaki aukeratzean eta 12 zenbakiko zerrenda batetik —1etik 12ra, korrelatiboak horiek ere— beste zenbaki bat aukeratzean datza apustua. Lehendabiziko zerrendako zenbaki irabazleak aukeratzeko zozketa bat egiten da eta bigarren zerrendako irabazlea aukeratzeko, berriz, zaldi-lasterketa jakin bateko emaitza hartzen da kontuan.

Quintuple plusa. Aldez aurretik ezarrita dagoen programa batean sartu diren zaldiek daramaten zenbakien eta bost lasterketatan parte hartuko duten zaldien artean sei zenbaki aukeratzean datza. Bost lasterketa horietako bakoitza irabaziko duen zaldiaren zenbakia asmatu behar da eta, horrez gain, bosgarren lasterketan bigarren postuan iritsiko den zaldiarena.


E. Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalaren (gaztelaniaz, ONCE) jokoak ^[9]

ONCE erakundeak Euskadin du banaketa-sare handiena, loterien artean. Espainia guztian ONCEko 23.428 saltzaile daude, eta horietatik 812 Euskal Herrian. Saltzaile gehien dituen autonomia-erkidegoa Andaluzia da; 5.867 saltzaile, hain zuzen.

ESTATUKO ONCE-KO SALMENTA-GUNEEN BANAKETA




ONCE-ko salmenta-guneen kopurua autonomia erkidegoetan



Milioi biztanleko saltzaile gehien dituen autonomia-erkidegoa Kanariar Uharteak da. Euskadi batez bestekoaren azpitik dago pixka bat.

AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO MILOI BIZTANLEKO ONCE-KO SALMENTA-GUNEA



^[9] ONCEren Euskadiko probintzia-ordezkaritzek emandako informazioa.

Hona hemen ONCE erakundearen joko-eskaintza:

Kupoia. Ausazko jokia da, astelehenetik ostegunera bitartean zoketatzen dena. Hainbat sari-mota ematen ditu; handiena 3.500 eurokoa da kupoiaren bost zifrentzako. Mota horretako 50 sari bana daitezke. Apustuaren prezioa 1,5 eurokoa da.

Kupoitzarra. Ausazko jokia da, ostiraletan zoketatzen dena. Banatzen den saririk handiena 6 milioi eurokoa da, bost zifrentzako eta seriearentzako. Apustuaren prezioa 2,5 eurokoa da.

Asteburuetako superkupoia. Ausazko jokia da, igandeetan zoketatzen dena. Saririk handiena 3 milioi eurokoa da gutxienez bereziki ateratako bolarako. Bola berezia atera eta bost zifrentzako eta serierentzako kupoi sariduna saldu ez bada, bola bereziko hurrengo zoketetako sariari batuko zaio. Apustuak 2 euro balio du.

Bonokupoia. Joko-modalitate honetan, aste guztian egiten diren zoketetan egunero zenbaki berarekin apustu egin daiteke. Hau da saria: parte hartutako zoketa horietako bakoitzeko sarien batura. Hau, berriz, prezioa: baliagarria den zoketa guztietako kupoiak balio dutenaren batura.

Comboa. Joko honetako matrizea sei bolak —triangelu baten itxura egiten dutela— eta bola osagarri batek osatzen dute. Hiru bola behealdeko errenkadan, bi erdikoan eta bat triangeluaren puntan. Jokoa, beraz, triangelua osatzen duten sei bola horietako bakoitzari 0 eta 9 bitarteko zenbaki bana jartzean eta 1 eta 15 bitarteko beste zenbaki osagarri bat aukeratzean datza. Zenbakien konbinazio bakoitza apustu bat da. Asteazketan eta larunbatetan zoketatzen da. Apustu bakoitzak euro 1 balio du.

Combotea. Comboak hurrengo zoketetarako metatzen du saria, 1. kategoriako asmatzailerik ez badago (triangeluko sei zenbakiak eta osagarria asmatzean datza 1. kategoria). Merkataritzaren ikuspegitik, Comboaren zoketetako potoari deitzen zaio Combotea.

ONCERen “rasca”. Txartelean ageri den joko-eremuan marruskatzean datza jokia. Txartel sariduna bada, irabazitako diru-kopurua aterako da agerira eta sariduna ez bada, berriz,

ONCERekin parte hartzeagatik eskerrak emateko esaldi bat. Txartel bakoitzak 50 zentimo balio du. Joko honetako txartel-serie bakoitza hamar milioi txartelek osatzen dute. Zazpi sari-kategoria daude, nor bere kopurua duela; 3,5 txarteleko 1 sariduna da.

7 sariduna. Txartelean ageri den joko-eremuan marruskatzean datza jokia. Agerian geratzen diren bost zenbakien artean 7 zenbakia azalduz gero, txartel sariduna da eta “sari-eremuan” ageri den euro-kopurua izango da saria. Joko honetako txartel-serie bakoitza hamar milioi txartelek osatzen dute. Zazpi sari-kategoria daude, nor bere kopurua duela; 3,5 txarteleko 1 sariduna da.

Seitik hiru. Latex-geruza batez estalitako joko-eremu bat du txartelak, eta hori marruskatu behar da. Hori egin ondoren, eurotan adierazitako 6 kopuru geratuko dira agerian, euro 1 eta 10.000 euro bitartekoak. Agerian geratutako sei kopuru horietatik 3 berdinak badira, txartel sariduna da eta zifra horien bidez adierazten den diru-kopurua da saria. Joko honetako txartel-serie bakoitza hamar milioi txartelek osatzen dute. Zazpi sari-kategoria daude, nor bere kopurua duela; 3,99 txarteleko txartel1 sariduna da.

F. Apustu-etxeak ^[10]

Apustu-aretoak —Europako herrialdeetan ohikoak aspaldidanik— iritsi dira Euskal Autonomia Erkidegora ere. 2007ko azaroan, Eusko Jaurlaritzak apustu-etxeak ustiatzea xede zuten hiru lizentzia eman zituen. Horrenbestez, jokoaren enpresa-sektorea sustatzeko eta herritarrek eskaintza hobea izateko bideari ekin zitzaion. Hauek dira apustu-aretoetarako baimenak eskuratu zituzten hiru enpresak: Ekasa (Euskal Kirol Apustuak A.A), RETA izen komertzialarekin; VICTORIA GARAIPIEN APUSTUAK, SL, (William Hill, Codere eta euskal jokoen operadoreek bat eginda sortua, batik bat); eta TEAPOSTUAK (euskal enpresaburuek bat eginda sortua). Horietako bakoitzak 25 establezimendu eta 500 autozerbitzuko terminal (ostalaritza-aretoetan) jar ditzake.

Britainiako Bookiak

Harold Macmillan's jaunaren gobernu kontserbadoreak, 1961ean, apustu-etxeak legeztatu zituen eta sektore horretako zintzotasuna bermatzeko oso neurri zorrotzak sartu zituen. Maximo historikoan, Erresuma Batuko apustu-etxeen gehieneko kopurua 15.000 izan zen eta, gaur egun, guburorabehera 8.500 daude lurralde osoan. Operadore nagusiak dira William Hill, Ladbrokes, Coral eta Tote Sport, publikoa dena.

[10] Jokoen Nazioarteko Biltzar eta Apuestas Remotas EIGEXPO, Barcelona 2007tik jasotako datuak.

G. Hipodromoa ^[12]

Egun, Espainia osoan 11 hipodromo daude, baina horietako 4tan soilik egin daitezke apustuak. Halaber, horietan guztietan barruko apustua da soilik zilegi; hau da, hipodromoan bertan egin behar dira. Lasarteko hipodromoa (Gipuzkoa) da salbuespen bakarra. Izan ere, gure autonomia-erkidegoan hipodromoetatik kanpo apustua egin daiteke, ostalaritza-aretoetan zein kasinoetan. Horrenbestez, nazioarteko lasterketen inguruan zuzenean egin daiteke apustua, Bizkaian eta Gipuzkoan horretarako egokituta dauden 16 saltokitan. Araban ez dago propio horretarako egokitutako saltokirik.


Lasarteko hipodromoan udan baino ez dira izaten zaldi-lasterketak. 12 jardunaldi izaten dira eta, guztira, 72 lasterketa jokatzeko dira; hau da, 6 lasterketa jardunaldi bakoitzeko. Urtearen joanean, 12 lagun arduratzen dira hipodromoaren mantentze-lanez, hura behar bezala egon dadin; lasterketa-garaian, berriz, 120 lagun ere aritzen dira lanean.

1.3. Eskaintzaren eta eskariaren inguruko datu nagusiak

Jokoaren sektoreak Euskadin 1.365 milioi euro fakturatu zituen 2006. urtean; horrek adierazten du fakturazioak behera egin duela pixka bat, 2005. urtekoaren aldean.

Araututa dauden betiko jokoek, gutxi bada ere, gora egin dute; dena dela, indarra galtzen ari dira, beste joko-modalitate batzuk direla eta. Joko guztietan jokatutako zenbatekoak gora egin du azken 7 urteetan Euskadin; urteko hazkunde-tasa konposatua (ingelesez, CAGR) %2,6koa da ^[13].

EAE-N ARAUTUTAKO JOKOETAN JOKATUTAKO DIRU-KOPURUA



Iturria: Jokoaren 2006 urteko txostena, Jokoaren Batzorde Nazionala

^[12] HAHE, Hipódromos y Apuestas Hípicas de Euskadi, S.A.; Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren informazioa.

^[13] Jokoaren Urteko Txostena, Jokoaren Batzorde Nazionalak eginda.


^[14] Apustularien Espainiako Elkarte (AEDAPI)-ren datuak.

Betiko jokoan edo joko tradizionalen sektoreak urruneko operadoreen eraso gogorraren ondorioak jasaten ari da.

Ohiturak aldatzen ari dira eta, beraz, ez da ondorioak jasaten ari den sektore bakarra. Ostalaritzaren sektorea eta zinema-aretoak ere —biek lotura handia dute aisia eta denbora librearekin— behera egiten ari dira nabarmen.

Baina txanponak badu beste alderik ere: Internet bidezko jokoaren sektorea; izan ere, izugarri ari da hazten.


EAE-N ONLINE JOKATUTAKO DIRU-KOPURUA 2005-2006, AURREBISTA 2007-2008



Iturria: AEDAPIren jatorrizko datuak eta PwC-ren estimazioak

^[14] Internet bidezko Apustularien Espainiako Elkarteak (gaztelaniaz, AEDAPI) zenbait datu eman zituen, eta Espainia osoan inguruan jasotako datuetatik Euskadiko jokoak duen pisua estrapolatuta, kalkulatu da online jokoaren fakturazioa Euskadin 20 milioi eurokoa izan zela 2006. urtean. AEDAPIk Espainia osoarentzat aurreikusitakoaren arabera, %50 baino gehiago haziko da. Hori guztia hala da, mota horretako apustuak legearen aurkakoak badira ere.

INTERNETEN BIDEZKO APUSTUAK 2006



Elkarteak egindako kalkuluen arabera, Espainian online gatatutako diru-kopuruak 413 milioi euro egin zituen. Halaber, 2007ko martxoan argitaratutako txostenetako batean elkar-


teak adierazi zuenaren arabera, Espainian Internet bidez egindako apustuen %70 futbolaren ingurukoak dira, %15 tenisaren ingurukoak, %7 motorraren ingurukoak eta %3 euskal pilotaren ingurukoak. Hortaz, pilotak 12,4 milioi euro mugitu zituen Espainia osoan 2006. urtean.

^[15] Interesgarria da jokoek izan duten bilakaerari eta sektorearen barruan horiek izan duten arrakasta-aldaketari erreparatzea. Benetako gastua (jokatutako zenbatekoari sarietako zenbatekoa kenduta lortzen den emaitza) joko-motaren arabera bereiziz gero, aukera ematen du Euskadiko eta Espainiako enpresa-sektoreek izandako fakturazioa alderatzeko. Ildo beretik jarraituz, azterketak agerian utzi du merkatuaren desglosea oso antzekoa dela, benetako gastuari dagokionez, bi lurralde horietan.

LAEk eskaintzen duen jokoak du fakturazio handiena (benetako gastua). Dena dela, jokatutako zenbatekoari dagokionez, bigarren postuan daude; izan ere, benetako gastuaren zerrandan lehenak B motako makinak dira, sarietan diru-kopuru txikiagoa itzultzen baitute.

Milioika jokalariegana heltzea


LAEk ahalik eta bezero gehienengana heltzearen aldeko apustua egin du. Duela gutxiko ekimenei esker lortu du. Batetik, Internet bidezko jokoak. LAEK eskaintako online jokoak herabeki hasi zen hazten, 2005ean 669.329 euroko salmenta zena, 2006an 5.215.990 euro ziren Estatuan. Berritasun garrantzitsuenetako bat da Euromilioi jokoak, Parisen hasi zena 2004an, Erresuma Batuko Kamelot, Frantziako Française de Jeux eta Loterías y Apuestas del Estado-ren arteko akordioaren ondorioz. Gaur egun, Austria, Belgika, Irlanda, Suitza, Portugal eta Luxenburgoko bezalako herrialdeak ere batu dira.



Joko-sektoreak —Eusko Jaurlaritzak du eskumena— urte asko daramatza, eskaria egonkorra du, ondo dibertsifikatuta dago eta joko-eskaintza zabala du. **2006. urtean sektorean gastatutako zenbateko guztiak 28.800 milioi euro egin du Espainian, BPGren %3; Euskadiri dagokionez, zenbateko guztiak 1.300 milioi euro egin du.**


^[15] Jokoaren Urteko Txostena, Jokoaren Batzorde Nazionalak eginda.

NOLA BANATU ESTATU-KO JOKOAREN BENETAKO GASTUA




Herritarrek jokoan erabilitako diru-kopuruak kontuan hartuta osatzen da eskaria. Irizpide horren arabera, Euskadin zein Espainian eskari handien duten jokoak B motako makinak dira eta, ondoren, Estatuko Loteria eta Apustuak. Beste muturrean —eskari gutxien duen jokoak, alegia—, ONCE da eta, ondoren, kasinoak, oso alde txikiarekin. Merezki du adieraztea Euskadin eta Espainian oso antzekoa dela eskari-moten banaketa.

EAE-N JOKATUTAKO DIRU-KOPURUAK BANATzea, 1999-2006 ALDIAN



ESTATUAN JOKATUTAKO DIRU-KOPURUAK BANATzea, 1999-2006 ALDIAN



Joko gehienek bezero-mota jakina izaten dute.

B motako makinak. Ostalaritza-establezimenduetan eta joko-aretoetan egoten direnen arteko bereizketa egin behar da.

- B motako makinak ostalaritzan: gehienetan gizonezkoak dira, adin ertain/handikoak.
- Joko-aretoak: aretoaren kokapenaren baitan dago bezero-mota.
 - Auzo berrian edo kanpoaldean kokatutako aretoa: bezero gazteak.
 - Auzo zaharrean edo erdialdean kokatutako aretoa: bezero helduak.

Kasinoak. Asteko egunaren eta ordutegiaren arabera. Asteburuetan zenbait bezero-mota dibertsifikatu egiten da, afaltzera baino joaten ez den jendea edo noizean behin jokatzen duen bezeroa. Astegunetan, berriz, bezeroak ohiko jokalaririk izaten dira batik bat.

Bingoak. Gehienetan emakumezkoak dira, adin ertain/handikoak.

LAE eta ONCE. Jokalaririk dibertsifikatuago daude eta gizarteko segmentu guztiak hartzen dituzte beren baitan.


Apustu-etxeak. Euskadiri buruzko informaziorik ez dugu, azterketa egindako unean ez baitzegoen halakorik artean; dena dela, Erresuma Batuko bezeroaren ezaugarriak hauek dira:

- *Jokalari soziala:* kaleko apustu-etxeetara joaten dira.
- *Jokalari profesionala:* Internet bidez egiten ditu apustuak.

A. KASINOAK ^[16]


Kasinoen azpisektorearen fakturazioaren bilakaera, Euskadin zein Espainian, positiboa da. Benetako gastuen bilakaera positiboa da, eta jokatutako diru-kopuruak ere gora egin du. Guri dagokigunez, bisitari bakoitzeko batez besteko gastuak gora egiteak eragin du hazkundera. Espainiari dagokionez, benetako gastuak gora egin badu ere, azken urteotan kasino asko zabaltzeak eragin du hazkundera eta, ondorioz, bisitari-kopuruak gora egiteak.

EAE-KO KASINOEN BENETAKO GASTUAREN BILAKAERA, 1999-2006 ALDIAN




Iturria: CNJren jokoaren urteko bostena

EAE-KO KASINOETAN JOKATUTAKO DIRU-KOPURUA, 1999-2006 ALDIAN



Iturria: CNJren jokoaren urteko bostena

ESTATUKO KASINOEN BENETAKO GASTUAREN BILAKAERA, 1999-2006 ALDIAN




Iturria: CNJren jokoaren urteko bostena

Horrenbestez, **2006. urtean Espainiako kasinoetan jokatutako zenbatekoak 2.459 milioi euro egin du, eta Euskadin jokatutakoak 86,7 milioi inguru**, Espainian jokatutako kopuru guztiaren %3,5.

[16] Jokoaren Urteko Txostena, Jokoaren Batzorde Nazionalak eginda.


Kasinoek duten pisua gainerako jokoek dutenaren aldean, txikiagoa da Euskadin Espainian baino. Gure autonomia-erki-degoan bisitari-kopuruak behera egin badu ere azken urteotan, fakturazioaren zenbatekoak gora egiten jarraitzen du, bisitari bakoitzeko batez besteko gastuak nabarmen gora egin duelako. Espainiari dagokionez, ordea, bisitari kopuruak gora egin du, 1999. urteaz geroztik 13 kasino zabaldu izanaren ondorioz seguruenik, baina bisitari bakoitzeko batez besteko gastua ez da neurri berean hazi.

BISITARI-KOPURUAREN BILAKAERA / EAE-KO ETA ESTATUKO BIZTANLEAK




Iturria: CNJren jokoaren urteko txostena

EAE ETA ESTATUKO KASINOETAN BISITARIEK JOKATUTAKO BATZ BESTEKOEN DIRU-KOPURUEN BILAKAERA



Iturria: CNJren jokoaren urteko txostena

ESTATUKO KASINOETAN JOKATUTAKO DIRU-KOPURUA, 1999-2006 ALDIAN




Iturria: CNJren jokoaren urteko txostena

Jokatutako diru-kopuruak eta benetako gastuak gora egin badute ere, **bisitari-kopuruak behera egin du pixkanaka azken urteotan. 1999an 110.088 bisitari izan ziren, eta 2006an 94.652 bisitari zenbatu ziren; beraz, kopuruak behera egin zuen. Dena dela, biztanle bakoitzeko jokatutako batez besteko kopuruak %48,3 egin du gora 1999. urteaz geroztik.** Espainian bisitari-kopuruak ere gora egin du, baina ez hainbeste: 3.634.006 bisitari 2006. urtean eta 3.139.040 bisitari 1999an. Jokatutako batez besteko kopuruak %33,1 egin du gora 1999. urteaz geroztik.

B. B MOTAKO MAKINAK [17]


B motako makinaren azpisektorea da eskari handien duen joko, jokatutako diru-kopuruari dagokionez. **Baina, dena dela, urtez urteko batez besteko hazkundea %1,11koa da Euskadin eta %0,82koa Espainian.** Hortaz, balio nominaletan gora egin badu ere, benetako balioetan behera egin du.

EAE-KO B MAKINEN BENETAKO GASTUAREN BILAKAERA, 1999-2006 ALDIAN



Iturria: CNJren jokoaren urteko txostena

ESTATUKO B MAKINEN BENETAKO GASTUAREN BILAKAERA, 1999-2006 ALDIAN




Iturria: CNJren jokoaren urteko txostena

[17] Jokoaren Urteko Txostena, Jokoaren Batzorde Nazionalak eginda.

B motako makinei dagokienez, benetako gastuak jokatu-tako zenbateko guztiaren %25 egiten du. Hori hala da Espainian zein Euskadin. Autonomia-erkidego gehienetan, B motako makinak homologatuta egon behar dute; hau da, Euskadin gertatzen den bezala, gutxienez %75 itzuli behar da. Andaluzian, Balear Urteetan, Katalunian eta beste zenbait autonomia-erkidegotan itzuli beharreko kopurua txikiagoa da (%70).


B motako makinetan jokatutako diru-kopuruak 10.939 milioi euro egin zituen 2006. urtean Espainian, eta 545 milioi euro Euskadin. Hau da, sektorean jokatutako zenbateko guztiaren %40, bai Euskadin bai Espainian.

EAE-KO B MAKINETAN JOKATUTAKO DIRU-KOPURUA, 1999-2006 ALDIAN



Iturria: CNJren jokoaren urteko txostena

ESTATUKO B MOTAKO MAKINETAN JOKATUTAKO DIRU-KOPURUA, 1999-2006 ALDIAN




Iturria: CNJren jokoaren urteko txostena

C. BINGOAK [18] [19]


Joko honetako benetako gastuak agerian uzten du goranzko joera duela urteen joanean. Dena dela, grafikoak ikuskatu ondoren, datuek erakutsi dute hazkundera ez dela gehiago jokatzearen ondorio, baizik eta azken urteetan gertatu den aldaketa baten ondorio; hau da, sarietan itzultakoaren ehunekoak behera egin du. Beherakada handiena 2002. urtean izan zen; %70 izatetik %64 izatera pasa zen. Egun, itzulketa-ehunekoa %62 ingurukoa da.

EAE-KO BINGOEN BENETAKO GASTUAREN BILAKAERA, 1999-2006 ALDIAN



Iturria: CNJren jokoaren urteko txostena

ESTATUKO BINGOEN BENETAKO GASTUAREN BILAKAERA, 1999-2006 ALDIAN




Iturria: CNJren jokoaren urteko txostena

Bisitarien inguruko azken datuak ere ez dira onak. Euskadin bisitari-kopuruak %26,3 egin du behera 1999. urteaz geroztik; azken datuen arabera, urtean bi milioi bisitari inguru izaten dira.

[18] Jokoaren Urteko Txostena, Jokoaren Batzorde Nazionalak eginda.

[19] BAE enpresa-elkartea, Euskadiko bingo elkartuak.

BISITARI-KOPURUAREN BILAKAERA EAE-KO BINGOETARA




Oharra: 2004tik, aurreko urteetako batzueko beharrekada extrapolatu da
Iturria: Euskadiko BINGOEN Elkarte

D. Estatuko Loteria eta Apustuen Erakunde Nazionala (gaztelaniaz, LAE) [20]


da azken urteotan gehien hazi den jokoetako bat. 1999. urteaz geroztik joko honek izan duen benetako gastuak agerian utzi du urteko hazkunde-tasa konposatua %4,46koa dela.

EAE-KO LAE-KO BENETAKO GASTUAREN BILAKAERA, 1999-2006 ALDIAN



Iturria: CNJiren jokoaren urteko txostena


ESTATUKO LAE-REN BENETAKO GASTUAREN BILAKAERA, 1999-2006 ALDIAN



Iturria: CNJiren jokoaren urteko txostena


Lehen ere adierazi dugunez, LAEren fakturazioak nabarmen egin du gora. **Euskadin eta Espainian merkatu-kuotak gora egitea** eragin du horrek; hain zuzen ere, **%38,6 eta %33,4 egiten dute, hurrenez hurren**. 1999. urtean, zenbait horiek %34,8 eta %28,3 ingurukoak ziren. Gaur egun, berriz, B motako makinak jokoak du merkatu-kuota handiena eta, jarraian, LAEK. Adierazi behar da, halaber, gainerako jokoek behera egin izanak edo bere horretan geratu izanak mesede egin diola LAEri, onuradun nagusia bera izan baita. Horrezaz gain, baliteke 2004ko otsailean Euromilioia abian jartzeak ere eragina eduki izana.

EAE-KO LAE-N JOKATUTAKO DIRU-KOPURUA, 1999-2006 ALDIAN



Iturria: CNJiren jokoaren urteko txostena

ESTATUKO LAE-N JOKATUTAKO DIRU-KOPURUA, 1999-2006 ALDIAN



Iturria: CNJiren jokoaren urteko txostena

E. ONCE [21] [22]


Honen lehiakide nagusiak garai onak izan ditu zenbait urtez eta ONCEk, berriz, sektorean zuen pisuak indarra galdu du. 2002. urteaz geroztik, joko honen fakturazioak behera egin

[20] Jokoaren Urteko Txostena, Jokoaren Batzorde Nazionalak eginda.
[21] Jokoaren Urteko Txostena, Jokoaren Batzorde Nazionalak eginda.
[22] ONCEren Euskadiko probintzia-ordetzaritzek emandako informazioa.

du, Espainian zein Euskadin. Beherakada handiena 2005. urtean eman zuen, eta litekeena da 2004ko otsailean LAEK abian jarritako Euromilioia jokoaren ondorio izatea.


Itzulketa-ehunekoari dagokionez, joko guztien artean txikiena du ONCEk (%48), kopuru jakin bat fundazioarentzat delako, batik bat.

EAE-KO ONCE-KO BENETAKO GASTUAREN BILAKAERA, 1999-2006 ALDIAN



Iturria: CNJren jokoaren urteko bostena


ESTATUKO ONCE-KO BENETAKO GASTUAREN BILAKAERA, 1999-2006 ALDIAN



Iturria: CNJren jokoaren urteko bostena


ONCEren eskaerak behera egin du nabarmen azken urteotan, eta 1999. urteaz geroztik merkatu-kuota gehien galdu duen jokoak da gure autonomia-erkidegoan. Espainian ere behera egin du, baina ez da hain handia izan beherakada.

EAE-KO ONCE-N JOKATUTAKO DIRU-KOPURUA, 1999-2006 ALDIAN



Iturria: CNJren jokoaren urteko bostena


ESTATUKO ONCE-N JOKATUTAKO DIRU-KOPURUA, 1999-2006 ALDIAN



Iturria: CNJren jokoaren urteko bostena

Kopuru absolutuetan, Bizkaia da ONCEren jokoetan diru gehien erabiltzen duen lurralde historikoa. Batez beste edo kopuru erlatiboetan, pertsona bakoitzeko 29,5 euro jokatzen dira Bizkaiari, 30,5 euro Arabari, eta 32 euro Gipuzkoari.

EAE-N ONCE-N JOKATUTAKO DIRU-KOPURUEN BANAKETA, JOKOAREN TIPOLOGIAREN ARABERA, 2000-2006 ALDIAN



Joko-mota asko badu ere, Euskadin ez dago oso dibertsifikatuta ONCEren joko-eskaria. Ildo beretik jarraituz, euskal herritarrentzako jokorik erakargarriena kupoitzarra da —merkatu-kuotaren %39 egiten du— eta, ondoren, kupoia —%31ko merkatu-kuota duela—. Erakargarritasun gutxien duena, berriz, bonokupoia da —merkatu-kuota %3,3koa da—.

1.4. Sektoreko eragile nagusiak

A. ESPAINIAN

Autonomia Erkidegoko Elkarteak

■ Aretoak

- ASE. Euskadiko Joko- eta Jolas-aretoen Elkarteak Euskadiko aretoen %90 hartzen ditu bere baitan
 - AMRA. Arabako Jolas-makinen Elkarteak.
 - AGUIMAR. Gipuzkoako Jolas-makinen Elkarteak.
 - ASERVI. Bizkaiko Jolas-sektoreko Enpresaburuen Elkarteak.

Hiru elkarte horiek osatzen dute Euskadiko Joko- eta Jolas-aretoen Elkarteak (gaztelaniaz, FVEJ).

■ Jolas-makinak

- FVEJ. Euskadiko Jolas- eta Joko-makinen Enpresaburuen Elkarteak makinak dituzten ostalaritza-establezimenduen %90 hartzen ditu bere baitan.

■ Bingoak

- BAE. Euskadiko Bingen Elkarteak Euskadin dauden 19 bingoetatik 18 hartzen ditu bere baitan.

■ Jokoaren mendekotasuna duten pertsonen laguntzeko elkarteak

- ASAJER. Errehabilitazioan dauden Arabako Jokalarien Elkarteak.
- EKINTZA ALUVIZ. Bizkaiko ludopatei laguntzeko Elkarteak.
- EKINTZA DASALUD. Gipuzkoako mendekotasun psikologikoen errehabilitaziorako Elkarteak.
- Jokalari anonimoak.



Espainiako Elkarteak

■ Aretoak

- ANESAR, Asociación Nacional de Empresarios de Salones Recreativos.

■ Kasinoak

- AECJ, Asociación Española de Casinos de Juego. Hau da haren ideologia: ahalik eta errespeturik handiena, kasinoen politikarekiko. European Casino Association (ECA) izenekoaren fundatzaileetako bat da.

● Jolas-makinak

- FACOMARE, Asociación española de Empresarios de Máquinas Recreativas. Euromat-eko kide.
- FEMARA, Federación Nacional de Operadores de Máquinas Recreativas y de Azar.
- COFAR. Euromat-eko kide.
- EUROPER. Estatu osoko jolas-makinetako enpresa operadore txiki eta ertainak biltzen ditu.

● Internet bidezko jokoak

- AEDAPI, Internet bidezko Apustularien Espainiako Elkarteak.

● Jokoaren mendekotasuna duten pertsonen laguntzeko elkarteak

- Jokalari anonimoak.

● Nazioarteko elkarteak

- Ecogra. Irabazi asmorik gabeko erakundea, Internet bidezko jokoaren sektoreko estandarren agintari independentea, bidezko jokoa, jokalaria babesteari eta operadorearen jarrera arduratsuari dagokionez.

B. NAZIOARTEKO ELKARTEAK

Jokoaren mendekotasuna duten pertsonen laguntzeko elkarteak

- GAMCARE. Irabazi asmorik gabeko erakundea da eta hau du xede: informatzea eta jokoak gizartean duen eraginaren inguruan bidelagun izatea eta laguntzea. Honako hauek lortzeko estrategiak ere garatzen dituzte:
 - Jokoak herritarren artean duen eragin soziala azaltzea.
 - Joko arduratsua sustatzea.
 - Jokoarekiko mendekotasuna duten pertsonen beharrei erantzutea.

Enpresaburuen elkarteak

- EGBA. European Gaming and Betting Association. Irabazi asmorik gabeko elkarteak da, Europako dauden online jokoaren operadore nagusienetako zazpik eratua: Partygaming, bwin Group, Unibet, bet-at-home.com, the Carmen Media Group, Expekt eta Interwetten Gaming Ltd.
- IGC Interactive Gaming Council. Irabazi asmorik gabeko erakundea, 1996an eratua AEBn eta 2000. urtean Vancouver hirira lekualdatua. Joko interaktiboaren industria-rako interes komuneko gaietan aurrera egiteko eta honako hauek ezartzeko sortu zen: ildo eta estandarrek eta bidezko joko eta joko arduratsurako jarraibideak, kontsumitzaileak konfiantza izatea bultzatzeko. Horrez gain, industriaren ordezkari-lanak egiten ditu eta presio-talde gisa ere aritzen da politika publikoaren alorrean.
- RGA. Remote Gambling Association, 2005eko abuztuaren 1ean eratua, ARGO (Association of Remote Gambling Operators) eta IGGBA (Interactive Gaming, Gambling and Betting Association) elkarteek bat egin ondoren.
- IBAS. The Independent Betting Arbitration Service, 1998. urteko udazkenean sortu zen, Erresuma Batuko gobernuaren eta apustu-etxeen sektore guztiaren %95 ingururen babesu zuela.
- Abb, Association of British Bookmakers.
- Euromat, Europako B motako makinetako operadore-enpresaburuen elkarteak.

- ECA, European Casino Association.

Joko-enpresak

- 888.com. Haren xedea Internet bidezko ausazko jokoan munduko merkatuko buru izatea da, bazkide-kopuruari eta horien satisfazio-mailari dagokionez. Kasinoa eta online pokerra dira haren jarduera nagusiak. Gibraltarrek emandako lizentziarekin dihardu eta mundu guztian zehar ditu bulegoak. 1997. urtean sortu zen.
- SPORTINGBET. Kirol-apustuak eta online pokerra dira jarduera nagusiak. Erresuma Batuan du egoitza soziala, Erresuma Batuak emandako lizentziarekin dihardu eta 2001. urteaz geroztik burtsan kotizatzen du. Mundu guztian du presentzia eta 26 hizkuntzatan egin daitezke apustuak. miapuesta.com izenarekin dihardu Espainian. 1998. urtean sortu zen.
- BETFAIR. Sporting Exchange S.L. enpresarena da. Jarduera nagusia online apustu gurutzatuak dira. Erresuma Batuan du egoitza soziala, eta Erresuma Batuan, Maltan, Australian eta Austrian ditu lizentziak. 140 herrialdeetan dago eta 16 hizkuntzatan sar daiteke orrian. 2000. urtean sortu zen.
- GLOBET. Kirol-apustuak, kasinoak eta bestelakoak dira haren jarduera nagusiak eta guzti-guztiak Internet bidez. Egun, online apustu-eskaintza handienetako bat du, Europako eta nazioarteko ikuskizunetarako zergarik gabe. Erresuma Batuan du egoitza soziala eta Erresuma Batuan eta Gibraltarren ditu lizentziak. 10 hizkuntza ditu aukeran. 1995. urtean sortu zen.
- BWIN. Jarduera nagusia online kirol-apustuak dira. Gibraltarren du egoitza soziala eta lizentziak Gibraltarren, Alemanian, Kanadan, Italian, Erresuma Batuan, Mexikon eta Argentinan ditu. Mundu osoan zehar da ezaguna eta 20 hizkuntza ditu aukeran. Egun, Real Madrid C.F, A.C.Milan, MotoGP, FIBA, F.C Slovan Liberec eta Bwin liga laguntzen ditu.
- LADBROKES. Jarduera nagusiak apustu tradizionalak dira, bai eta Internet bidezko apustuak ere. Erresuma Batuan du egoitza soziala eta Erresuma Batuan eta Gibraltarren ditu lizentziak. 200 herrialdeetan du presentzia eta 10 hizkuntza ditu aukeran. 1998. urteaz geroztik burtsan kotizatzen du.
- WILLIAM HILL. Apustuak eta kasinoak online dira haren jarduera nagusiak. Erresuma Batuan du egoitza soziala eta li-


zentzia. Munduan dagoen telefono bidezko apustu-enpresa handiena da. 150 herrialdeetan du presentzia eta 8 hizkuntza ditu aukeran. 1934. urtean sortu zen.

- CARMEN MEDIA. Kasinoa, pokerra eta kirol-apustuak online dira jarduera nagusiak. Gibraltarren du egoitza soziala eta lizentzia. Mundu osoan zehar da ezaguna eta 14 hizkuntza ditu aukeran. 2002. urtean sortu zen.
- UNIBET. Apustuak, kasinoa eta pokerra online dira jarduera nagusiak. Maltan du egoitza soziala eta lizentzia. 150 herrialdeetan du presentzia eta 25 hizkuntza ditu aukeran. 2004. urteaz geroztik burtsan kotizatzen du. 1997an sortu zen.
- PARTYGAMING. Kasinoa eta pokerra online dira haren jarduera nagusiak. Gibraltarren du egoitza soziala. Horrezaz gain, Kanadan eta Gibraltarren ditu lizentziak. 2005. urteaz geroztik burtsan kotizatzen du. 13 hizkuntza ditu aukeran. 1997. urtean sortu zen.

1.5. Datu makroekonomiko nagusiak


Datu makroekonomiko nagusiak aztertzea oso lagungarria da jokoaren sektorea Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia-
ren barruan kokatzeko, ikuspegi globala kontuan hartuta. Horrenbestez, aztertu beharreko lehen datu makroekonomikoa Euskadiko biztanleriaren bilakaera da; izan ere, **edozein sektoretako eskaria eta, hortaz, jokoaren sektorekoa ere bai, bezero potentzialen mende dago zuzenean**. Grafikoak erakusten duenaren arabera, Euskadiko eta Espainiako biztanle-kopuruak gora egin du 1998. urteaz geroztik. Dena dela, Espainia osoko hazkundearen erritmoa (%13) gure autonomia-erkidegoko erritmoa baino arinagoa da, %1,4 baino ez baita hazi 1998. urteaz geroztik.

ESTATUKO ETA EAE-KO BIZTANLEEN BILAKAERA 1998-2006 ALDIAN



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala

GIZARTE SEGURANTZAN INSKRIBATUTAKO KOPURUAREN BILAKAERA ESTATUAN




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala

Nolanahi ere, biztanle-kopurua eta Gizarte Segurantzaren inskribatutako biztanle-kopurua alderatuz gero, informazio osatuagoa lor dezakegu. Biztanle bakoitzeko errenta handiago bada lan-merkatuaren egoera hobea delako, herritarrek diru gehiago izango dute aisialdirako eta, hortaz, jokorako. **Euskadiko biztanle-kopuruaren hazkunde-erritmoa motela bada ere, hauteman dezakegu Gizarte Segurantzaren inskribatutako biztanle-kopuruaren hazkunde-erritmoa arinagoa dela.** Horrenbestez, 2006. urtean Gizarte Segurantzaren inskribatutako biztanle guztien %42,9 egin zuen.


Jokatutako zenbatekoei dagokienez, zenbaki absolututan, kopuruak 28.881 milioi euro egiten du Espainian eta 1.364 milioi euro Euskadin. Euskadiko joko-sektorearen pisua Espainiako sektorearekiko %4,8koa da. Ehuneko hori eta Euskadiko BPGren eta Espainiako BPGren arteko ratioa oso antzekoa da, %5ekoa baita. Adierazi behar dugu, halaber, Euskadiko jokoaren sektoreak azken urteotan garrantzi txikiagoa duela Espainia guztiko merkatuaren barruan.

GIZARTE SEGURANTZAN INSKRIBATUTAKO KOPURUAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala

EAE ETA ESTATUAN JOKATUTAKO DIRU-KOPURUEN BILAKAERA 1999-2006 ALDIAN



Iturria: CNJren urteko txostena

[23] Espainiari dagokionez, Gizarte Segurantzaren inskribatutako biztanle-kopuruaren bilakaera ere positiboa da. 2005. urtean inskribatutako pertsona-kopuruak Espainiako biztanle guztien %40,6 egin zuen.

Jokoarekin zerikusia duen zerga-bilketa Euskadin [24]

Sektorearen guztiko fakturazioa honela banatzen da: zerga-bilketa eta sektorearentzako sarrera garbia. Foru-aldundietako ogasun-sailek biltzen dute zerga, eta horiek arduratzen dira gobernu horietako bakoitzari dagokion zatia banatzeaz.

[23] INE eta ONCEren datuak.

[24] Eusko Jaurlaritzako Zerga-Koordinaziorako Organoen datuak.


EAEko JOKOAREKIN LOTUTAKO ZERGA-BILKETA

Mila eurotan	Kontzeptua	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	
1999	EAE	Bingoaren zerga	842,40	4.140,76	2.020,71	7.003,87
		Tasa fiskalen	455,99	2.149,64	1.139,02	3.744,65
	Foru Aldundiak	Bingoa	4.213,09	20.704,87	10.103,01	35.020,98
		Makinak	3.804,41	16.882,43	7.290,28	27.977,11
		Kasinoa	24,04	2.866,83	847,43	3.738,30
Guztira		9.339,93	46.744,52	21.400,45	77.484,90	
2000	EAE	Bingoaren zerga	859,88	4.213,77	1.986,73	7.060,38
		Tasa fiskalen	478,63	2.354,45	1.090,01	3.923,09
	Foru Aldundiak	Bingoa	4.299,6	20.679,02	9.929,92	34.908,58
		Makinak	4.032,8	14.393,64	9.185,27	27.611,70
		Kasinoa		3.104,23	823,39	3.927,62
Guztira		9.670,95	44.745,11	23.015,32	77.431,38	
2001	EAE	Bingoaren zerga	821,97	4.059,84	2.000,59	6.882,40
		Tasa fiskalen	515,97	2.371,06	1.176,43	4.063,46
	Foru Aldundiak	Bingoa	4.109,72	20.732,51	9.640,23	34.482,46
		Makinak	2.622,22	16.764,63	9.841,57	29.228,42
		Kasinoa		2.958,18	714,60	3.672,78
Guztira		8.069,88	46.886,22	23.373,42	78.329,52	
2002	EAE	Bingoaren zerga	801,13	4.291,74	1.977,60	7.070,47
		Tasa fiskalen	420,70	2.403,26	1.191,38	4.015,34
	Foru Aldundiak	Bingoa	4.020,08	21.453,61	9.888,23	35.361,92
		Makinak	3.545,56	20.052,57	9.961,54	33.559,67
		Kasinoa		2.710,17	723,23	3.433,40
Guztira		8.787,47	50.911,35	23.741,97	83.440,80	
2003	EAE	Bingoaren zerga	772,83	4.117,39	1.999,52	6.889,74
		Tasa fiskalen	536,40	2.463,51	1.186,46	4.186,37
	Foru Aldundiak	Bingoa	3.880,27	20.624,28	9.995,57	34.500,12
		Makinak	4.627,70	20.973,12	9.884,24	35.485,06
		Kasinoa		3.056,19	753,52	3.809,71
Guztira		9.817,20	51.234,49	23.819,31	84.871,00	
2004	EAE	Bingoaren zerga	782,56	4.141,92	1.905,66	6.830,15
		Tasa fiskalen	528,00	2.480,20	1.183,08	4.191,27
	Foru Aldundiak	Bingoa	3.909,11	20.696,60	9.528,32	34.134,03
		Makinak	4.425,83	20.529,58	9.871,12	34.826,53
		Kasinoa		3.000,51	839,99	3.840,50
Guztira		9.645,50	50.848,81	23.328,17	83.822,48	
2005	EAE	Bingoaren zerga	799,20	4.170,72	1.876,37	6.846,28
		Tasa fiskalen	514,61	2.324,05	1.142,78	3.981,44
	Foru Aldundiak	Bingoa	3.988,00	20.867,00	9.644,00	34.499,00
		Makinak	4.285,00	19.215,00	9.555,00	33.055,00
		Kasinoa	14,00	3.644,00	1.240,00	4.898,00
Guztira		9.600,81	50.220,77	23.458,15	83.279,72	
2006	EAE	Bingoaren zerga	767,02	3.841,66	1.813,21	6.421,89
		Tasa fiskalen	508,58	2.293,84	1.148,33	3.950,75
	Foru Aldundiak	Bingoa	3.829,52	19.211,07	9.035,50	32.076,10
		Makinak	4.231,20	18.759,94	9.573,35	32.564,49
		Kasinoa	41,51	3.386,55	849,27	4.277,33
Guztira		9.377,84	47.493,05	22.419,66	79.290,56	

Eusko Jaurlaritzak bingoetako eta makinetako zergak biltzen ditu soilik.

Euskadin jokoaren benetako gastua nola banatzen den ikus daiteke grafikoan. 2006. urtean, aldundiek %15,8 bildu zuten, Eusko Jaurlaritzak %2,3 eta gainerako %81,8a enpresaburuek berek. Azken urteen joanean banaketa ez da askorik aldatu.

BENETAKO GASTUA BANATZEAREN BILAKAERA FORU ALDUNDI, GOBERNU AUTONOMIKO ETA ENPRESEN ARTEAN




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Zerga Koordinatze Zuzendaritza

Grafikoak erakusten du joko bakoitzaren ekarpena zenbatekoa den. Bertan ikus daitekeenaren arabera, **foru-aldundiei eta Eusko Jaurlaritzari ekarpen handien egiten dieten jokoak bingoa eta makinak dira.** Dena dela,

bildutako zenbatekoaren proportzioa benetako gastuarekiko handiagoa da bingoaren kasuan, B eta C motako makinaren kasuan baino.

JOKO GUZTIEN ARTEAN JASOTAKO DIRUA BANATZEAREN BILAKAERA



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Zerga Koordinatze Zuzendaritza

Jokoetan egindako benetako gastuaren proportzioa BPGrekiko [25]

Garrantzitsua da jakitea Espainian sektorearen benetako gastua zenbatekoa den BPGrekiko, bai eta Euskadiri dagokionez ere. Grafikoan ikus daitekeenaren arabera, **2006. urtean, jokoaren sektoreak Espainiako BPGrekiko %0,7572 egin zuen, eta Euskadin, berriz, gutxiago, %0,7042 egin baitzuen.** Horrek esan nahi du ausazko jokoen sektoreak BPGren %0,7 egiten duela, itzulketak egin ostean.

		2003	2004	2005
EAE	ZINEMAK	35.500.000	36.700.000	32.300.000
	JOKOA	420.560.000	434.310.000	434.480.000
ESTATUA	ZINEMAK	639.400.000	691.600.000	634.900.000
	JOKOA	8.587.650.000	8.836.150.000	9.016.700.000

[25] INE, Eustat.

2. Jokoa, fenomeno soziala

2.1. Sarrera

Aurreko ataletan egindako ekonomia-diagnosiari esker, herritarrek dituzten ohiturak hauteman daitezke. Horren haritik, inkesta soziologiko bat egin dugu, Euskal Autonomia Erkidegoan joko-jarduerak gizartean nola eragiten duten jakite aldera. Azterketaren helburua da, beraz, herritarrek jokoarekiko duten jarrerara eta jokoari buruz duten iritzia jakitea, jarduera horrekiko herritarrek dituzten ohiturak jakitea, informazio-teknologia berriak erabiliz zenbat jokatzen den jakitea eta horiek gizartearen ohiturei nola eragiten dieten jakitea. Inkestaren bidez lortutako emaitzei esker, Euskadiko herritarren ohituren bilakaera nolakoa izan den jakingo dugu, aurreko Liburu Zuria egiteko 1990. urtean egindako inkestako datuekin alderatuko baititugu.

Atal honetako egitura

Inkestaren emaitzak gaika banatu dira inkestaren galderen arabera:

- Jokoari buruzko iritzia eta horretarako motibazioa
- Gizartearen ohiturak
- Jokoaren bermeak
- Administrazioaren eginkizuna
- Publizitatea eta ausazko jokoak


Metodologia

Landa-lana enpresa batek egin du eta telefono bidezko elkarrizketak egiten espezializatuta dago. Euskadin bizi diren 1.000 lagunek osatzen dute aztergai izan den biztanleria (300 Araban bizi dira, 400 Bizkaian eta 300 Gipuzkoan) eta 16 urtekoak edo helduagoak dira guztiak. Horrez gain, udalerrri, sexu eta adinaren arabera sailkatutako lagina egin da, horiekiko kopuru proporzionala eta metodologia kuantitatiboa erabilia. Laginaren errorea +/-%3,1 da eta konfiantza-tartea %95; hortaz, jarraian adieraziko ditugun ondorioek balio-maila handia dute estatistikoki.

2.2. Jokorako motibazioa eta jokoari buruzko iritzia

Jokoari buruzko iritzia hobera egin du 1990. urteaz geroztik; dena dela, oraindik ere jende-kopuru handiak uste du joko arriskutsu samarra dela. Aurrerago ikusiko dugunez, joko horietan tranpak egiten direlako usteak eragin dezake jokoarekiko ikuspegia ezkorra izatea.


JOKOARI BURUZKO IRITZIA 1990EAN ETA 2007AN



Lan-egoera	Lan egiten du	Langa-bezian	Jubilatuta	Ikaslea	Etxeko langilea
Arrikutsu samarra	%45,6	%53,4	%64,4	%30,2	%62,2
Denborapasa	%21,3	%17,2	%14,6	%46,0	%11,5
Poza ematen duena	%16,8	%20,7	%8,7	%15,9	%14,7

Lehenik eta behin, azterketa soziala behar bezala egiteko, ezinbestekoa da jakitea zerk bultzatzen dituen herritarrek ausazko jokoetan parte hartzea. Jendeak dirua irabazteko jokatzen duelako iritzia zabaldua dagoela hauteman dugu. Dena dela, gero eta jende gehiagok uste du denbora pasatzeko jokatzen duela jendeak. Inkestatuek emandako erantzunek agerian utzi dute, gero eta gutxiagok uste dutela jendeak bizioz jokatzen duela.

ZERGATIK JOKATZEN DU JENDEAK, 1990 ETA 2006AN



Euskal herritarrek jokoaren sektoreaz zer pentsatzen duten jakin ahal izateko, hari buruzko balorazioa jaso nahi izan ge-


nuen. Hortaz, inkestaturen %52,1ek arriskutsutzat hartzen du jokoak, ondorio larriak eragin ditzakeen zerbait bezala; eta soilik %19,5ek hartzen du jokoak, berriz, denbora-pasatzat. Ikasleak dira, batik bat, jokoak denbora-pasatzat hartzen dutenak; hain zuzen, %46 osatzen dute horiek.

2.3. Ohitura sozialak ausazko jokoekiko

Oro har, herritarrek adierazi dutenaren arabera, 1990. urtean jokatzeko zuten modu berean jokatzeko dute egun.

1990. urtean, biztanleriaren %30ek erantzun zuen ez zuela inoiz jokatu ausazko jokoetan. Egun, %35,44k esan du ez duela ezer jokatzeko. Halaber, inkestaturen %0,87k egunero jokatzeko du, eta 1990. urtean, berriz, %0,40k esan zuen asko jokatzeko zutela.

OROKORREAN AUSAZKO JOKOETAN JOKATZEN DUZU? (2007)



Horrez gain, hilean behin edo zenbait aldiz jokatzeko dutenak eta urtean behin edo zenbait aldiz jokatzeko dutenak, egun, parekatu egin daitezke 1990. urtean gutxi jokatzeko zutela esan zutenekin. Horrenbestez, biztanleriaren %38,61ek gutxi jokatzeko du, eta 1990. %67,60k esan zuen urtean gutxi jokatzeko zutela. Are gehiago, hilean edo urtean behin edo zenbait aldiz jokatzeko dutenak eta astean zenbait aldiz jokatzeko dutenak batuta —1990. urtean gutxi jokatzeko zutenekin parekatzeko—, gaur egun lehen baino gutxiago jokatzeko da; %63,66, eta 1990. urtean, berriz, %67,60.

Joko-sektorearen inguruko ohiturei dagokionez, 1990. urtean pertsonen %89,20k uste zuen lehen baino gehiago jokatzeko zela. Gaur egun, ordea, jende gutxiagok pentsatzen du hala


Erresuma Batuko joko-ohiturak

Gambling Commission-ek 2007ko irailan egindako inkestaren arabera, herritar britainiarren %68k jokatzeko du, 1999an, ordea %72. Gauzak horrela, Erresuma Batuan jokatzeko duten biztanleen portzentajea EAEkoa baino %4,4 altuagoa da. Erresuma Batuan gehien jokatzeko den jokoak loteria da. Europar Batasuneko herrialde gehienetan gertatzen da. Jokatzeko duten gizonen ehunekoak emakumeenak baino handiagoak dira joko guztietan, bingoan izan ezik.

eta inkestaturen %57,59k esan du lehen baino gehiago jokatzeko dela. Baina beherakada horrek badu zergatia, herritar askok uste baitu lehen adina jokatzeko dela egun.

Erantzunen arabera, herritarren iritzia eta jokoaren sektorearen azkenaldiko bilakaera ez datoz bat; izan ere, behera egin du benetako kopurutan (inflazioaren azpitik hazi da) eta jokoa aretoetako bisitari-kopuruak ere behera egin du.

JENDEAK ORAIN DELA URTE BATZUK BAINO GEHIAGO, GUTXIAGO ALA BERTIN JOKATZEN DU



Nabarmentzeko moduko datua: Gipuzkoan urtean behin edo zenbait aldiz jokatzeko duten herritarrek gehiago dira, inoiz jokatzeko ez duten herritarrek baino eta gehien jokatzeko den lurralde historikoa da. Beste bi lurralde historikoetan aurkakoa gertatzen da.

Lurraldea	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Inoiz ez	%35,7	%38,5	%30,3
Urtean behin edo zenbait aldiz	%33,6	%25,3	%37,2
Hilean behin edo zenbait aldiz	%9,3	%7,4	%9,7
Astean behin edo zenbait aldiz	%20,7	%28,1	%21,9
Egunero	%0,7	%0,7	%0,9

Nabarmentzeko modukoak dira sexuen arteko desberdintasunak; gizonen %71,7k jokatzeko du eta emakumeen %57,6k. Horrez gain, gizon gehiagok adierazi du astean behin baino gehiagotan jokatzeko duela, %34,2k.

Heziketa-mailari dagokionez, bitxia bada ere, unibertsitateko ikasleak dira gutxienean jokatzeko dutenak. Baina, dena dela, jokatzeko duten unibertsitatekoak dira egunero-egunero gehien jokatzeko dutenak, unibertsitatekoen %1,9.

Badirudi, egoera zibilak ere baduela eraginik; izan ere, ez-kondukta daudenak edo bikotekidea dutenak dira gehien joko-

tzen dutenak, kolektibo horren barruan sartzen diren jokalarien %68,2 daude ezkontuta edo dira bikote.

Sexua	Gizona	Emakumea
Inoiz ez	%28,3	%42,4
Urtean behin edo zenbait aldiz	%28,7	%31,6
Hilean behin edo zenbait aldiz	%8,8	%8,1
Astean behin edo zenbait aldiz	%33,0	%17,3
Egunero	%1,2	%0,6

Ikasketak	Ikasketarik gabe/Lehen mailakoak	Erdi mailako ikasketak	Unibertsitate-ikasketak
Inoiz ez	%34,8	%33,9	%36,7
Urtean behin edo zenbait aldiz	%28,9	%28,2	%37,6
Hilean behin edo zenbait aldiz	%5,9	%10,4	%9,5
Astean behin edo zenbait aldiz	%29,4	%27,2	%14,3
Egunero	%1,0	%0,3	%1,9

Egoera zibila	Ezkon-gabea	Ezkontuta/Bikotean	Alarguna
Inoiz ez	%40,2	%31,8	%46,2
Urtean behin edo zenbait aldiz	%24,6	%32,3	%28,2
Hilean behin edo zenbait aldiz	%11,5	%7,8	%6,4
Astean behin edo zenbait aldiz	%23,0	%27,2	%19,2
Egunero	%0,8	%0,9	%0,0

Badira zenbait urte jokorako eta apustuak egiteko web-orriak daudela euskaraz zein gaztelaniaz eta, ondorioz, herritarrek eskura izan dute jokia, baina baimenduta ez dagoen bide bat erabilita. Online jokorearen sektorea asko hazi bada ere, biztanle kopuru txikiak adierazi du urruneko jokoa aritu izan dela oso. Horrenbestez, 60.000 lagun inguruk adierazi du ordenagailua, agenda elektronikoa edo esku-telefonoa erabilita, Internet bidez edota interakziozko telebista bidez azken hilabetean jokatu edo apustua egin duela; hau da, biztanleriaren %2,7k.


Internet eskura duten herritarren artean, %3,4k erabiltzen ditu teknologia berriak jokorako edo apustuak egiteko. Herritarren %95,7k egiten ditu bakar-bakarrik modu tradizionalen apustuak. %1,9k egiten ditu apustuak teknologia berriak erabilita zein modu tradizionalen. %0,7 inguruk, hau da, 15.000 lagunek egiten ditu apustuak bakar-bakarrik Internet bidez.

Maiztasun handi samarrez apustuak egiten dituztenek kopuru txikiak jokatzen dituzte. Horiei dagokienez, %82,4k adierazi du hilean 40 euro baino gutxiago jokatzen duela. Halako kasuetan, badira jokolari-motaren araberrako aldeak; izan ere, noizean behin jokatzen dutela esan dutenek (%62,4k) 0 eta 5 euro bitartean gastatzen dute, eta askotan jokatzen dutenek (%35,7k) 6 eta 15 euro bitartean gastatzen dute eta askotan jokatzen duten lagunen %30,7k, bestalde, 16 eta 40 euro bitartean.

Jokalaria Mota	Ez du jokatzen	Noizbehinkako	Sarria
0-5 € bitartean	Ez	%62,4	%19,9
6-15 € bitartean	Ez	%13,9	%35,7
16-40 € bitartean	Ez	%3,0	%30,7
41-80 € bitartean	Ez	%1,7	%3,8
81-150 € bitartean	Ez	%2,0	%2,6
150 €-tik gora	Ez	%0,3	%1,8

%37,6k bakarrik jokatzen du. Beste norbaitekin batera jokatzen dutenen artean, gehiago dira senideekin jokatzen dutenak lagunekin jokatzen dutenak baino. Emakumezko gehiagok jokatzen du senideekin batera, %36,6k. Eta gizonezkoen %43,8k, berriz, bakarrik egiten dituzte apustuak. Bakarrik jokatzen duen gizonezkoaren profila alargun erretiratuarena da. Ezkongabeek eta ikasleek nahiago dute beste norbaitekin batera jokatu.

NORMALEAN BAKARRIK ALA LAGUNDUTA JOKATZEN DUZU



Sexua	Gizona	Emakumea
Bakarrik	%43,8	%30,1
Lagunekin	%23,9	%19,9
Senideekin	%19,0	%36,6
Lankideekin	%7,7	%6,5
Beste batzuekin	%2,6	%3,1

Lan-egoera	Lan egiten du	Langa-bezian	Jubilatuta	Ikaslea	Etxeko langilea
Bakarrik	%33,5	%36,6	%49,7	%17,2	%37,1
Lagunekin	%21,6	%34,1	%16,6	%58,6	%15,7
Senideekin	%25,4	%19,5	%25,5	%20,7	%42,7
Lankideekin	%11,7	%7,3	%2,8	%0,0	%0,0
Beste batzuekin	%4,5	%0,0	%0,7	%0,0	%2,2


Egoera zibila	Ezkongabea	Ezkonduta / Bikotean	Alarguna
Bakarrik	%33,6	%38,6	%43,9
Lagunekin	%37,0	%16,9	%26,8
Senideekin	%15,1	%31,3	%24,4
Lankideekin	%8,2	%7,3	%2,4
Beste batzuekin	%3,4	%2,3	%0,0

2.4. Ausazko jokoen bermeak


Jokoaren sektorearen inguruan eskaintzen diren bermeei buruz herritarrek zer iritzi duten jakin nahi izan dugunean, hauteman dugu iritziak okerrera egin duela 1990. urteaz geroztik. Urte hartan, herritarren %56k uste zuen tranpak egiten zirela, eta egun hala pentsatzen dutenen ehunekoak gora egin du, hain zuzen, %64,5 egiten dute. Halaber, jende gutxiagok uste du tranpak ez direla egiten, eta zer erantzun jakin ez du-

tenen kopuruak, berriz, gora egin du. Azken finean, sektorearen irudiak okerrera egin du azken urteotan.

AUSAZKO JOKOETAN TRIKIMAILU EDO TRAMPAK DAUDE?




Jokoaren sektorearekiko mesfidantza duen iritzikorrontea bada euskal herritarren artean. Dena dela, alde handiak daude joko-moten artean. Tranpak egiten direlako ustea duten pertsonen %33,60k uste du B motako makinaren inguruan egiten direla. Bestalde, tranpa gutxien kineletan



egiten direla uste dute herritarrek. Trikimailu edo tranpek dagokienez, oro har, kirol-emaitzen inguruko jokoek dute irudi hoberen.

TRIKIMAILUAK EDO TRANPAK DITUZTEN JOKOAK



Teknologia berriak eguneroko bizimoduan erabiltzeak izan du eraginik jokoaren sektorean ere. Nolanahi ere, herritarrek konfiantza handiagoa dute joko tradizionalen. Bitxia badirudi ere, biztanle guztien artean, 16 eta 24 urte bitarteko gazteak dira gehien uste dutenak modu tradizionala dela ziurrena, nahiz eta biztanleria-segmentu horrek izan eskuragarrien teknologia berriak. Biztanleria guztiaren %2,3k soilik uste du ziurragoa dela teknologia berrien bidez jokatzea, eta %10,8k uste du bata zein bestea direla ziurrak. Datu horiek erakusten dutenaren arabera, teknologia berriak erabiliko lituzkeen biztanleriaren ehunekoa, gutxi gorabehera, %13,1ekoa da, hau da, 279.000 lagun.


Adina	16-24 urte	25-44 urte	45-65 urte	65 urte baino gehiago
Ohi bezala	%75,3	%68,3	%63,6	%51,7
Biak	%9,7	%15,6	%9,0	%6,3
Teknologia berriak	%3,2	%1,9	%2,7	%1,4
Bat ere ez	%3,2	%1,1	%2,4	%2,9

2.5. Administrazioaren esku-hartzea

Egokia iruditu zitzaigun herritarrek Administrazioaren egitekoari buruz zer iritziz duten jakitea. Hain zuzen ere, zer iritziz duten Euskadiko Jokoen Katalogoan biltzen diren jokoak ikuskatzeko, kontrolatzeko eta kudeatzeko erantzukizunari dagokionez. Asmatu egin genuen galdera hori egiten, ohartu


baikara nabarmen aldatu dela iritziz publikoak. Egun, herritar gehienek iritziz, Administrazioak jokoak kontrolatu baino ez luke egin behar; dena dela, jende gehiagok uste du Administrazioak protagonismo handiagoa izan beharko lukeela, 1990. urteaz geroztik nabarmen hazi baita hala pentsatzen dutenen ehunekoa. Inkestatutakoen %38,5ek uste du Administrazioak soilik jokoak kontrolatu behar duela. Baina %16,4k uste du Administrazioak guztiak kudeatu eta antolatu beharko lituzkeela. Jokoak debekatu egin beharko litza-tekeela uste duen pertsonen ehunekoa %8,9 egin du behera, 1990. urtearekiko.

JOKOAREN AURREAN ADMINISTRAZIOAREN JARDUERA, 1990 ETA 2007AN



Are gehiago, inkestatutakoen %42,4k uste du joko guztiak baimenduta egon beharko luketela eta %8,2k soilik uste du kontrakoa. Batik bat gizonetakoak dira joko guztiak baimenduta egon behar luketelako iritzia aldetik. 16 eta 24 urte bitarteko gehienek, berriz, uste dute joko batzuk baimendu eta beste batzuk debekatu egin beharko lituzkeela Administrazioak. Batzuk baimenduta eta beste batzuk debekatuta egon beharko luketela adierazi duen pertsona-kopurua handia da, baina 1990. urtekoa baino txikiagoa.

JOKO MOTA GUZTIAK BAIMENTZEA / DEBEKATZEA



Sexua	Gizona	Emakumea
Denak baimenduta	%46,8	%38,2
Batzuk baimenduta, beste batzuk berriz debekatuta	%34,0	%40,0
Denak debekatuta	%9,6	%6,9

Adina	16-24 urte	25-44 urte	45-65 urte	65 urte baino gehiago
Denak baimenduta	%37,4	%45,7	%44,0	%36,2
Batzuk baimenduta, beste batzuk berriz debekatuta	%51,6	%41,3	%31,1	%32,9
Denak debekatuta	%6,6	%4,1	%10,2	%13,5

Lan-egoera	Lan egiten du	Langa-bezian	Jubilatuta	Ikaslea	Etxeko langilea
Denak baimenduta	%46,4	%41,4	%38,6	%41,3	%37,2
Batzuk baimenduta, beste batzuk berriz debekatuta	%36,8	%50,0	%30,5	%47,6	%37,8
Denak debekatuta	%5,5	%5,2	%15,0	%6,3	%9,6

Aurreko galderaren ildotik, interesgarria iruditu zaigu aztertea zein joko-modalitatek eragiten duten errezelo gehien biztanleen artean.

Debekatu egin beharko litzatekeela gehien aipatu duten jokoak B motako makina da eta, ondoren, oso alde txikiarekin, Internet/esku-telefono bidezko kasinoa eta Internet/esku-telefono bidezko apustuak. Inkestatutakoan %84k uste du B motako makina debekatu egin beharko litzatekeela; 1990. urtean egingandako inkestan, berriz, %91,7k adierazi zuen iritzi bera. Herritarren %69, halaber, urruneko modalitateko jokoak debekatzearen alde dago; besteak beste, kasinoa eta apustuak online. Bestalde, bingoarekiko irudiak hobera egin du nabarmen azken urteotan. 1990. urtean, herritarren %85,4ri egoki iruditzen zitzaaien horiek debekatzea; 2007an, berriz, %47,7ri.

Euskal herritarrek joko jakin batzuk debekatzearen alde daude, eta baliteke mendekotasuna eragin dezaketela pentsatzen dutelako izatea. Horren haritik jarraituz, inkestatuen %89,9k uste du B motako makinak mendekotasuna eragin dezaketela. Bingoari dagokionez, harekiko irudiak hobera egiteaz gain, jende gutxiagok uste du mendekotasuna eragin dezakeela. Halaber,

herritarrek apustu-etxeak ere mendekotasuna eragin dezaketelako jokozat hartzen dituzte.

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak duen egiteko oso garrantzitsuenetako bat nahitaez bete beharreko kontrol-neurriak ezarritzea da. Beraz, egun ezarrita dauden babes-neurriei buruz herritarrek duten iritzia zein den jakitea ezinbestekoa zen. Biztanleriaren %66,4k adierazi duenaren arabera, neurri horiek ez dira nahikoak. Herritar gazteenak dira ez-konformistenak; gazteen %77,2k uste du ezarrita dauden neurriak ez direla nahikoak. Adina, hain zuzen ere, faktore garrantzitsua dela dirudi. Izan ere, beste muturrean ditugu 65 urte baino gehiago dituztenak; horien %48,2k soilik uste du ezarrita dauden neurriak ez direla nahikoak.


Adina	16-24 urte	25-44 urte	45-65 urte	65 urte baino gehiago
No	%77,2	%72,5	%68,0	%48,6

Egoera zibila	Ezkongabea	Ezkontuta/Bikotean	Alarguna
No	%69,3	%68,3	%46,2

2.6. Publizitatea eta ausazko jokoak

Publizitateak jokorako ohituran eragiteko duen gaitasunari dagokionez, %81,2k uste du herritarrek dituzten ohituretan eragin dezakeela. Ez dago alde nabarmenik biztanleria-segmentu desberdinek gai horri buruz duten iritzien artean.


PUBLIZITATEAK JENDEARENGAN ERAGIN DEZAKE ETA GEHIAGO JOKARAZTEN?



Euskal herritarren %52k egokitzen hartzen du publizitatea mugatzea, adin txikiak eta mendekotasun-arazoak dituztenak

babesteko. %16 publizitate oro baimentzearen alde dago, eta %20 publizitate oro debekatzearen aldekoa da. Erretirodunak eta 65 urtetik gorakoak dira debekatzearen edo mugatzearen alde gehien daudenak. 16 eta 24 urte bitarteko gazteen %69,9k adierazi du mugatu egin beharko litzatekeela baina ez debekatu.

AUSAZKO JOKOEN PUBLIZITATEAREN ALDEKOA ZARA EDO DEBEKATU EDO MUGATU BEHAR DIRELA USTE DUZU?



Adina	16-24 urte	25-44 urte	45-65 urte	65 urte baino gehiago
Publizitate oro baimentzea	%17,4	%21,5	%15,3	%7,7
Publizitate oro debekatzea	%7,6	%12,3	%24,3	%30,4
Publizitatea mugatzea	%69,6	%60,2	%47,6	%40,1

Lan-egoera	Lan egiten du	Langa-bezian	Jubilatuta	Ikaslea	Etxeko langilea
Publizitate oro baimentzea	%19,7	%15,0	%11,9	%17,5	%9,7
Publizitate oro debekatzea	%14,2	%21,7	%32,0	%7,9	%23,2
Publizitatea mugatzea	%57,8	%55,0	%39,3	%66,7	%51,0

Elkarrizketatu ditugun pertsona guztien %9k soilik esan du jokalariei laguntzeko elkarteren baten berri duela.



3. Euskal Autonomia Erkidegoko araubidea

3.1. Sarrera

Euskadiko jokoaren arautzen duen araudiari buruzko benetako diagnosia egitea du xede esku artean duzun dokumentuak.

Hala, txosten honetan joko kontzeptuak esanahi hau du: argi eta garbi irabazizko helburua duen edo horretarako aukera ematen duen jarduera oro, diru-kopuruak edo balio ekonomikoak duten objektuak jokatzeko bide ematen duena, dela parte-hartzaileek nolabaiteko trebetasuna edo abilezia izatea eskatzen duena, dela, besterik gabe, zorizkoa, eskaintzakoa edo ausazkoa soilik, edota horien konbinazioa, eta gizakiak zuzenean, makina automatikoen bidez edota interakzioz egin dezakeena.

Horrenbestez, txosten honek Euskal Autonomia Erkidegoa hartzen du bere baitan, baina eskumenak Europako, Espainiako, erkidegoetako eta lurralde historikoetako erakundeen artean banatuta daudenez —legegintza-sistema konplexu baten barruan dago, alegia— eta, arrazoi sistematikoengatik, ondo bereizi ditugun hiru ataletan banatu dugu esku artean duzun diagnosia.

Lehendabizikoan, xehetasunez azalduko dugu Euskadiko jokoaren sektorea bere baitan hartzen duen eskumen-esparrua, helburua hau dela: zehaztea zein erakundek duen legeak egiteko eskumena eta zein mailatan, txosten honetan joko-kontzeptuaren barruan sartzen diren jardueri dagokienez.

Bigarrenean, Euskadiko jokoaren sektorea erregulatzeko indarrean dauden arau guztien —edozein dela hura ezarri duena— zerranda adieraziko dugu, eta arau horien eduki garrantzitsuenen xehetasunak azalduko ditugu. Hala, ikuspegi orokorra eskainiko dugu, Euskal Herriko jokoaren sektorea egun araututa dagoen moduari buruz.

Eta hirugarrenean, jokoaren alorreko zerga-ordainketa azalduko dugu. Ondoren, garrantzitsua eta berezia denez, jokoaren gaineko zerga erregulatzeko lurralde historikoek dituzten arauen azterketa xehea erantsi dugu.

3.2. Eskumenak

Sarreran adierazi dugunez, Euskal Autonomia Erkidegoko arau-sistemaren bereizgarri da eskumenen banaketa konplexua; izan ere, arauak emateko eskumena gaiaren arabera da. Horrela, zenbaitetan, Europar Batasunak (EB), Espainiako estatuak, autonomia-erkidegoak, edo lurralde historikoak du eskumen eskusiboa. Beste batzuetan, berriz, legeak emateko eskumena banatuta dago aipatutako zenbait erakunderen artean.

Horren haritik, Europar Batasuneko politikari dagokienez, osasun publikoari eta kontsumitzaile babesteari buruzko politiken barruan kokatuta dago jokoaren sektorea. Hain zuzen ere, Europako Erkidegoa Eratzeko Itunaren (EEI) 152. eta 153. artikuluek —osasun publikoari buruzkoa eta kontsumitzaileen babesari buruzkoa, hurrenez hurren— arautzen dituzte gai horiek, estatu kideekin bat etorrita, EBren eskumenei dagokienez.

EEIren 5^[1]. artikuluan ezarritakoari jarraiki, EBren eskumen eskusibokoak ez diren gaietan —aztertzen ari garen gaia, kasu—, “subsidiarotasun-printzipioa” izango da aplikatzea. Horrenbestez, printzipio horren arabera, Erkidegoak parte hatuko du baldin eta estatu kideek Itunaren helburuak ondo bete ezin badituzte. Beraz, jokoaren alorrean legeak egiteko eskumen nagusia estatu bakoitzeko erakundeek dute; nolana ere, estatu etako arau horiek ezin dituzte inola ere EEIn ezarrita dauden politikak eta helburuak urratu; halakorik gertatuz gero, Erkidegoko erakundeek arau-haustearen aurkako neurriak har ditzakete. Hori dela egiazta- tzeke bada adibide bat. Europako Batzordeak jokoaren alorreko arauak aldatzeko eskatu zien Frantziako eta Greziako estatuei, EBn zerbitzuak aske emateko eskubidea urratzen zutela iritzi baitzuen Batzordeak.

Testuingurua halakoa izanik, ezinbestekoa da bereiztea jokoaren inguruko arauetako erakundeek dituzten eskumenak —legearen arloan, soilik— eta jokoaren sektoreari aplikatzekoak diren zerga-arauak.

^[1] EBren 5. artikulua: “Estatu kideek, nahiz beren gobernu zentralaren bidez, nahiz eskualde- zein toki-erakunde bidez, xede-ekintzen helburuak ondo lortu ezin dituztenean, eta, xede-ekintzen maila edo ondorioak direla-eta, helburuak Batasunaren bidez hobeto lortzeko modukoak direnean, orduantxe bakarrik, eta hein horretan, subsidiarotasun-printzipioaren indarrez hartuko du parte Batasunak bere eskumen eskusibokoak ez diren eremuetan. Batasunaren ekintza batek ez du Itunaren helburuak betetzeko beharrezkoa denaz haratago joango.”

1. Jokoaren alorrean arauak emateko eskumenak

Espainiako Konstituzioaren (EK) 148. artikulua autonomia-erkidegoek beren gain har ditzaketen gaien zerrenda ezartzen du, eta horien artean ez dago jokoaren sektorea. Hala ere, EKren 149. artikuluan, Estatuak eskumen eskusiboa duen gaien zerrenda zabala adierazten bada ere, bukaeran klausula batek ezartzen du EK-k berariaz Estatuari esleitzen ez dizkion gaiak autonomia-erkidegoek beren gain har ditzaketela, bakoitzaren autonomia-estatutuaren arabera ^[2].

EKren 149.3 artikulua ezarritakoaren babespean, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak —3/1979 Lege Organikoak, abenduaren 18koak onartua—, haren 10.35 artikulua bidez, bere gain hartu zuen kasinoen, jokoaren eta apustuen alorreko eskumen eskusiboa, Ongintzako Elkarrekiko Kirol Apustuak ^[3] izan ezik. Hau da, funtzio guztiak hartu zituen bere gain, legegintza arlokoak zein betearaztekoak.

Autonomia Estatutua abiapuntu izanik, eta abenduaren 15eko 3257/1982 Errege Dekretuaren bidez, Presidentzia Ministerioak Batzorde Mistoaren akordioa onartu zuen —osoko bilkurak onartua 1982ko urriaren 14an—. Akordio horren arabera, bertan ezarritako kasino, joko eta apustuen alorreko zerbitzu, giza bitarteko eta mailegu pertsonal guztiak Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatu ziren. Harrezkero, euskal erakundeek (Eusko Legebiltzarra, Herrizaingo Saila, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza...) jokoaren inguruko hainbat arau onartu dituzte.

2. Jokoaren sektorerako zerga-arauak emateko eskumena

Zerga-alorrean, desberdinak dira arauak emateko eskumenak eta jokoaren inguruko arauak (eduki-arauak) emateko eskumenak. Izan ere, Espainiako Konstituzioaren 149.14 artikuluan ezarritakoaren arabera, Estatuaren eskumen eskusiboko gaiak dira Ogasun Orokorra eta Estatuaren Zorra. Dena dela, Espainiako Konstituzioaren bera- ren Lehen Xedapen Gehigarriak ezartzen duenaren arabera, Konstituzioak babestu eta errespetatu egiten ditu foru-lurraldeen eskubide historikoak (Nafarroa eta EAEko lurralde historikoak); foru-arabide eguneratze orokorra, hala badagokio, Konstituzioaren eta autonomia-estatutuen esparruan egingo dela ere ezartzen du.

Arestian esandakoari jarraiki, Espainian jokoaren alorreko zerga-eskumenak hiru araubide hauen artean banatuta daude:

1) Nafarroako Foru Komunitatea: Ekonomia Hitzarmena

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 45. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Nafarroako Foru Lurraldean Ekonomia Hitzarmenaren sistema tradizionalak erregulatuko du zerga- eta finantza-jarduerak.

2) Euskal Autonomia Erkidegoa: Ekonomi Ituna

Nafarroako Foru Komunitatearen antzera, Euskal Autonomia Erkidegoan, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa dugu, Euskal Autonomia Erkidegorako Autonomia Estatutua onartzekoa. Hona hemen Autonomia Estatutuaren 40. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoa: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoak, berari dagozkion eginbehar eta finantza-jarduerak egoki betetzeko, bere ogasun-sail autonomoa izango du; eta bestetik, zergen inguruan, Espainiaren eta Euskal Herriaren arteko harremanak, antzinako erara, Ekonomia Itunaren foru-sistemaren bidez erregulatuko dira. Hari beretik jarraituz, maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegorako Ekonomia Ituna onestekoak, ezarritakoaren arabera, jokoaren gaineko zergak itundutako zergak dira eta araudi autonomoa aplikatu behar zaie, zenbait muga kontuan hartuta. Muga horiek zergak osatzen duten elementu jakin batzuei buruzkoak dira, 35. eta 37. artikuluetan adierazitakoaren arabera. Hona hemen, laburbilduta, horietan ezarritakoa:

- Jokoaren gaineko zergak itundutako zergak dira, baimena Euskadin eman behar zaien kasuetan.
- Estatuak unean-unean ezarritako duen arautegia beteko da, zerga-egitateari eta subjektu pasiboari dagokionez.
- Lurraldearen arabera eskumena duen foru-aldundiak ordainaraziko du zori, enbido eta ausazko jokoaren gaineko tasa, zerga-egitatea Euskadin egiten denean.
- Lurraldearen arabera eskumena duen foru-aldundiak ordainaraziko du zozketa, tonbola, apustu eta ausazko konbinazioen gaineko zerga-tasa, baimena Euskadin eman behar den kasuetan.

^[2] Konstituzioaren 149.3 artikulua: “Konstituzioak Estatuari berariaz egotzi ez dizkion gaiak autonomia-erkidegoenak izan daitezke, bakoitzaren estatutuan jasotakoaren indarrez.”

^[3] EAEko Autonomia Estatutuaren 10. artikulua: “Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak bakarreko eskumena du honako gai hauetan: (...) 35. Kasino, joko eta apustuak, Ongintzako Elkarrekiko Kirol Apustuak deritzenak izan ezik.”

3) Gainerako autonomia-erkidegoak: Zerga Lagapena

Erregimen Komuneko Autonomia Erkidegoei dagokienez, abenduaren 27ko 21/2001 Legea dugu, Erregimen Komuneko Komunitate Autonomoen Autonomia Estatutua duten herriak finantzatzeko sistema berriaren neurri fiskalak eta administratiboak erregulatzen dituena ^[4].

Horren inguruan, 26. artikulua jokoaren gaineko zergen lagapena zenbatekoa den ezartzen du; hona hemen bertan jasotakoaren laburpena:

- Autonomia-erkidegoen esku uzten da nork bere lurraldean sortutako zergak biltzea.
- Zori, enbido edo ausazko jokoen gaineko estatu-zerbaren etekina lurraldean sortutakotzat hartuko da, baldin eta zerga-egitatea lurralde horretan egin bada.
- Zozketa, tonbola, apustu eta ausazko konbinazioaren estatu-zerbaren etekina lurraldean sortutakotzat hartuko da, baldin eta erkidego horretako administrazioak halakoak egiteko baimena eman badu edo baimena emateko eskumena badu, halakoak antolatze edo ospatzeko baimena eskatu ez den kasuetan.

Azkenik, 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, jokoaren gaineko zergei dagokienez, autonomia-erkidegoek beren gain har dezakete gai hauen inguruan arauak egiteko eskumena:

- Salbuespenak.
- Hobariak.
- Zerga-oinarria.
- Sortzapena.
- Karga-tasa eta kuota finkoa.
- Kudeaketa, likidazioa, diru-bilketa eta ikuskaritza.

Horrenbestez, azaldutako araudi multzoaren bidez egituratuta dago eskumen-banaketa; dena dela, jokoaren arloan (kontuan hartu gabe zerga-alorra), Euskal Autonomia Erkidegoak du, egun, kasinoen, jokoen eta apustuen inguruko eskumen esklusiboa eta, hortaz, ahalmen esklusiboa du jokoaren alorreko legegintza eta horiek betearazteko funtzioak betetzeko. Horren guztiaren ondorioz, beraz, egokitzen hartzen dituzten arau juridikoak onar ditzake, eta nahi adina. Nolanahi ere, euskal erakundeek onartzen dituzten arauak EEIn ezarritako erkidegoko politikak eta helburuak errespetatu egin behar di-

tuzte une oro, eta, bereziki, euskal araudiak ezinbestez errespetatu behar du EBn zerbitzuak aske ematea. Jakina, eskubide hori muga dezake ordena publikoa, segurtasun edo osasun publikoa arriskuan jartzen badira; izan ere, hala egiten ez bada, Europako erakundeek beharrezkotzat hartzen dituzten neurriak ezarri ahal izango dituzte, Tratatuaren helburuak lortze aldera eta, gure kasuan, erkidegoko lurraldean zerbitzuak aske ematea.

Aurreko paragrafoetan adierazitakoa kontuan hartuta, desberdinak dira zergen alorreko arauak emateko eskumenak eta jokoari buruzko arauak (eduki-arauak) emateko eskumenak. Hain zuzen ere, lurralde historikoetako erakunde eskudunei dagokie (batzar nagusiei eta foru-aldundiei) Euskadin zerga-alorreko arauak (jokoaren alorrekoak) egiteko eskumena, beti ere Ekonomi Itunaren Legean ezarritako mugak kontuan hartzen direla.

3.3. Arauak

3.3.1. Sarrera

Kasinoen, jokoen eta apustuen inguruan Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen esklusiboa duenez —aurreko atalean xehetasunez azaldu dugu—, autonomia-erkidegoko erakundeek xehetasunez arautu dituzte jokoaren sektorea osatzen duten esparruak eta jarduerak. Horrenbestez, atal honetan, xehetasunez aztertuko ditugu Euskadiko joko arautzen duten arau-multzoa osatzen duten arau juridiko guztiak, eta horietako bakoitzak duen xedearen arabera sailkatuko ditugu; hau da, arautzen duten jardueraren arabera.

Halaber, aurreko paragrafoan azaldu dugun azterketa egiteko eta txosten honek sektoreari buruz egin nahi duen diagnosis osatzeko, aipamen laburra egingo dugu jokoaren sektorean edo hura osatzen duten negozio horietako bakoitzean egun arautu gabe dauden alderdi, eremu edo jardueren inguruan.

3.3.2. Indarrean dauden arauak

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan joko arauak erregulatze arau asko daudenez indarrean, jarraian azalduko dugun moduan antolatuko dugu atala.

Lehenik eta behin, sektorea orokorrean erregulatzen duten arauak aztertuko ditugu; arau horien bidez, sektoreko espa-

^[4] “17. artikulua. Zerga lagapena.

1. Titulu honetan ezarritako zenbatekoa eta baldintzak kontuan harturik, autonomia-erkidegoen esku uzten da, kasuen arabera, nork bere lurraldean sortutako zerga hauen errendimendu osoa edo zati batean: (...) e) Jokoaren gaineko zerga.”

rru guztietan aplikatzekoak diren oinarriko printzipioak eta jarraibide orokorrak ezartzen dira. Aurrerago ikusiko dugunez, araudi orokorraren oinarria funtsezko bi zutabe hauek osatzen dute: (i) 4/1991 Legea, ekainaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoan jokia arautzen duena (aurrerantzean, Jokoaren Euskal Legea); eta (ii) 277/1996 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jokoen Katalogoa onartzen duena.

Bigarrenik, gure autonomia-erkidegoan jokoaren sektorea osatzen duten negozio bakoitzerako propio ezarritako arauak aztertuko ditugu. Horrenbestez, Katalogoan joko-mota asko onartzen direnez, eta bertan egiten den sailkapena kontuan hartuta, bost negozio hauetan multzokatuko ditugu arauak:

- a. Jokorako makinak.
- b. Bingoa.



- c. Kasinoak.
- d. Apustuak.
- e. Zozketak.

Sektore horietako bakoitza erregulatzen duten arau multzoetatik, txosten hau egiteko garrantzitsuak iruditu zaizkigun elementuak aztertuko ditugu. Hau da, negozio horietako bakoitza erregulatzen duten arauen eta, hortaz, jokoaren sektore osoaren irudi orokorra, osoa eta fidela lortzen lagunduko ditugun elementuak. Horren haritik, hauek dira negozio horietako bakoitzean xehetasunez aztertuko ditugun elementu orokorrak:

Ezarpen-eremua.

- Fidantzak.
- Baimen-araubidea.
- Publizitate-araubidea.
- Baimena duten aretoak.
- Zehapen-araubidea.
- Sarien eta apustuen inguruko mugak, halakorik balego.

3.3.3. Arau orokorrak

Arau orokorrak

Egun, bi xedapenek ezartzen dituzte, batik bat, Euskal Autonomia Erkidegoan jokia erregulatzen duten ildo nagusiak. Horiez gain, badira xedapen horien garapena edo gai zehatzak erregulatzen dituzten beste arau batzuk ere.

- a. 4/1991 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoan jokia arautzen duena (aurrerantzean, Jokoaren Euskal Legea).
- b. 277/1996 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jokoen Katalogoa onartzekoa.
- c. Bestelako arau orokorrak.

Jarraian, aipatu ditugun arau orokor horien oinarriko edukia azalduko dugu.

JOKOAREN EUSKAL LEGEAREN LABURPEN-TAULAK

Eremu materiala	Jokoak	Baimena	Debekuak
a. EAEko katalogoan dauden jokoak	1. Joko-makinak	Emakida arautua.	Sektore ahulenei debekatzen zaie
b. Ustiatzen jarduten duten enpresak	2. Bingoa	Iraupen mugatukoa.	jokatzea:
c. Ustiatzeko lokalak	3. Kasino-jokoak	Arautzen duen	adingabekoak,
d. Jardueretan parte hartzen duten pertsonak	4. Apustuak	Erregelamenduan	ezinduak,
	5. Joko-txartelak eta loteriak	ezarritako negozio bakoitzerako	debekatuen
	6. Zozketa, tonbola, eta ausazko konbinazioak	prozedura.	zerrendan daudenak, etab.
	3.4. artikulua: Debekatuta daude EAEko katalogoan ez dauden jokoak, edo baimenik gabe edo baimendutako lokalen kanpoan garatzen direnak. (Hortaz, online jokoak debekatuta daude, Apustuen Erregelamenduak zehaztasunez aitortzen ez badu.)		

Lokalak	Publizitatea	Homologazioa
1. Joko- eta jolas-aretoak.	Gobernu Kontseiluak lokalen kanpoaldeko publizitate-irizpideak arautuko ditu.	Joko eta ikuskizun Zuzendaritzak joko materialak, osagarriak eta tresnak zehaztuko, homologatuko eta ikertuko ditu
2. Bingo-aretoak.		
3. Joko-kasinoak		
4. Apustuen helburuko jarduera garatzeko esparruak.	Lokalen barruko publizitate-irizpideak arau bidez zehaztuko dira.	
5. Ostalaritzako establezimenduak.		
Beraz, ez dira sartzen euskarri informatikoak edo interaktiboak, Apustuen Erregelamenduak ezarritakoaren arabera	(Egia esan, biak arau bidez zehazten dira)	

Jokoaren Erregistroa	Zehapen-araubidea	
	Arau-haustek	Zigorrak
8.1. art. Jokoaren Erregistro Nagusia sortzea aurreikusten da. Horretan, izena eman beharko dute sektorea ustiatzen jarduten duten pertsona fisiko edo juridikoek, baita fabrikatzaileek, baimendutako lokalek, joko makinek, etab. ere.	Oso larriak	60.101,21 € - 601.012,10 €
	Larriak	60.101,21 € - 601.012,10 €
	Arinak	60,10 € - 6.010,12 €
Erregistroan izena ematea sine qua non baldintza izango da jarduerak Euskadin garatzeko	Osagarritzko zehapenak	
	(i) Baimenak etetea edo ezeztatzea (ii) Establezimenduak ixtea (iii) Jarduera ezgaitzea aldi baterako edo betiko. (iv) Elementuak konfiskatzea, suntsitzea, baliogabetzea.	
Arau bidez ezarriko dira Erregistro sekzio bakoitzean egon beharreko datuak.	Jardunbidea	
	Administrazio prozedura orokorra, epeen alorrean berezitasunak dituen (siltasun negatiboa)	Zehatzeko organoa: (i) Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza (ii) Herrizaingo Sailburuordetza (iii) Herrizaingo Saila

EAE-KO KATALOGOEN LABURPEN-TAULAK

Eremua	Xedea	
	Tipologia	Debekatuta
<p>Pertsona fisikoak edo juridikoak, bai publikoak edo pribatuak, antolatze eta kudeatzearen esparruan garatutako joko-modalitateak, jarduera horregatik dirua irabazteko asmoz.</p> <p>Jarduera horiek bazterrean geratuko dira baldin eta apustuen zenbatekoen batuketa hileko lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoa bada edo ohikotasunik ez badute.</p>	<p>Joko-makinak: A, B eta C makinak</p> <p>Bingo jokoak.</p> <p>Kasino-jokoak: Azpimarratzekoa da poker-jokoaren azken modalitateak ez egotea.</p> <p>Apustuak.</p> <p>Loteriak.</p> <p>Joko-txartelak.</p> <p>Zozketak.</p> <p>Tonbolak.</p> <p>Ausazko konbinazioak.</p>	<p>3. artikulua: EAEko Katalogoan sartu ez diren edo erregulatutako joko guztiak bereziki debekatuta daude.</p>

BESTELAKO ARAU OROKORRAK

Jokoaren Euskal Kontseilua	Jokoaren Euskal Kontseilua eta Jokoaren Erregistro Nagusia sortu dira.		
	Kontseiluaren ahalmenak eta eginkizunak		
	Kontsultarako	Informazioa	Plangintza
	<p>Xedapen berriei buruzko txostena</p> <p>Zehapen-espedienteen txostena</p> <p>Baimenak, homologazioak eta abar emateko edo ezeztatze txostena.</p>	<p>Sektorea garatzeari buruzko urteko txostena</p>	<p>Sektorea planifikatzeko estatutuak, irizpenak eta proposamenak</p>
Herrizaingo Saileko aginduak	Joko-prozeduraren izapidetze telematikoa arautzen du, baita baimentzeko, berritzeko prozedurak, bajak, zehapenak etab. ere.		
Ebazpena, urtarrilaren 23koa, Joko Zuzendaritzarena	Joko-prozeduraren izapidetze telematikoa arautzen du, baita baimentzeko, berritzeko prozedurak, bajak, zehapenak etab. ere.		

3.3.4. Jokorako makinei buruzko arauak

Jokorako makinei buruzko araubidea bi lege-xedapenen bidez egituratuta dago. Horiek, gerora, aldatu egin ziren, zuzendu edo gai jakinetarako garatu.

- a. 308/1996 Dekretua, abenduaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoko joko-makinen, makina osagarrien eta jokorako bestelako instalazio eta sistemen araudia onartzen duena (aurrerantzean, Makinen Araudia). Jokorako Makinen Araudia da joko-makinen negozioak bere baitan hartzen dituen arauak garatzeko lege-

xedapena, makina horiek jolaserako, ausazkoak zein bestelakoak direla. Halaber, beste mota bateko negozioetarako (apustuak, loteriak eta zozketak) erabiltzen diren makina osagarriak ere arautzen ditu aipatu araudiak, bai eta jokorako instalazio-sistemak ere.

Arauk bere baitan gai asko hartzen dituen eta negozioa erregulatzen duen araudia ahalik eta argien azaltzeko, lehendabizi elementu horietako bakoitzaren alderdi berezi guztiak aztertuko ditugu, eta, segidan, horien guztien alderdi komunak azalduko ditugu.

b. **380/1994 Dekretua, urriaren 4koa, joko-aretoen eta jolas-aretoen araudia onartzen duena (aurrerantzean, Joko-aretoen Araudia).**

Joko- eta jolas-aretoak dira, zalantzarik gabe, jokorako makinak ustiatzen diren lokalaren adibide garbiena. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak 1994. urtean onartu zuen lokal horiek erregulatzeko oinarritzko irizpideak ezarri zituen araudia, titularrak profesionalagoak izateko eta lokalen segurtasuna bermatzeko.

3.3.5. Jokorako makinei buruzko arauak

Makina mota	Eremu materiala	Prezioaren mugak, saria, iraupena edo itzulketa	Baimendutako / debekatutako lokalak	Interkonexioa
“A” MOTAKO MAKINAK	Jolas-makinak edo denbora-pasa hutsekoak, prezio baten trukean, erabiltzeko denbora edo aurretik garatutako jokoak eskaintzen dutenak.	Ez dagokio	Jolas-aretoak, bingo-aretoak eta kasinoak. Kanpin, jolas-parke eta azoka barrutietan gaitutako lokalak: Gehienez 5 makina. Ostalaritza jarduera bakarra edo osagarria duten lokal publikoak: Gehienez 2 makina.	Ez dagokio
“B” MOTAKO MAKINAK	Araudian finkatutako mugak dituzten jolas-makinak prezio baten trukean erabiltzeko denbora edo, inoiz, dirutan ordaindutako saria ematen dituztenak	Preziorik partida bakoitzeko: 0,20 € Gehieneko saria: 600 aldiz partidaren prezioa // 1200 aldiz joko-aretoetako prezioa. Gutxienezko iraupena: 5 segundo, hala ere 10 minututik behin ezin da 120 partida baino gehiago jokatu. Itzulketa: Apustuen balioaren %75, gehienez ere 20.000 partidetan.	Joko-aretoak: 12 eta 50 makinaren bitartekoa. Bingo-aretoetan gaitutako lokalak eta bulegoak: 12 eta 50 makinaren bitartekoa. Ostalaritzako lokalak eta instalazioak, dantza-aretoak eta dantza-lekuak: Makina 1. Debekeatutako lokalak: (i) Lokalak garraio publikoaren geltokietan, aireportuetan merkataritza- edo ikuskizun- edo jolas-zentroetan (beti ere, lokala ez badago toki itxian eta isolatuan). (ii) Terrazak edo herri bideko eremuak. (iii) Adingabekoentzako lokalak.	Joko-aretoetan soilik

Makina mota	Eremu materiala	Prezioaren mugak, saria, iraupena edo itzulketa	Baimendutako / debekatutako lokalak	Interkonezioa
“C” MOTAKO MAKINAK	Araudian finkatutako mugak dituzten jolas-makinak prezio baten trukean erabiltzeko denbora edo, inoiz, zoriaren menpe dagoen dirutan ordaindutako saria ematen dituztenak.	Partidaren prezioa 6,00 €koa da Gehieneko saria: 3.000 aldiz partidaren prezioa. Gutxieneko iraupena: 2,5 segundo. Itzulketa: Ez da inoiz izango apustuen %80 balioa baino gutxiago	Joko-kasinoak. (i) Areto berezian 50 laguneko edukiera bakoitzeko 15 makina gehienez. (ii) Areto nagusian joko-mahai bakoitzeko 2 makina. Baimendutako ontziak.	Lokal bateko edo batzuetako C makinak Sari berezia, interkonektatutako 15 makina gehieneko muga izanik Aldez aurreko baimena.
MAKINA LAGUNTZAI- LEAK	Joko-txartelen eta loterien makinak. Ausazko konbinazioen makinak. Apustu-makinak.	Joko bakoitzaren mugak. (Araudi berezia)	Bereziki jokorako baimendutako lokala. Ostalaritzako lokalak: Txartelen makinak soilik: Makina 1. Garraio publikoaren geltokiak, aireportuak edo merkataritza-zentroak (lokala itxita eta isolatuta badago).	Ez dagokio.

	Fabrikazio, inportazio eta merkaturatzeko baimena	Enpresa eragileak baimentzea	Ustiatzeko baimena	Instalatzeko baimena
Eskakizun subjektiboak	Jokoaren Erregistro Nagusian inskribaturik: (i) EBko herrialde baten naziotasuneko pertsona fisiko edo juridikoak. Inskribatutako kontzeptu edo jarduerarako bakarrik baimenduta.	Pertsona juridikoak: (i) Bidezkoa den sozietate-mota. (ii) Jokoaren Erregistro Nagusian inskribaturik. (iii) Euskal Autonomia Erkidegoko helbidea, administrazioarekiko harremanetarako. (iv) Helburu soziala: Jokoaren jarduerak garatzea. Pertsona fisikoak: Parte hartzearen muga 5 pertsona juridikotan dago (i) Jokoaren Erregistro Nagusian inskribatuta. (ii) Euskal Autonomia Erkidegoko helbidea, administrazioarekiko harremanetarako. Kasinoak edo bingo-aretoak ustiatzen dituzten enpresak.	Jokoaren Erregistro Nagusian inskribatutako makinekin jarduten duten enpresak. Enpresa bakoitzeko ustiatzeko 1000 baimenen muga.	Makina instalatuko duen lokalaren edo establezimendua ren titularra.

Jokoaren sektorea Euskal Autonomia Erkidegoan

	Fabrikazio, inportazio eta merkaturatzeko baimena	Enpresa eragileak baimentzea	Ustiatzeko baimena	Instalatzeko baimena
Iraunaldia	Automatikoki 5 urte pasatu eta gero berriro daitekeena, betekizun guztiak betetzen badira.	Automatikoki 5 urte pasatu eta gero berriro daitekeena, betekizun guztiak betetzen badira.	Automatikoki 2 urtetarako berriro daitekeena inskripzioa betetzen badu	Ustiatzaileak eta lokalaren titularrak finkatuta: Gubxienez 3 eta gehienez 6 urte.
Jardunbidea	Joko Zuzendaritzaren baimen-eskabidearekin batera agiriak aurkeztuko ditu. Baimen arautua eskakizunak betetzen badira.	Joko Zuzendaritzari eskatzea, kaudimen tekniko, material eta finantzarioa egiaztatzen duten agiri eta ziurtagiriek lagunduta. Baimen arautua finkatutako eskakizunak betetzen badira.	Ez dagokio	Alderdiek sinatuta eta Joko Zuzendaritzak izapidetuta.
Fidantza	Ez dagokio	A mota: 3.005,06 € B mota: 30.050,61 € C mota: 60.121,21 € Laguntzaileak: 12.020,24 €	B mota: (i) 1etik 25era: 30.050,61 € (ii) 26tik 100era: 60.101,21 € (iii) 101etik 250era: 150.253 € (iv) 251etik 500era: 240.404,84 € (v) 501etik 1.000era: 360.607,26 € C mota: (i) 1etik 50era: 60.101,21 € (ii) 51etik 100era: 120.202,42 € (iii) 100dik gora: 240.404,84 €	Ez dagokio

Homologazioa	Publizitatea	Zehatzeko araubidea
Joko makinak fabrikatzeko, inportatzeko, merkaturatzeko, instalatzeko edo ustiatzeko, beharrezkoa da makina-eredua Jokoaren Erregistro Nagusian aurretik homologatua izatea eta inskribaturik egotea. Erregelamenduak ereduak homologatzeko balioetsitako irizpide zehatzak ezartzen ditu, batez ere joko makinaren eskakizun teknikoak eta funtzionamendu arauak izaten dira.	Debekatuta dago makinaren bidezko jokoaren publizitatea, sektorearen publikazio bereziak izan ezik.	Jokoaren Euskal Legean ezarritakoari egokitu zaio eta lege-hausteek sailkapen bera eta zehapenek kopuru bera dute.

3.3.6. Joko-aretoei buruzko arauak

Eremu materiala	Baimentzeko erregimena	Fidantza	Zehapen-araubidea
Joko-aretoak:	Eskakizun subjektiboak	Jolas-aretoen enpresa titularra:	Jokoaren Euskal Legean ezarritakoari guztiz egokitu zaio eta lege-hausteez sailkapen bera eta zehapenek kopuru bera dute.
Bereziki, joko-makinak ustiatzera zuzendutakoak, C motakoak izan ezik.	Zuzenbidean bidezkoa den sozietate-motan osatutako pertsona fisikoak edo juridikoak.	6.010,12 €	
Jolas-aretoak:	Jokoaren Erregistro Nagusian inskribatuta.	Joko-aretoen enpresa titularra:	
A motako makinak ustiatzera zuzendutakoak soilik.	Mugarik gabe naziotasun arrazoiengatik.	30.050,61 €	
	Jardunbidea	Jolas-aretoaren banako baimen bakoitzeko:	
	Idatzizko eskabidea, Proiektuaren kaudimen tekniko, material eta finantzarioa egiaztatzen duten agiriek lagunduta.	12.020,24 €	
	Proiektua bideragarria bada, proiektuaren errealitatearen egiaztagiria.	Joko-aretoaren banako baimen bakoitzeko:	
	Baimen arautua eskakizunak betetzen badira.	30.050,61 €	
	Indarraldia		
	Automatikoki hiru urtetan behin berrituko da, berritzerakoan indarreko eskakizunak betetzen badira.		

3.3.7. Bingo-jokoari buruzko arauak

Euskadin bingoaren alorreko funtsezko lege-xedapena hau da:

- 31/2004 Dekretua, otsailaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko bingo-jokorako araudia onesten duena. (Aurrerantzean, Bingoaren Araudia).

Hierarkiari dagokionez, Jokoaren Euskal Legearen mende, Bingoaren Araudia da Euskadin bingo-jokoari aplikatu beharreko arauak ezartzen dituen lege-xedapena; xehetasunez erregulatzen ditu operadoreentzako baimen-araubidea zein joko bakoitzaren funtzionamenduari buruzko arauak berak.

3.3.8. Bingoari buruzko arauak

Eremu materiala	Baimentzeko erregimena	Baimendutako lokalak
Erregelamenduak berariaz aurreikusitako modalitateak. Ohiko bingoa Bingo pilatua Interkonektatutako bingo pilatua eta "Sari berezia" Bingo eratorria	Motak	Horretarako baimena duten bingo-jokoan lokaletako jolas-aretoak. Euskarri informatikoa, telematikoa, satellite bidez, etab. Onlineko bingo-jokoa baimentzen omen duen aurreikuspena da, hala ere Araudiaren gainerako aurreikuspenek bakarrik aurreikusten dute bingo-jokoa lokal fisikoetan ustiatzeko aukera, Herrizaingo sailburuaren balizko Aginduari (argitaratu ez dena) lotzen baitzaio, euskarri hori arautzeari dagokionez. Lokalen gehieneko edukiera: (i) Gehieneko edukiera Euskal Autonomia Erkidegoko bingo-areto guztien agregatua: 10.000 leku. (ii) 1. kategoriako lokalen edukiera: 301 eta 600 artean (iii) 2. kategoriako lokalen edukiera: 150 eta 300 artean
	Enpresa titularraren baimena.	
	Joko-lokalaren baimena.	
	Onuradunak	
	Pertsona fisikoak. Ezin dira izan 3 areto baino gehiagoko titularrak, ezta 3 enpresa titular baino gehiagoko partaidetza izan. Pertsona juridikoak: (i) Zuzenbidean onartu den sozietate-mota (ii) Kapital soziala: 1. kategoria – 48.000,00 €. 2. kategoria – 90.000,00 €. Ezin dira izan 3 areto baino gehiagoko titularrak. Beraz, naziotasunaren arabera, mugarik gabe.	
	Jardunbidea	
	Eskarien administrazio-prozedura orokorra, 30/1992 Legearen 70. artikuluan ezarrita. Baimen arautua eskakizun guztiak betetzen badira	
Fidantza	Sarien muga	Debekuak eta murrizketak
Ohiko bingoa, pilatua edo eratorria: 18.000,00 €	Partida bakoitzean saldutako txartelen inprimatutako balioaren %62.	Sektore ahulenak: adingabeak eta ezinduak, bereziki.
Interkonektatutako bingo metatua: 10.000,00 €	Lerrorako %9 – bingorako %53. Bingo pilatua: 25.000 €.	"Debekatuen zerrenda" sortzen da, lokaletan sarterik ez dutenak. Ofizio sartutakoaz gain, borondatez eskatzen dutenak ere daude.
Gainera, joko-areto guztiek baterako fidantza solidarioak dituzte, 25.000 eurokoak, bakar-bakarrik bingo pilatu, interkonektatu eta "sari berezia" ordaintzeari eragiten diotenak.	Sari berezia, erositako kartoen arabera, 150 eta 1000 euro artean.	

Ordutegi erregimena	16:00etatik ordutegien Araudi bereziak adierazitako itxeko ordutegia bete arte. Ordu hori baino lehenago, lokalak bingo-jokoa ez den beste erabilera batzuk izan ditzake.	
Sarrerako gela eta zerbitzu osagarriak	Sarrerako gela	Hartzeko tokia, gutxienez baimendutako edukierako 15 pertsona bakoitzeko 1 m ² , sartzen diren datuak egiaztatze sistema informatikoa izango duena. Era berean, interesatuei NANA edo baliokidea eskatzea derrigorrezkoa da. Berariaz ez da eragozten joko (makinak) elementuak horretan egotea.
	Zerbitzu osagarriak	Ostalaritza zerbitzuak eta ikuskizunak, erabiltzaileentzat bakarrik. Joko makinatarako lokal bereziak, dagoeneko aztertu dugun joko-aretoen araudian ezarritakoaren arabera arautuko direnak.
Publizitatearen araubidea	Oro har, bakarrik informatzeko izaera duten sustatzeko jarduerak daude baimenduta eta edozein kasutan hauek: (i) Lokala, kokapena eta osagarriko zerbitzuak eguneroko prentsan, iragarkietan, turismo-erreportajeetan eta aisialdian edo sektorean berezitutako aldizkarietan aipatzea. (ii) Lokalari buruzko liburuxkak. (iii) Ikuskizun publikoak edo kirol-, jolas-, kultura-jarduerak edo instituzioek babestutakoak (adigabekoei zuzendutakoak salbu) babestea. (iv) Urtero lokalaren barruan festa ospatzea. Era berean hauek ere baimen daitezke: (i) Prentsa eta irratiko promozioa, establezimendua 3 egunetan jarraian itxi behar bada, hobetzeko obrak egiteko. (ii) Sei hilean behin sektore izaerako promozio informatiboak. Nolanahi ere, debekatuta: (i) Konbentzitzeko asmoa duten mezuenak edo zuzenean jokatzea bultzatzen dutenak.	
Zehapen-araubidea	Jokoaren Euskal Legean ezarritakoari guztiz egokitu zaio eta lege-hausteez sailkapen bera eta zehapenek kopuru bera dute.	

3.3.9. Kasinoei buruzko arauak

Kasinoen alorreko berariazko arauak bi xedapen hauek ezartzen dituzte bakar-bakarrik.

- **304/1993 Dekretua, azaroaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoan jokorako kasinoak nola instalatu planifikatu zuena (aurrerantzean, Planifikazio Dekretua). Dekretu horrek Euskadin kasinoak instalatzeko jarraibide orokorrak ezartzen ditu, labor eta eskematikoki.**

Planifikazio Dekretua, baimenak emateko prozedurari dagokionez, aurrerago aztertuko dugun kasinoak jarri eta zabaltzeko baimenen inguruko dekretuak garatu zuen. Hain zuzen ere, Planifikazio Dekretuak ezarritako irizpide orokorrak honela laburbildu daitezke:

- Kasino-kopuruaren muga. Soilik hiru kasino instalatu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoan, lurralde historiko bakoitzeko bat.
- Baimenak emateko prozedura. Herrizaingo Sailak Lehiaketa Publikoa antolatu behar du; horri buruzko ebazpena emateko kontuan hartuko ditu, batez ere, sustatzaileak zorrak ordaintzeko duen ahalmena eta negozioaren bideragarritasuna.
- Lokalen edukiera. Gutxienez 300 pertsona eta gehienez 600.
- **331/1994 Dekretua, uztailaren 8koa, kasinotarako baimenak dituzten enpresek bete beharreko baldintzak eta kasinoak jarri eta irekitzeko baimenak emateko**

prozedura arautu zuena (aurrerantzean, Kasino Baimenei buruzko Dekretua).

Planifikazio Dekretuari jarraipena emate aldera, kasino-baimenei buruzko Dekretuak ezartzen ditu kasinoak insta-

latzeko eta horien funtzionamendurako baimenak emateko irizpideak eta prozedura.

3.3.10. Kasino Baimenei buruzko Dekretua

Eskakizun subjektiboak	Baimentzeko prozedurak	
	Faseak	Edukia
Euskal Autonomia Erkidegoko helbidea duten pertsona fisikoak, administrazioarekiko harremanetarako.	Jardunbidea	Lehiaketa publikoa, Herrizaingo sailburuak berak deialdia egin eta gero.
Pertsona juridikoak:		
(i) merkataritza edo kooperatiba moduan eraturakotako sozietatea.	Instalatzeko eskabidea	Eskabidea, Proiektuaren kaudimen tekniko, material eta finantzarioa egiaztatzen duten agiriek lagunduta.
(ii) Gutxieneko kapital sozial orokorra: 1.202.024,41 €		
(iii) Gutxieneko kapital soziala, 450 lagunetik gorako edukiera duten lokalen titularrentzak: 2.404.048,42 €	Udalaren txostena	Herriko udalak proiektuko instalazioen egokitasunari buruzko txostena eman beharko du, hirigintza-irizpideen arabera.
(iv) Euskal Autonomia Erkidegoko helbidea, administrazioarekiko harremanetarako.		
(v) Kasinoak ustiatzea da helburu sozial bakarra eta eskusiboa (hala ere, jokorako beste edozein jarduera ere sar daiteke).	Ebazpena	Gai hauek zehazten ditu, besteak beste: (i) Funtzionatzeko ordutegia, gehienez. (ii) Baimendutako jokoen zerrenda. (iii) Apustuen gutxieneko eta gehieneko mugak. (iv) C motako makinaren gehieneko kopurua
Beraz, ez da mugarik ezarri interesatuaren naziotasunagatik.		Lehiaketa bete gabe utz dezake
Aurrekoaz gain, EZIN dira izan kasinoren titularrak edo kasinoak ustiatzeko enpresa bateko titularitatea izan, bingo-aretoak, joko-makinaren edo beste kasino baten enpresak dituzten enpresen titularrak badira edo halako enpresen partaidetza gehiena badute.	Funtzionatzeko baimenak	Beharrezkoa da lokala funtzionatzeko baimena eskatzea, kasinoak instalatzeko baimenaren Ebazpenak finkatutako terminoetan.

3.3.11. Apustuei buruzko Arauak

Apustuen negozioari dagokionez —tradizio handiko jarduera euskal kulturaren—, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek gainerako apustu orokorretatik kanpo utzi dituzte apustu hipikoak; hau da, independenteak dira gainerakoekiko. Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoak bi xedapen hauek ditu:

- **95/2005 Dekretua, apirilaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Apustuen Erregelamendua onesten duena (aurrerantzean, Apustuen Erregelamendua).** Apustuen Erregelamendua nahiko lege-xedapen berria da eta, haren bidez, lehendabizikoz apustuen negozioarentzat berariazko erregelamendua ezarri du, Jokoaren Euskal Le-

geak bere baitan hartzen dituen xedapen orokorretatik kanpo eta, halaber, berrikuntza handiak ezarri ditu.

- **68/2005 Dekretua, apirilaren 5koa, Euskal Autonomia Erkidegoko zaldi-lasterketetako apustuei buruzkoa (aurrerantzean, Apustu Hipikoen Erregelamendua).**

Apustu Hipikoen Erregelamendua eta Apustuen Erregelamendua oso antzekoak dira, biak ere garai berean onartu zirelako eta biek ere helburu bera zutelako; hau da, apustuen negozioarako berariazko arauak ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoan. Dena dela, eta normala denez, erregulatzen duen apustu-mota horren inguruko berezitasun zehatzak ditu erregelamenduak. Hari beretik jarraituz, eta al-

ferrikako errepikatzeak ez egite aldera, Apustu Hipikoen Erregelamenduari edukia aztertze atal honetan, hari buruzko berariazko gaiak soilik azalduko ditugu, eta ez gainerako gaien ingurukoak (bereziki, publizitate- eta zeha-

pen-araubideak) aurreko atalean aztertutako Apustuen Erregelamendura igortzen gaitu eta.

3.3.12. Apustuen Erregelamendua

Eremu materiala	Eskakizun subjektiboak	Baimentzeko erregimena	Fidantza	Homologazioa
Apustuak	EBko beste edozein estatuko naziotasuneko pertsona fisikoak Pertsona juridikoak (i) Zuzenbidean bidezkoa den sozietate-mota (ii) Gutxieneko kapital soziala: 1.000.000 € (iii) EBko estatuko naziotasuna. (iv) Euskal Autonomia Erkidegoko helbidea, administrazioarekiko harremanetarako. (v) Sozietate-helburu bakarra: apustuak ustiatzeko jarduerak eta lotutako bestelako jarduerak garatzea (vi) Jokoko Erregistroan inskribaturik Mugak: Baimendutako enpresek ezin izango dute %5 baino gehiagoko partaidetza izan Autonomia Erkidegoan baimendutako beste edozein enpresatan.	Jardunbidea Lehiaketa publikoa, Herraingo sailburuak deituta. Zenbatekoak mugatuta Gehienez 3 baimen. Lehiaketa bete gabe gera daiteke. Ebazpena Organoa: Joko eta ikuskizunen Zuzendaritza Diskrezio-tartea hauetan: (i) Baimendutako apustu-motak (ii) Apustuak egiteko gertakariak (iii) Apustuen gutxieneko eta gehieneko mugak.	500.000 €	Joko Zuzendaritzak homologatu beharko ditu apustuen ustiapen eta kudeaketarekin lotutako elementu guztiak (Apustuen Unitate Nagusia, makina laguntzaileak, apustu-txartelak, apustu interaktiboetan erabili beharreko domeinua eta sistema informatikoak).
Bestelako elementuak		Indarraldia Automatikoki 10 urtetarako berritu daiteke, eskakizunak betetzen badira.		

Baimendutako lokalak	Makina laguntzaileak	Publizitate erregimena	Zehapen-araubidea
Kanpoko apustuak	Ustiatzeko enpresak	Baimentzeko beharra	Jokoaren Euskal Legeak ezarritako erregimenari egokitu zaio eta lege-hausteeek sailkapen bera eta zehapenek kopuru bera dute.
(i) Joko Zuzendaritzak baimendutako lokal berezia.	Apustuak ustiatzeko baimena dutenak.	Aldizkari espezializatuak.	
(ii) Joko-aretoak	B eta C motako joko-makinak ustiatzeko baimena dutenak.	Apustuen helburuko gertakariei buruzko informazio-liburuxkak	
(iii) Kasinoak		Merkataritzako publizitatea, baimendutako lokalen barruan.	
(iv) Ostalaritzako lokalak.			
Barneko apustuak	Lokalak eta mugak	Baimenduta	
Apustuen helburuko gertakaria egiteko esparrua.	Apustuen helburuko jarduera gauzatzeko esparrua	Informatzeko promozioak soilik: Irratian eta telebistan ezin dira egin	
Apustu tradizionalak: Pilota, traineruak, herri-kirolak, etab.	Apustu-lokalak: Lokal bakoitzeko 10 makina gehienez.	7:00-9:00etara eta 17:00-21:30etara.	
Apustuen helburuko jarduera gauzatzeko frontoiak edo aire libreko tokiak	Ostalaritzako lokalak: Makina bat. Joko-aretoak, kasinoak eta bingoak: 3 makina laguntzaile, B edo C motako 12 makina bakoitzeko.	Erakundeek babestutako kirol-jarduerak.	
	Autonomia Erkidegoko lurralde osoan 1.500 makinaren gehiengoko osoa		

Eremu materiala	Baimendutako lokalak	Fidantza	Muga kuantitatiboak
Zaldiak aritzen diren kirol edo norgehiagoka jardueretan oinarritutako apustuak.	Barneko apustua	Barneko apustua: 60.000 €	Local espezifikoak:
Motak:	(i) Apustuaren helburuko gertakaria gauzatzeko baimendutako hipodromoak	Kanpoko apustua 180.000 €	(i) EAEn gehienez 15 lokal.
(i) Elkarrekikoak eta kontra-ordainekoak.	Kanpoko apustua		Makinak
(ii) Trabesak debekatuta daude.	(i) Baimendutako local bereziak.		(i) Joko-, bingo- edo kasino-aretoak: Makina 1.
Zaldi-lasterketako makina laguntzaileak	(ii) Joko-, bingo- edo kasino-aretoak		(ii) Ostalaritzako lokalak. makina 1.
	(iii) Baimendutako ostalaritzako lokalak		(iii) Autonomia Erkidegoan 100 makina
	Ez da baimenik eman lokal horien kanpoan edo euskarri informatiko edo interaktiboetan apustuak egiteko, beraz Internet bidezko zaldi-lasterketako apustuak debekatuta daude.		Sariak: Motaren araberakoa. Gutxienez apustuaren zenbatekoa 20 aldiz (hirukoitz orokorra, boskoitzak, etab.) Gehienez apustuaren zenbatekoa 1.000 aldiz (kateatu soila).

3.3.13. Apustu Hipikoen Erregelamendua

BAIMENEN ARAUBIDEA

Gehien bat apustu orokorretarako ezarritako lehiaketa publiko bidezko sistema bera da, zehaztasun hauekin:

(i) Baimen mota bi:

- Enpresa ustiatzaileen baimena (enpresa guztiek lortu behar dutena).
- Kanpoko apustua ustiatzeko baimena (bakar-bakarrik lortu behar dute kanpoko apustuak ustiatzen dituzten enpresek)

(ii) Eskakizun subjektiboak: Gutxieneko kapital soziala da aldatzen duen bakarra.

- 120.000 € kanpoko apustuak ustiatzen dituzten enpresentzat.
- 60.000 € barneko apustuak ustiatzen dituzten enpresentzat.

(iii) Muga kuantitatiboak:

- Barneko apustua: Autonomia Erkidego osorako 3 baimen, nahitaez hipodromoak kudeatzen dituzten enpresei eman behariko zaizkie, apustuen helburuko gertakariak gauzatzeko tokiak baitira.
- Kanpoko apustua: Euskal Autonomia Erkidego osorako baimen 1

(iv) Muga subjektiboak:

- Enpresa ustiatzaileen titularrak ezin dira izan joko-makina, bingo-areto edo kasinoen enpresa eragileen titularrak ezta horietan beraietan partaidetza gehiena duten pertsona fisikoak.
- Konpainia bera, bakar-bakarrik, barneko apustua ustiatzeko baimen bakarraren titularra izan daiteke eta, batera, kanpoko apustua ustiatzeko baimena izan.

3.3.14. Zozketei buruzko arauak

Zozketen kategoriaren barruan, batik bat, ezaugarri protagonista zoria den joko-motak sartzen dira. Nolanahi ere, negozio hori, batik bat bi arauk erregulatzen dute:

- **314/1994 Dekretua, uztailaren 19koa, boletoen bidezko jokoaren arautzen duena (aurrerantzean, Txartel-jokoaren Erregelamendua).**

Txartel-jokoaren Erregelamendua hainbat joko hartzen ditu bere baitan; joko horiek, funtsean, ezaugarri komuna dute: aurretik prezioa ezarrita duen txartela erosi eta txartelak berak aurrez ezarrita duen saria irabaz daiteke. Erregelamendua ez ditu jokoak kasuz kasu erregulatzen, txartel-bidezko joko guztiak ustiatzeko jarraibide orokorrak baino ez ditu ezartzen.

- **Herrizaingo sailburuaren 1991ko irailaren 2ko Agindua, konbinazio aleatorioak izenaz ezagutzen den joko-modalitatea arautu zuena (aurrerantzean, Ausazko Konbinazioen Agindua).**

Ausazko Konbinazioen Agindua oso joko-mota berezia erregulatzen du; joko-mota horrek, funtsean, sustapen-

edo publizitate-xedea du eta halakoak dira, besteak beste, ausazko konbinazioak.

3.4. Zergak

3.4.1. Sarrera

Lehen adierazi dugunez, lurralde historikoetako batzar nagusiek eskumena dute jokoaren alorrean arauak emateko. Hori hala dela agerian dago; izan ere, bingo-jokoari eta makina-jokoei edo tresna automatikoen bidezko jokoei buruzko foru-arauak onartu dituzte. Ezinbestekoa da azaltzea foru-arau horiek ia berdina direla, aitortpenak eta autoaitortpenak erregulatzen dituztenak izan ezik.

Zergen azterketari dagokionez, honako hauek aztertuko ditugu: batetik, jokoaren jarduerak berak eragiten dituen zergak, horien artean zerga zuzenak eta zeharkako zergak desberdintzen direla; eta bestetik, xehetasunez aztertuko ditugu jokoaren gaineko zergaren ezaugarri nagusiak.

Gaia berezia dela aintzat hartuta, jokoaren gaineko zerga osatzen duten elementuak garatu ditugu, eta joko-modalitateen zerga-kuotaren zenbatekoa zehazteko moduari erreparatuko diogu bereziki (zerga-oinarria eta zerga-tasa); hain zuzen ere, joko-modalitate hauei dagokienez:

- Jokorako makinak
- Bingo-jokoa
- Kasinoak
- Apustuak
- Txartelak
- Zozketak eta tonbolak
- Ausazko konbinazioak

3.4.2. Zerga-esparruaren azterketa orokorra

Gizarte modernoetan, bi kategoria handitan sailkatzen dira zergak: zerga zuzenak eta zeharkakoak.

A) Zerga zuzenak

Aztertzen ari garen kasuari dagokionez (jokoa antolatzeke edo egiteko ekonomia-jarduera), eta zerga zuzenaren esparruan, honako hauek bereizi behar dira: jokoa antolatzeak berak eragiten duen zerga; jarduerak berak jokoan parte hartu duenaren ahalmen ekonomikoak eragiten duen zerga (jokalaria); eta ekonomia-jarduera hori abian jarri duenaren ahalmen ekonomikoak eragin duen zerga (enpresaburua).

Ekonomia-jardueraren beraren zerga Ekonomia Jardueren Gaineko Zergaren bidez ezartzen da; udal-zerga da eta haren subjektu pasiboak, berriz, jokoa antolatzen duen edo egiten duen pertsona fisikoa edo juridikoa da. Horrez gain, pertsona fisiko edo juridiko horrek etekinak eskuratzen ditu ekonomia-jarduera hori (enpresa-jarduera) egitearen ondorioz, eta horiek ere zerga eragiten dute, pertsonaren gainekoa; hau da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, edo Sozietateen Errenten gaineko Zerga, pertsona hori fisikoa edo juridikoa den, hurrenez hurren, baldintzatzen duen zerga-mota.

Halaber, jokolariak irabaziren bat lortuz gero, zerga ordaindu behar du, dela Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren bidez, dela Sozietateen Errenten gaineko Zergaren bidez; pertsona hori fisikoa den ala juridikoa den, hurrenez hurren, baldintzatzen duen zerga-mota.

Ekonomia Jardueren Gaineko Zerga (EJGZ).

Ekonomia-jarduera hutsagatik —jokoa antolatzea eta abian jartzea— EJGZ udal-zerga ordaindu behar da. Horri dagokionez, zerga-arauak jarduera hauek bereizten ditu: jokorako kasinoak, bingo-jokoa, jolaserako eta ausazko makinak, jolas-eta joko-aretoak. Azaldutakoaren arabera, ez daude berariaz erregulatuta apustuak, ausazko konbinazioak, zozketak eta tonbolak antolatzearekin zerikusia duten jarduerak, baina EJGZ beraren araudiak ezartzen du enpresa-jardueren zerga, jarduera tarifetan zehaztuta dagoen aintzat hartu gabe. Nolanahi ere, adierazi ditugun jarduera horiek salbuetsita egongo dira, baldin eta subjektu pasiboak pertsona fisikoak badira, edo pertsona juridikoak izanik, 2.000.000 euro baino gutxiagoko eragiketa-bolumena badute.

Sozietateen Gaineko Zerga (SGZ).

Zerga honen subjektu pasiboak pertsona juridikoak dira. Sozietateen Gaineko Zergaren Foru Arauaren arabera, errenta lortzeak osatzen du zerga-egitatea, edozein dela iturria edo jatorria. Horrek esan nahi du zergapekoak direla jokoa antolatu duen enpresa zein jokalaria gisa jarduera horretan parte hartzen duen enpresa.

Oro har, adierazi beharrekoa da kontabilitate-emaizta dela abiapuntua ezarpen-oinarria kalkulatzeko, eta emaitza hori Zerga Arauan ezarritako kontabilitatez kanpoko doikuntzez zuzentzen da. Zerga-tasa orokorra %28koa da hiru lurralde historikoetan.

Orain artean esandakoaren arabera, hona hemen bereizi beharrekoak:

- Pertsona juridikoa jokoa antolatu duen entitatea bada** (enpresaburua), hori antolatzearen ondorioz eskuratutako sarrerek osatzen dute Sozietateen gaineko Zergari dagokion zerga-oinarria, hura gauzatzeak eragindako gastuak kenduta. Azken horri dagokionez, printzipioz, gastu kengarrizat hartzen dira jokoaren jarduerarekin zerikusia duten gastu guztiak. Jokoaren gaineko zergaren kontzeptuan ordaindutako zenbatekoa kengarria den galderari dagokionez (administrazio-baimenak lortzeak eragindakoa edo aurrerago aztertuko dugun jokoaren gaineko zerga), erantzuna baiezkoa da. Izan ere, kontabilitatearen ikuspuntutik, zerga horiek jarduerak eragindako gastutzat hartzen dira, beharrezkoak, gainera, ekitaldiari dagozkion sarrerak eskuratzeko.

- b) **Pertsona juridikoa jokalaria bada**, zergapekoak dira jarduera horietan parte hartzeak ekarri dizkion sarrerak Sozietateen gaineko Zergan, bestelako sarrerak bezala. Dena dela, etekinekin gertatzen ez den bezala —Sozietateen gaineko Zergari buruzko arauak ezarritakoaren arabera— joko-jarduera horietan parte hartzeak ekarri dizkion galarak ez dira kengarriak Sozietateen gaineko Zergan.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ).

Zerga honen subjektu pasiboak pertsona fisikoak dira. Zergadunak errenta lortzeak osatzen du zerga-egitatea; hortaz, Sozietateen gaineko Zergaren inguruan esan dugun bezala, bereizi egin behar dira: batetik, joko-jarduera antolatzen duen pertsona fisikoak (enpresaburuak) eskuratutako errentak; eta bestetik, mota horretako jardueretan parte hartzeagatik jokalaria eskuratzen dituen errentak. Azaldutakoaren arabera, hona hemen errenten kalifikazioa:

- a) **Joko-jarduerak gauzatzeak eragindako errentak** ekonomia-jardueren etekintzat kalifikatzen dira. Etekin-mota horri dagokion PFEZren zerga-oinarria honela kalkulatu da: jarduera gauzatzetik eskuratutako sarrera guztiei hura gauzatzeak eragindako gastuak kenduta lortutako emaitza. Dagokion zerga-tasa, berriz, zerga-eskalaren karga progresiboaren arabera, pertsona fisiko horri aplikatzekoa dena.
- b) Joko-jardueran aritzearen ondorioz, ondare-irabazi gisa hartuko dira **jokalaria eskuratutako errentak**. Baina, Sozietateen gaineko Zergaren inguruan bezala, jokoak eragindako galerak ez dira ondare-galera gisa zenbatzen. Hau da, subjektu pasiboak eskuratutako gainerako irabaziaz ez dituzte murrizten. Beste mota bateko ondare-irabaziekin ez bezala (zerga-tasa finkoko zergapekoak), jokoan lortutako irabaziei aplikatzen zaien zerga-tasa kalkulatzeko, pertsona fisikoari aplikatu behar zaio aipatu dugun zerga-eskala.

B) Zeharkako zerga

Zeharkako zergen xedea kontsumoa zergapetzea da; hortaz, horien subjektu pasiboa antolatzen duen edo zerbitzuak edo produktuak saltzen dituen entitatea bada ere, horiek kontsumitzen dituztenei ere eragiten die. Zerga-kategoria horren barruan hauek ditugu: Balio Erantsiaren Zerga (BEZ) eta jokoaren gaineko zerga. Zeharkako zergen artean eza-gunena BEZa da. Nolanahi ere, jarraian adieraziko dugu-

nez, jokoaren zerga-esparruan, jokoaren gaineko zerga da zerga nagusia.

Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ)

Enpresaburu eta profesionalek egindako ondasun-eskuratze eta emandako zerbitzuak zergapetzen dituen; ondasun-eskuratze horiek jardunean egindakoak izan behar dute, kostu bidez eginak ohiki edo inoizka. Dena dela, joko-jarduerak antolatzearen alorrean, zerga horrek ez du zama handiegirik; izan ere, zozketa, tonbola, apustu eta ausazko konbinazioen gaineko tasaren zerga-egitateak eta zori, enbido edo ausazko jokoak zergapetzen dituen tasaren zerga-egitateak osatzen dituzten jarduerak salbuetsita daude, BEZaren araudiak ezartzen duenez. Salbuespen horrek ez ditu bere baitan hartzen kudeaketa-zerbitzuak, ez eta aipatutako tasa horien zerga-egitateak osatzen ez dituzten gainerako eragiketa osagarriak ere; bingoaren kudeaketa-zerbitzuak izan ezik.

Jokoaren gaineko Tasa

Jarraian adieraziko dugunez, Jokoaren gaineko Tasa zeharkako tributu bat da, joko-antolaketa zergapetzen duena.

3.4.3. Jokoaren gaineko Tasa

A) Tributuaren nondik norakoa: tasa edo zerga

Jokoaren gaineko Tasa zeharkako tributu bat da, joko-antolaketa zergapetzen duena. Zerga horrek joko *ab initio* erregulatzen du; izan ere, zori, enbido edo ausazko joko-jarduerak egiteko beharrezkoa den administrazio-baimena zergapetzen duen kategoria-fiskala da. Azaltetik aztertuko dugu tresna hori, izaera orokorreko arauen inguruko atalean aztertu baitugu.

Hortaz, ondoko ondorio hau ateratu dugu: Jokoaren gaineko Tributuaren tasaren kategoriakoa ez den tresna fiskala da; izan ere, haren xedea ez da zuzenbide publikopeko zerbitzuak emateak edo jarduerak egiteak eragindako gutxi gorabeherako kostuaren proportziozko kontraprestazioa. Hau da, jokoak —gastu edo kontsumo jakin bat— berariaz zergapetzen duen zerga hutsa da.

Azaldutakoaren arabera, argi eta garbi bereizi behar dira Jokoaren gaineko Zerga eta administrazio-baimena ematen duen ordaindu beharreko zergak, oso desberdinak baitira.

B) Jokoaren gaineko Zerga erregulatzen duen Araudia

Lurralde historikoek dute zerga hori arautzeko eskumena. Ondoren, lurralde historikoetako bakoitzak dituen arauak azalduko ditugu:

BIZKAIA

(i) 3/2005 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko lurralde historikoan jokoaren gaineko zerga arautzen duena (aurrerrantzean, Jokoaren Foru Araua)

(ii) Eusko Legebiltzarraren 6/1992 Legea, urriaren 16koa, bingo-jokoaren gaineko zergari eta zoripeco jokoak egiteko bide ematen duten makinez eta gailu automatikoez baliatuz egiten diren jokoen gaineko tasaren errekaruari buruzkoa.

ARABA

(i) 5/2005 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, Arabako lurralde historikoan jokoaren gaineko zerga arautzen duena.

(ii) 6/1992 Legea, urriaren 16koa, bingo-jokoaren gaineko zergari eta zoripeco jokoak egiteko bide ematen duten makinez eta gailu automatikoez baliatuz egiten diren jokoen gaineko tasaren errekaruari buruzkoa.

GIPUZKOA

(i) 1/2005 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, Gipuzkoako lurralde historikoan jokoaren gaineko zerga arautzen duena.

(ii) 6/1992 Legea, urriaren 16koa, bingo-jokoaren gaineko zergari eta zoripeco jokoak egiteko bide ematen duten makinez eta gailu automatikoez baliatuz egiten diren jokoen gaineko tasaren errekaruari buruzkoa.

Lurralde historikoetako araudiak oso antzekoak direnez, ondoren azalduko dugun azterketa, printzipioz, baliagarria da hiruretarako.

C) Xedapen komunak

Zergak bezala, aipatutako tresna bakoitza hainbat elementu antolatzailetan bereizten da, eta horiek sakon aztertuko ditugu, eskema honi jarraiki:

- (i) Izaera eta xedea
- (ii) Ezarpen-eremua
- (iii) Zerga-egitatea
- (iv) Subjektu pasiboa
- (v) Erantzuleak
- (vi) Zerga-oinarria
- (vii) Zerga-tasa
- (viii) Sortzapena

Izaera era xedea

Jokoaren gaineko zerga zeharkakoa da eta joko-jarduerak zergapetu egiten ditu.

Ezarpen-eremua

Joko-jarduerari aplikatuko zaie, haien baimena Euskadin ematen bada eta lurralde historikoren batean egiten direnean.

Zerga-egitatea

Jokoaren gaineko Zergaren zerga-egitatea da ondoko joko-jarduerak baimendu, antolatu edo egitea, horretarako bitartekoa eskuzkoa, teknikoa, telematikoa edo interaktiboa izanda:

- Kasinoko jokoak.
- Bingoa.
- Apustuak.
- Txartelak.
- Jokorako makinak.
- Zozketak.
- Tonbolak.
- Ausazko konbinazioak.
- EAEko Jokoen Katalogoko beste edozein joko.

Subjektu pasiboa

Administrazioko baimena eman zaien pertsona fisikoak, juridikoak edo erakundeak dira subjektu pasiboak. Administrazio baimenaren ezean, joko-jarduerak egin edo antolatzen dituzten pertsona fisikoak, juridikoak edo erakundeak izango dira subjektu pasiboak.

Erantzuleak

Erantzule solidarioak dira jokoak egiten direneko lokal, instalazio edo aretoetan, joko-jarduera ez den beste edozein jarduera egiten duten pertsona fisikoak, juridikoak edo erakundeak.

Salbuespenak

Salbuetsita egongo dira zozketa, tonbola, apustu eta ausazko konbinazio hauek:

- a) Irabazi asmorik gabeko erakundeek antolatutakoak, ondoko betekizunak betetzen badira:
 - Interes orokorreko helburuak izatea, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgoarentzako zerga-pizgarriei buruzko otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauan ezarritako eran.
 - Lortutako zenbateko osoa helburu horiek lortzeko erabiltzea.
 - Sarien zenbateko osoa 6.000 euro baino gutxiago izatea.
- b) Errepidean Laguntzeko Bizkaiko Elkartek (gaztelaniaz, DYA) antolatzen dituenak.
- c) Titulartasuna Euskal Autonomia Erkidegoarentzat erreserbatuta badago edo berari badagokio.
- d) Azoka, feria edo jaiak direla eta, eguneko antolatzen diren tonbolak.

Bitxia bada ere, bingoko eta kasinoetako jarduerak ez daude salbuetsita, nahiz eta horiek ongintzakoak izan.

Zerga-oinarria

Oro har, hurrengo atalean aztertuko ditugun joko-modalitate bakoitzerako berariaz ezarritakoa kontuan hartuta, jokoaren gaineko zergaren oinarria osatuko dute jokalariek jokoetan parte hartzeko erabiltzen dituzten diru-zenbatekoek.

Zerga-tasa

Zerga-tasa orokorra %20koa da.

Sortzapena

Jokoaren gaineko zergaren sortzapena gertatuko da, oro har, joko baimentzean eta, hala behar denean, joko antolatua edo egiten denean.

D) Joko-mota horietako bakoitzaren berezitasunak

Jarraian, joko-mota horietako bakoitzean kontuan hartu beharreko berezitasunak azalduko ditugu, adierazitako xedapen komun horiez gain, zenbait berezitasun baitituzte.

1. Jokorako makinak

«B» eta «C» motako makinak dira soilik jokoaren gaineko zergapekoak.

Subjektu pasiboa

Lehen azaldu dugunez, administrazio-baimena edo ustiapen-baimena eman zaion pertsona fisikoa, juridikoa edo erakundea da; kasu honetan, makinaren jabea den enpresa da subjektu pasiboa, eta ez makina dagoen ostalaritza-establezimenduaren jabea. Horrenbestez, nahiz eta makinaren jabea den enpresak makinak eragindako etekinetik kopururen bat kendu zerga ordaintzeko, ostalaritza-aretoaren jabea da zerga ordaintzearen erantzule solidarioa.

Zerga-oinarria

Makina edo tresna automatikoen bidez egiten bada joko, «B» edo «C» motako makina edo tresna automatikoen kopuruak osatuko du zerga-oinarria.

Zerga-tasa

Makina edo tresna bakoitzeko eskatuko da kuota finkoa. Makina mota bakoitzak bere kuota finkoa du, desberdina da «B» edo «C» motakoa izan; horrezaz gain, makina horietan parte har dezaketen pertsona-kopuruaren arabera ere bada.

Foru-errekargua

6/1992 Legean jasotakoaren arabera, subjektu pasiboak ordaindu beharreko urteko kuota finkoaren gaineko %12ko errekkargua izango du.

Sortzapena

Makinaren ustiapena baimendu eta ondorengo urteetan, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean gertatuko da zergaren sortzapena. Makina baten orde, antzeko ezaugarriak dituen mota

bereko beste makina bat jartzeak, aldi berean, ez du kuota berririk sortuko.

2. Bingo-jokoa

Zerga-oinarria

Kartoiak erosteko jokalariek ordaintzen duten diru-zenbateko guztia izango da zerga-oinarria, kenketarik gabe.

Zerga-tasa

Hiru zerga-tasa daude:

- Batetik, zerga-tasa aplikagarria %20koa da, arauak ezarritako tasa orokorra eta aurreko atalean adierazitako zerga-oinarriaren gainekoa da.
- Bestetik, 6/1992 Legeak %4ko foru-errekargua ezartzen du kartoi bakoitzak inprimatuta duen zenbatekoaren gainean. Kasu honetan, kartoiak inprimatuta duen balioztat honako hau hartzen da: kartoi bakoitzeko pertsonak ordaintzen duen zenbatekoa.
- Eta azkenik, Jokoaren Foru Arauaren xedapen gehigarriaren arabera, kartoi bakoitzeko 0,007473 euro aplikatu behar da. Zenbateko hori bingo-kartoiaren horniduraren kostu unitarioaren arabera zehazten da, kartoiaren inprimatutako balioa edozein izanda ere.

3. Kasinoak

Zerga-oinarria

Jokoaren bidez lortzen diren diru-sarrera gordinek osatuko dute zerga-oinarria. Kasu honetan, diru-sarrera gordintzat ondokoa hartzen da: jokoaren bidez lortutako diru-sarreraren zenbateko osoari jokalariei irabazietan edo sarietan ordaindutako zenbatekoak kenduta ateratzen den emaitza. Arauak ezarritakoaren arabera, joko-aretoetan sartzeko ordaindutako zenbatekoa ez da kontuan hartzen diru-sarrerak zenbatzeko.

Zerga-tasa

Kasinoko jokoetan honako urteko tarifa hauek aplikatuko dira:

Zerga-oinarriaren zatia hauen artean	Tasa aplikagarria (Ehunekoak)
0 - 1.890.000,00 euro	20
1.890.000,01 - 6.300.000,00 euro	35
6.300.000,00 baino euro gehiago	50

Los tramos establecidos en la tarifa son independientes, de manera que cada parte de la base imponible tributará según el tipo establecido para cada respectivo tramo.

Tarifan ezarritako tariteak independenteak dira, eta zerga-oinarriaren zati bakoitzak dagokion taritean ezarritako tasaren arabera ordainduko ditu zergak.

4. Apustuak

Zerga-oinarria

Apustuetan jokatutako zenbatekoen baturari parte-hartzaileek jokoan lortutako sariaren zenbatekoa kenduta osatuko da zerga-oinarria. Nolanahi ere, pilota-partidak, traineru-estropadak edo bestelako kirol-jarduerak edo herri-kirolen lehiaketak direla-eta antolatutako apustuetan, urtean izandako ekitaldi-kopuruak osatuko du zerga-oinarria, betiere jarduera horiek egiten diren tokietan soilik egiten badira apustuak, eta kanpoko apustuak kontuan hartu gabe.

Zerga-tasa

Apustuen bidezko zerga-tasa, honako atal honetan ezarritakoa kontuan hartuta, %10ekoa izango da.

Atal honetan aipatzen diren kirol-jardueretan edo -lehiaketetan, ondoko kuota zehatzak aplikatuko dira:

Pilota-partidak eta traineru-estropadak direla-eta egindako apustuetan, ekitaldi bakoitzeko 100 euroko kuota finkoa ordainduko dute, urtean 50 ekitaldi baino gutxiago antolatzen badira, eta 150 euroko kuota urtean 50 ekitaldi edo gehiago antolatzen badira.

Bestelako kirol-jarduerak edo herri-kirolen lehiaketak direla-eta egindako apustuetan —esaterako, idi-probak, aizkolariak, segalariak edo harri-jasotzaileak—, ekitaldi bakoitzeko 20 euroko kuota finkoa ordainduko dute urtean 50 ekitaldi baino gutxiago antolatzen badira, eta 30 euroko kuota urtean 50 ekitaldi edo gehiago antolatzen badira.

5. Txartelak

Zerga-oinarria

Txartelak erosteko jokalariek ordaindutako guztiaren batura izango da zerga-oinarria, inongo kenketarik egin gabe.

Txartelen bidezko jokoak administrazio-baimenik gabe egiten bada, emandako txartelen salneurrien batura osoa izango da zerga-oinarria.

Zerga-tasa

Txartelen bidezko jokoaren zerga-tasa %15ekoa izango da.

Sortzapena

Txartelen bidezko jokoaren gaineko zergaren sortzapena jokoak baimentzean gertatuko da eta, hala behar denean, jokoak antolatu edo egiten denean. Egun, Bizkaiko lurralde historikoan ez dago txartelen bidezko jokoak egiteko baimena duen enpresarik.

6. Zozketak eta tonbolak

Zerga-oinarria

Eskainitako txartelen batura osoa izango da zerga-oinarria.

Zerga-tasa

Zerga-tasa, oro har, %15ekoa izango da.

7. Ausazko konbinazioak

Ausazko konbinazioei dagokienez —gainerako jokoak biltzen dituen kontzeptua—, bere baitan hartzen dituen joko-modalitateek sariak emateko duten sisteman zoriak badu zerikusirik, baina ez dira ez zozketa, ez tonbola, ez eta apustuak ere. Hona hemen ausazko konbinazioen elementu bereizlea: parte

hartzeak ez dakar berekin zenbatekorik ordaintzea, baina ezinbestekoa da produkturen bat edo zerbitzuren bat eskuratzea. Halako motako jokoan xedea hau da: saria banatzen duenak publizitatea egitea edo ezagutzera ematea eta, hain zuzen ere, sustapen edo publizitate hori da zergapetzekoa. Ez dira ausazko konbinaziotzat hartzen transferentzia ekonomiko handiak eragiten ez dituzten denbora-pasarako edo jolas hutserako diren jokoak.

Zerga-oinarria

Eskainitako sarien batura osoa izango da zerga-oinarria. Kasu honetan, sarien balioa merkatuan dutena izango da, saria eskura jartzeko beharrezko gastu guztien batura ere barne.

Zerga-tasa

Zerga-tasa %15ekoa da.

Sortzapena

Jokoaren gaineko zergaren sortzapena gertatuko da, oro har, jokoak baimentzean eta, hala badagokio, jokoak antolatu edo egiten denean. Hortaz, Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskitzuzen Zuzendaritzak jokoak egitea baimendu ondoren, zerga eska daiteke; horrez gain, eska daiteke, jokoak baimena eskatu gabe antolatzen edo egiten denean ere.

Joko-modalitate horretan, ohikoa da zozketak egitea ebazpena eman aurretik eta, beraz, proposatzeko modukoa da zerga eska daitekeen baldintzak betetzen ez direnean eta zozketa egiten ez denean ere. Erantzunak baiezkotzea izan behar luke. Izan ere, zergaren araudiak ez du xedatzen eragiketen sortzapenaren ondoren kontrako ebazpena eman gero, zerga-oinarria alda daitekeenik; horrez gain, halaber, ez du xedatzen zerga itzultzeko bestelako aukerarik sortzapena gertatu ondoren, nahiz eta sariak ez banatu. Horrek badu logikarik, saria eskaintzen duenak egiten duen sustapena edo publizitatea baita zergapetzekoa eta, hortaz, zerga hori ezartzeko berdin dio eskainitako sariak emana edo eman gabe egotea.





Joerak eta jardunbide onenak
jokoaren sektorean

1.0. Sarrera

Lehen aztertu dugun enpresa-egituraren ekonomia-diagnosiaren jarraipena da ekin berri diogun atala. Europako eta nazioarteko joerak alderatuko ditugu, xedea hau izanik: entitate arautzaileen egituraren jardunbide eta joera onenak identifikatzea, eta joko-modalitate berriak, beste negozio-egitura batzuk eta joko arduratsua sustatzeko neurri berriak identifikatzea. Horrezaz gain, Europako merkatuak alderatu ditugu, Euskadiko merkatuak duen garrantzia erlatibizatzen.

Merkatuen ekonomia-analisia egiteko, Europako operadore nagusien estatistika-datu ofizialak erabili ditugu, bai eta Europar Batasunak eskatu zituen aurretiazko azterketa konparatiboak ere.

Entitate arautzaile europarren egiturari buruzko azterketa egiteko, 2005ean Netherlands Gaming Control Board izenekoak egitea eskatu zuen hausnarketa hartu genuen abiapuntu. Hona hemen hausnarketa horren xedea: egitura egokia hautatzea, entitate arautzaileek bere emandako informazioa oinarri hartuta.

Joko-modalitateen eta negozio-egituren joerei buruzko azterketa egiteko ondoko informazioa erabili dugu: sektorearen inguruko azoketan eta konferentzietan (Interazar 2007, EIGEXPO Bartzelona 2007) identifikatutako modalitate berri-tzaileen inguruko informazioa, sektoreko aldizkariak (besteak beste, Joc Privat, Azar, Igaming Business, Egaming Review, Betting Business, Webdeljuego.com, La tribuna del Recreativo, Sector del Juego, Gambling Compliance) eta hainbat entitate arautzaile europarren urteko txostenak (Gambling Commission, Netherlands Gaming Board). Euskadin jokoaren azpisektorean aritzen diren joko-enpresek eta enpresaburuen elkarteek ere (FVEJ, ASE, BAE, Gran Casino Kursaal kasinoa eta Gran Casino Nervión kasinoa) lagundu digute joeren inguruko laburpena egiten.

Joko arduratsuen alorreko jardunbide onenei dagokienez, batez ere, oinarri hartu da sarrera kontrolatzeko, joko arduratsua sustatzeko eta Europar Batasunean jokalariei laguntzeko neurrien azterketa xehea.

1.1. Europako jokoaren inguruko datuak

XX. mendearen bigarren erdiaren eta XXI. mendearen joanean, **joko-eskaria asko hazi da Europar Batasunean**, ondoko arrazoiak direla medio:

1. Europar Batasuneko herritarren errenta garbiak gora egin du, Europako ekialdeko herrialdeetan batik bat.
2. Jokoa gizartean hobeto ikusteko gogo handiagoa dute estatuek eta jokoa ustiatzeko eskumena dutenek.
3. Ausazko jokoekiko liberalizazio orokorra, etikoki eta moraliki.
4. Jokoaren sektorea gero eta integratuago dago bestelako jardura-sektoreetan (zaldi-lasterketak, apustuak orohar...).
5. Ordenagailuen, Interneten eta komunikazioko teknologien sorrera; izan ere, horiek aukera eman dute jokoarekin zerikusia duten zerbitzu berriak garatzeko.

Hedatzeko joera orokorra bada ere, jokoaren sektorearen garapena, joko-eskaintza eta haren liberalizazioa oso desberdina da Europar Batasuneko herrialdeetan. Are gehiago, desberdintasun handiak daude herrialdeek jokoak baimentzeari eta debekatzeari buruz dituzten legedien artean. Taulan ikusten denez, Europar Batasuneko herrialde guztietan baimenduta dagoen joko bakarra loteria da, eta herrialde gehienetan erakunde publiko batek kudeatzen du. Bestalde, gutxien baimenduta dagoen modalitatea ostalaritzako B motako makina da; makina-mota hori kasinoetatik kanpo debekatuta dago Zipren, Frantzia, Grezian, Maltan, Portugalen eta Eslovenian.

Kasinoa Irlandan soilik dago debekatuta, apustuak Austrian, eta bingoa Zipren.

La gama de juegos autorizados en Europa se estudiará en más detalle más adelante en el análisis de tendencias legales.

JOKOEN ESKAINTZA EUROPA BATASUNEKO HERRIALDEETAN ^[1]

Herrialdea	Kasinoak	Loteria	B makinak	Apustuak	Bingoa
Austria	BAI	BAI	BAI	EZ	BAI (Irabazi asmorik gabeko org.)
Belgika	BAI (zonalde bereziak)	BAI	BAI (kasinoetan)	BAI (kirol-ekitaldiak)	EZ
Zipre	BAI	BAI	EZ	BAI	BAI
Txekiar Errepublika	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
Danimarka	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
Estonia	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI (Irabazi asmorik gabeko org.)
Finlandia	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
Frantzia	BAI	BAI	EZ	BAI	BAI
Alemania	BAI	BAI	BAI (kasinoetan)	BAI	BAI
Grezia	BAI	BAI	EZ	BAI	BAI
Hungaria	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
Irlanda	EZ	BAI	EZ	BAI	BAI
Italia	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
Letonia	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
Lituania	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
Malta	BAI	BAI	EZ	BAI	BAI
Holanda	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI (Irabazi asmorik gabeko org.)
Polonia	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
Portugal	BAI (zonalde bereziak)	BAI	BAI (kasinoetan)	BAI	BAI
Eslovakia	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
Eslovenia	BAI	BAI	EZ	BAI	BAI
Espainia	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
Suedia	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
Erresuma Batua	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI

Europar baimenduta dauden jokoak sakonago aztertuko ditugu hurrengo atal batean, lege-joreen azterketari buruzkoan.

Joko-modalitate berberak zenbait herrialdetan baimenduta badaude ere, horietako bakoitzeko merkatu-kuota desberdina da. Izan ere, besteak beste, herritarren gustuen arabera,

joko horiek duten tradizioaren arabera eta legediak baimentzen duenaren arabera da.

Loteria da gehien jokatzen den jokoa, jokatutako diru-kopuruaren arabera, **Europar Batasuneko ia herrialde guztietan**. Polonian, esate baterako, loteriak hartzen zuen jokoren sektoreko merkatu-kuotaren %66,40 ^[2] 2003. urtean,

^[1] "Study of gambling services in the internal market of the European Union", CE.


^[2] Atal honetako datuak "Study of gambling services in the internal market of the European Union" izenekotik datoz, Europako Batasunak eskatuta.

eta Polonia da modalitate horrek merkatu-kuota handien duen herrialdea. Herrialde horretan, loteriaren inguruko bi enpresa daude eta biak publikoak dira. Dena dela, horietako batek — Totalizator Sportowy— merkatu-kuotaren %95 du.

2003. urtean, **Malta** jokoaren sektoreko **diru-sarreraren %58,1 online apustuetakoak izan ziren**. Herrialde horretan, apustu guztiak online dira, kanpoan eskaintzen diren urruneko jokoaren inguruko legedia biguna baita, baina ez Maltako lurraldean eskaintzen denaren ingurukoa; izan ere, kaleko apustu-etxeak debekatuta daude. Egun, Maltako jokoaren entitate arautzaile “Lotteries and Gaming Authority” izenekoak urruneko jokorako 150 lizentzia baino gehiago eman ditu. Gambling Commissio izenekoak egindako kalkuluen arabera, 2.500 enpresa inguruk eskaintzen dituzte Internet bidezko jokoak. Malta, besteak beste, lizentzia duten enpresa hauek nabarmentzen dira: Betfair, Expekt, Bet At Home, Unibet eta Interwetten.


Bingo-jokoari dagokionez, **Espainiako estatuan du arrakasta handien**; 2004an merkatu-kuotaren %15 hartzen zuen eta 2006an %13. Izan ere, tradizio handiko jokoa da. Nolanahi ere, egun, lehen aipatu ditugun datuek agerian utzi dutenez, galtzen ari da merkatu-kuota, bezero-kopuruak behera egin baitu.

JOKOAREN SEKTOREAREN MERKATU-KUOTAREN BANAKETA EUROPAKO BATASUNEAN 2004AN



Kasinoek presentzia handia dute, bereziki, Grezian; haren merkatu-kuota %35ekoa da. 2004. urtean 17 kasino zeuden, horietatik 10 Greziako isletatik barrena banatuta. Herrialde horretan, Mediterraneoko beste herrialde askotan bezala, kasinoak turistentzat dira eta, hortaz, gehienak konplexu turistikoetan daude. Frantzian ere kasino-kopuru handia dago; hain zuzen ere, 190 inguru.

EUROPAKO BATASUNEN MILOI BIZTANLEKO KASINOAK (2006)



Iturria "Study of Gambling Services in the internal market of the European Union", European Comisión

B motako makinek merkatu-kuota handia dute Txekiar Errepublikan, %58,4 egiten dute. 2004. urtean, herrialde horretan B motako 52.000 makina legal zeuden gutxi gorabehera. Kopuru handia da, baina Erresuma Batuan gehiago daude, 260.000; izan ere, mota horretako makina gehien dituen herrialdea da. Espainian ere badira 246.000. Dena dela, kontuan hartu behar da Txekiar Errepublika herrialde txikia dela.


Merkatu-kuoten grafikoan, “besteak” izeneko zatiak hainbat kategoria hartzen ditu bere baitan, herrialdearen arabera. Frantzia herrialdearen kasuan, merkatu-kuotaren %25,7 egiten du “besteak” zati horrek eta, batik bat, zaldi-lasterketetako apustuak dira. Txekiar Errepublikaren kasuan, telefono bidezko apustuak dira; Alemanian, online kasinoak eta sustapen-jokoak; Grezian, zaldi lasterketetako apustuak; eta Erresuma Batuan, Internet bidezko jokoak.

Europar Batasunaren barruan ere badira aldeak, jokoaren sektoreak tokiko ekonomikoarekiko duen garrantziaz dagokionez. Jendeak dituen ohiturak, enpresa-ohiturak eta legediak desberdinak dira eta horrek berak eragiten du Europar Batasuneko herrialdeen artean desberdintasunak egotea, jokoak Barne Produktu Gordinari (BPG) egiten dion ekarpenari dagokionez. Horren haritik jarraituz, **Malta da jokoaren sektoreak BPGrekiko pisu handien duen herrialdea**. Etekina, zergak ordaindu baino lehen, %2,7koa da. Izan ere, herrialde horretan oso erakargarriak dira online apustu-etxeak. Malta izan zen urruneko jokoa eta apustuak baimendu eta erregulatu zituen lehendabiziko herrialde europarra.

Herrialde guztien batez bestekoa, 2003. urtean, **%0,68**koa izan zen. **Espainiako estatuari** dagokionez, **%0,63** ingurukoa izan zen; **Erresuma Batuan** kasuan, **%0,69**koa. BPGrekiko diru gutxien mugitzen duen herrialdea Polonia da, **%0,01**ekoa baita.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, ez dugu zergen aurretiko etekinei buruzko daturik, zerrenda hori osatzeko. Nolanahi ere, Espainiak duenaren oso antzekoa da sektorearen kasuistika eta, horrenbestez, zifra oso antzekoa dela pentsatzen dugu.

ETEKINA, ZERGAK ORDAINDU BAINO LEHEN, BPG-REN EHUNEKO BEZALA EUROPAKO BATASUNEKO HERRIETAN 2003AN



dira, eta beste batzuek, berriz, horretarako propio sail edo esparrurik ez duen ministerio baten esku uzten dituzte jarduera horiek. Oro har, aztertu ditugun entitate arautzaile europarrak bost motatan bana ditzakegu, horiek duten independentzia-mailaren arabera.

22 herrialde ordezkaten dituzten 29 entitate aztertu ditugu guztira. Izan ere, zenbaitetan, eginbeharrak eta erantzukizunak bi entitaterean artean banatuta daude. Askotan, ministerioren batek betetzen ditu arautze-lanak.

Entitate arautzaile independente oso gutxi dago; izan ere, zenbaitetan, nahiz eta zenbait herrialdetan badiren entitate arautzaile independenteak, funtzio jakin batzuk ministerioek betetzen dituzte. Hori bera gertatzen da Suitzan, arautze-funtzioa merkatuaren arabera banatzen baita (entitate arautzaile independenteek kasinoaren ardura dute, Justizia Ministerioak loteriana).

1.2. Jokoaren entitate arautzaile europarrak

Jokoaren entitate arautzaileen egitura eta antolaketa Europar [3]

Europar jokoaren sektorea anitza da eta bertan dauden entitate arautzaileen kopurua da horren adierazgarri. Jokoa ikuskatzeko egitura-mota asko hauteman ditugu azterketan honetan; batzuk entitate arautzaile erabat independenteak



EUROPAKO EGITURA ARAUTZAILEAK

	Número	%
Arautzeko lanak Ministerioak egiten ditu, aparteko bulegorik ez baitago	9	%31
Arautzeko lanak Ministeriokoa den aparteko bulego batek egiten ditu	7	%24
Arautzeko lanak Ministeriokoa den baina bertan ez dagoen bulego batek egiten ditu	1	%3
Arautzeko lanak Ministerioko kontrolaren menpeko agentzia edo ikuskatzailetza egiten ditu	4	%14
Arautzeko lanak guztiz independentea den arau-emaile bati eman dizkiote	6	%21
Besterik	2	%7
Guztira	29	%100

[3] Europako jokoaren entitate arautzailea da "Gaming regulator structures in Europe" ikerketaren sintesia, Netherlands Gaming Board-ek aginduta.

EUROPAKO ARAUTZAILEAK SAILKATZEA MAILA ETA AHALMENAREN ARABERA

INDEPENDENTZIA ↑ Handia Txikia ↓	Herbehereak (2)	Suitza (1)	Erresuma Batua Danimarka Suitza Lituania
		Finlandia	Italia Norvegia Latvia Belgika Malta
	Estonia Suitza (2) Espainia EAE Alemania Islandia	Polonia	Portugal Hungaria Kroazia Eslovenia Herbehereak (1) Frantzia
	Gutxi		Asko
	AHALMENA		

Matrize horrek erakusten digu agintari arautzaile europarrek dituzten eskumenak eta horiek ministerioekiko duten independentzia-maila zenbatekoa den. Independentzia-maila handia izateak esan nahi du arautzailea administrazio-erakunde independentea dela. Irudiaren beste muturrean, independentzia-maila txikia eta ministerioen mende dauden sailak kokatu ditugu. Badira erdibidean kokatu ditugun entitate arautzaileak; horiek, hain zuzen, batzorderen batean parte hartzen dute eta beren kabuz aritzen badira ere, ministerioen eragina izan dezakete, beren politikari dagokienez.

Suitza eta Holanda bi aldiz azaltzen dira, herrialde horietako jokoaren kudeaketa banatuta baitago.

Arautze-ereduek dituzten abantailak

Jokoaren erakunde arautzailea independentea izatearen baliarik nagusia hau da: oso garbi bereizten dira, batetik, gobernuak duten finantza-interesa eta zergak biltzeko interesa eta, bestetik, jokoaren ikuskaritza. Izan ere, horrela, gobernuak ezin dituzte behartu entitate arautzaileak, zerga-bilketan eragina izan dezaten. Halako egituretan argi eta garbi bereizten dira erantzukizunak, eta "barneko" interesen artean gatazkak sortzea eragozten du. Horrez gain, halako egiturak edukiz gero, egoera egonkorragoa da, ez baitago eragin politikorik. Halako egituretan, politikariek ez dute erantzukizun zuzenik.

Bestelako ereduan, berriz, entitate arautzailea Ministerioren batekoa denean edo haren erantzule zuzena bada, zenbait kasutan, jarduteko malgutasuna handiagoa da eta azkarrago ere bai. Halako egitura edukiz gero, azkarrago erantzun dakieke gertaerei, politika-jarduerei edota gizartearen eskaera jakinei.

Erakundeen tamaina

Europar Batasuneko herrialdeetan dauden entitate arautzaileen artean alde handiak daude. Batetik, herrialde batzuetakoek 100 langile baino gehiago dituzte eta aurrekontu handiak; beste herrialde batzuetakoek, berriz, ez dute langilerik ez eta berariazko aurrekonturik ere halako funtzioak betetzeko. Batez beste, entitate arautzaileetan, 32 langile aritzen dira eta 4,2 MM euroko aurrekontua dute, eta ministerioetatik jasotzen dute horien guztien %55ek. Nolanahi ere, ezinbestekoa da zehaztea langile horiek zerikusi zuzena dutela arautze-lanarekin eta ez jarduerak ikuskatzearekin; izan ere, ikuskatze-lanak gehiagotan egin behar izaten dira eta langile gehiago aritzen dira halako lanetan, ikuskatze- eta kontrol-lanak betetzeko, bestelako ezagutza jakinak behar direlako, batik bat.

Holandakoa egitura bitxia da: ikuskatze-lanak kanpoko enpresa pribatu batek egiten ditu (Verispevt), bertan aritzen dira 14 langile eta B motako makinak ikuskatzen dituen kudea-

tzaile bat. Ikuskatze-lanak kanpoko enpresa pribatu bati azpikontratatzan dion herrialde bakarra da Holanda.

Kontrolpean eduki beharreko esparrurako egokia bada ere, gainerako entitate arautzaile europarren aldean, Eusko Jaurlaritzako egungo **Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza txikia da**. Hau da, guztira 63 langile aritzen dira, baina ikuskatze-lanarekin zerikusia duten langile-kopurua kenduta, 28 baino ez dira ^[4].

Entitate arautzaileen jarduerak eta bitartekoak

Ikuskatze-lanak betetzeaz gain, entitate arautzaileek badituzte bestelako funtzioak ere. Gehienek aholkularitza-lanak egiten dituzte, lizentziak ematen dituzte eta informazioa eskuragarri jartzen dute.

Jarraian erantsi dugun taulan, ikuskatze-lana behar bezala beteko dela bermatzeko entitateek dituzten bitartekoak adierazten dira:

ARAUTZAILEEN JARDUERAK ETA TRESNAK

	Zenbakia	%
Administrazio kontrolak	24	%86
Lokalak ikuskatzea	19	%68
Finantza kontrolak	18	%64
Ikuskapen teknikoak	14	%50
Onlineko monitorizazioa	9	%32
Besterik	10	%36
Guztira	29	%100

Online monitorizazioari dagokionez, ez da bakarrik tramite telematikoak egitea, baizik eta Internet bidezko kudeaketa integratua, irregularitasunak berehala hautematen laguntzen duena; halaber, gerta daitezkeen irregularitasunei buruzko azterlanak egiteko beste modu bat ere bada. Ezinbestez azaldu behar dugu halako online ikuskaritzak neurri osagarriak direla eta ez duela esan nahi ez direla orain artean bezala aretoak ikuskatuko.

Joko arduratsua eta entitate arautzailea

Entitate gehienek dituzten funtzioetako bat herritarra babestea da eta, horretarako, ikuskaritzak egiten dituzte, jokoak kalitatezkoa eta segurua izango dela bermatzeko; dena dela, oso entitate gutxi adierazten dituzte asmo horiek beren funtzioetan edo xedeetan.

^[4] Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak emandako datuak.

^[5] Gambling Commission-eko informazioa, 2007ko urrian.

^[6] Ciudad Real-eko Reino de Don Quijote-ren proiektuari buruzko informazioa.

1.3. XXI. mendeko kasinoak

Manchester hiriko super-kasinoa ^[5]

Egun, 142 kasino daude Erresuma Batuan eta *Gambling Act 2005* izeneko indarrean sartuz geroztik, beste 17 kasino gehiago zabaldu daitezke: super-kasino bat, tamaina ertaineko zortzi kasino eta zortzi kasino txiki. Ekonomia leheneratzeko mekanismo gisa bideratuta dago **super-kasinoaren** eraikuntza. 27 hiri hautagai ziren eta horietatik **Manchester** aukeratu dute kasinoa eraikitzeko. Super-kasinoak 5.000 metro koadroko azalera izango du gutxienez, eta mugarik gabeko saria emango duten 1.250 jokorako makina gehienez. Apustuak super-kasinoaren barruan egitea ere baimenduta dago, bai eta bingo-aretoetan ere. Jokoak eskaintzeaz gain, jokorekin zerikusia izango ez duen aisialdirako eta denbora-pasarako zentro bat ere izango du, gimnasio-aretoak, igerilekuak, hotel bat, jatetxeak, tabernak eta guzti.

El Reino de Don Quijote kasinoa ^[6]

Reino de Don Quijote aisialdiko zentroa **Ciudad Real** hirian ari dira eraikitzen, eta hura ere kasino handi baten inguruan diseinatuta dago. Super-kasino britainiarrak baino azalera handiagoa du, %20 gehiago, eta eremuak 6.000 metro koadro hartuko ditu; hau da, Europako kasinorik handiena izango da, hedadurari dagokionez.

Eremu horretan, sei hotel eraikiko dira eta, horien guztien artean, 4.000 gela eskainiko dituzte. Caesars Castilla la Mancha izeneko hotel-kasinoak, 850 gela dituenak, ikuskizunetarako auditorioa ere izango du, "Colosseum" izeneko, 3.000 laguntzako. Horrezaz gain, 5.000 metro koadroko konbentzio-zentro bat eraikitzeko asmoa dute; horietatik, 2.060 metro koadro batzarrak, mintegiak, negozio-bilerak egiteko aretoek hartuko dituzte, eta aldi berean 1.200 lagun biltzeko edukiera izango dute. Aisialdiko zerbitzu-sorta integrala eskaini nahi dutenez, 2.700 metro koadroko spa bat ere izango du, bertan izango ditu bainu erromatarra, gimnasioa, apaindegi- eta tratamendu-eremua, hiru golf-zelai (guztira, 45 zulo) eta 18.000 metro koadroko merkataritza-gunea.

Kalkuluen arabera, 22.200 lanpostu sortuko dira konplexu horretan (7.000 zuzenak, 5.800 zeharkakoak eta 9.400 indutzuak).

Eredu horrek turismoa du oinarri, negozio eragile gisa erakarri nahi dena; izan ere, Manchester hiriak eta haren in-

guruak 2.800.000 biztanle inguru ditu, eta Ciudad Real probintziak 506.864.

Gran Scala^[7]

Aurreko proiektuen ildo beretik, "Gran Scala" jokorako makro-komplexuaren aldeko apustua egin duten nazioarteko inbertitzaileek aisialdirako gunetzat hartzen dute proiektua.

Gran Scala izeneko zentroak Las Vegas-en formularen errepika izan nahi du, jokorako, aisialdirako, ikuskizunetarako eta kongresuetarako gune gisa. Proiektua ikaragarria da eta munduko aisialdiko konplexu handiena bilakatuko litzateke. Aragoiko Monegros eskualdean kokatuko litzateke zentroa. Mega-proiektu horretan, 17.000 milioi euroko inbertsioa egitea aurreikusten da eta honako hauek eraikitzea: 32 kasino, 70 hotel, 232 jatetxe, 5 jolas-parke, 12 establezimendu edo museo, 500 denda, auditorioak, hipodromoa eta golf-zelaiak. Horrez gain, konplexuko langileentzako 2.300 etxebizitza eraikiko dira, kanpokoentzat salgai jarri gabe. Hori guztia eraiki ondoren, Las Vegasen atzetik, munduko bigarren bihurtuko da, joko-eskaintzari dagokionez, eta Macau eskualderen lehiakide.

Proiektuak 2.025 hektareako azalera hartuko du, 65.000 lanpostu sorrarazi ditzake, Aragoiko Autonomia Erkidegoari urtero 677 milioi euroko ekarpena eman diezaiokete eta, horrez gain, 1.000 milioi euro urtero Espainiako Ogasunari.

Poker-joko berriak, Texas Hold'em^[8]

Online poker-mahaiak eta telebistaz ematen dituzten poker-txapelketak direla eta, arrakasta handia lortu du orain arte euskal gizartean ohikoa ez zen poker-mota batek. **"Texas Hold'em"** izena du eta **Ameriketako Estatu Batuetako kasinoetan gehien jokatzen den poker-mota da.**

Bi karta soilik izatean eta gainerako jokalariekin beste bost kartak partekatzean datza jokoa. Bertsio horrek, zoriaz gain, estrategia-analisia egitea ere eskatzen du.

Britainia Handian Texas Hold'em jokoa baimenduta dago, eta oso ohikoa da Mugarik gabeko Texas Hold'em txapelketak jokatzea behin baino gehiagotan aste berean. Esate baterako, Londreseko Leicester Square plazan dagoen Casino at the Empire-n, astean lau aldiz jokatzen dira poker-txapelketak. Madrilako Gran Casino kasinon, halaber, hilean behin izaten dira mota horretako txapelketak.

Poker-torneo guztien artean, PokerStars.com^[9] izenekoaren European Poker Tour da ezagunena eta Europan sari handienak banatzen dituena.

1.4. Online operadoreak

Online jokoaren jatorria^[10]

Hasiera-hasieratik, beti izan da eztabaida online jokoaren inguruan. Online jokoak Antigua uhartean du abiapuntu, 1994. urtean arautu baitzuten. Man uhartean du egoitza soziala Microgaming izeneko enpresak, eta hura izan zen online kasino-erako produktuei dagokionez, lehendabiziko pakete integrala egin zuen software enpresa. Egun, Microgaming enpresa da kasino-erako software hornitzaile nagusia sarean.

1995. urtean, Cryptologic enpresak ezinbestekoa zen lana egin ondoren, Internet bidezko salerosketak seguruak eta bideragarriak izatea bermatu baitzuen, Intercasino sortu zen, lehendabiziko online kasinoa.

2003. urtean eCOGRA (eCommerce and Online Gaming Regulation and Assurance) sortu zen, online esparrua segurua izan zedin lan egite aldera eta, horrela, online apustuak normaltasunez eta gardentasunez egin ahal daitezkeen. Egun, estandarrik sortzeaz eta jardunbide onenak sustatzeaz gain, ehun web-orri baino gehiago online erregulatzen eta monitorizatzen ditu eta haiei ziurtagiriak ematen dizkie.

2003. urtearen hasieran ondo zihoakion online jokoaren industriari. Izugarri hazi zen, zenbait telebista-kate iparramerikarretan poker-txapelketak ematen hasi zirene eta, ondorioz, poker-jokoaren irudia aldatu, berriro egin zen. Izan ere, ordura arte karta-joko ilun eta arriskutsua zen eta, harrizkerok, kirol nazionala bilakatu zen, enpresa-operadoreek zigorrik jaso gabe zerbitzuak eskaintzen dituenak.

Lehendabiziko istilu garrantzitsua BetonSports etxeko zuzendari nagusiaren atxiloketa izan zen, hau da, David Carruthers izenekoaren atxiloketa. Ameriketako Estatu Batuetan online jokoaren aurkako kanpainaren abiapuntu izan zen atxiloketa. Argi eta garbi zegoen Justizia Sailak zer adierazi nahi zuen: urruneko jokoaren operadoreak ez ziren gustukoak. Online jokoaren historia laburrean, garrantzi handien izan duen gertaera 2006ko irailaren 30ean gertatu zen. Egun horretan, Ameriketako Estatu Batuetako kongresuak online jokoei eta

^[7] Proiektuaren izaera eta heldutasuna kontuan harturik, atal honetan aurkeztutako informazioa etorkizunean alda daiteke. Kalkulu ekonomikoa hasierakoa da eta proiektuaren sustatzaileek beraiek egin dute.

^[8] Igaming Business Marketplace 2007.

^[9] Pokerstars.com.

^[10] Online jokoaren azkenaldiko historiaren laburpena Jokoaren Nazioarteko Biltzarreko eta Apuestas Remotas EIGEXPO, Barcelona 2007ko datuekin landu da.

apustuekin zerikusia zuten salerosketak egiteko banku-zerbitzu guztiak debekatu zituen lege-proiektua onartu baitzuen. Bitartekariari eraso egitea zen estrategia eta ez publikoari edota operadoreei berei. Lege-proiektua onartu eta berehala, enpresa-operadore nagusien burtsako kotizazioak bertan behera etorri ziren; Partygaming enpresak %56 galdu zuen, 888 Holding-ek %27 eta Sportinbets enpresak %56. Egun gutxi batzuen buruan, enpresa horiek jakinarazi zuten merkatu amerikarretik kanpora irtengo zirela eta, kontuan hartu behar da, garai hartan munduko merkatuaren erdia zela gutxi gorabehera.

2007ko urtarrilean, ordura arte inoiz izandako atxiloteta istilutsuena gertatu zen. Lawrence eta John Lebre atxilotu zituzten, Neteller enpresaren sortzaileak (online ordaintzeko zerbitzuetan enpresa espezializatua), kapital-zuriketako delitua leporatuta. Neteller zen eta da oraindik ere online jokalariek gustukoak duten ordaintze-metodoa.



Online apustu-etxeetako zuzendaritza-karguen azken atxilotetako bat Holandan gertatu da; Frantziako agintariak eskatuta atxilotu zuten Unibet, loterien eta zaldi-lasterketen apustuen legea urratzea leporatuta. Frantziako Francaise des Jeux loteria-administrazioak salatu zuen. Online jokoaren inguruko eta estatuek duten monopolioen inguruko eztabaida berriz piztea eragin du azken atxiloteta horrek; izan ere, azken horiek beste enpresa-operadore batzuk ez sartzeari gogor egingen diote.

Online negozioen egitura

Online jokoaren enpresa-operadoreek joera izan dute beren web-orrietan joko-mota guztiak eskaintzeko. Esate baterako, betidanik apustu-etxe izandako zenbait enpresak (William Hill, Ladsbroses, Bwin, Betfair) beste joko batzuk eskaintzen dituzte; eta poker-mahai birtual izateko sortu ziren beste enpresa batzuek apustu gurutzatuko eta elkarrekiko apustuko zerbitzuak eskaintzen dituzte. Ahalik eta erabiltzaile-kopuru handiena erakartzea dute xede. Mota horretako kasinoek eta enpresa-operadore birtualek kostu txikiak izaten dituztenez, zerbitzu gehiago eskaini ditzakete oso inbertsio handiak egin gabe eta egitura osagarri handiak jarri beharrik gabe.




Online kasinoek eguneko hogeita lau orduetan jokatzeko aukera ematen dute. Gehien eskaintzen dituzten jokoak hauek dira:

- Kasinoak
- Apustuak
- Apustu hipikoak
- Bingoa
- Makina birtualak
- Trebetasun-jokoak (backgamon, billarra, etab.)
- Poker-txapelketak
- Loteriak

Hazteko estrategiak ^[11]

Gero eta online operadore gehiago daude, bi arrazoi hauengatik, batik bat: bezero potentzial asko dagoelako eta Internet bidezko publizitatea ez dutelako askorik kontrolatzen estatuek. Izan ere, online jokoaren enpresa nagusiek hazteko dituzten estrategiak hiru faktore nagusi hauetan oinarritzen dira: merkatu potentziala, erraz ordaintzeko moduko ordaintze-sistemak herritarrentzat eta publizitate-jardueretik kontrol urria.

^[11] Jokoaren Nazioarteko Biltzar eta Apuestas Remotas EIGEXPO, Barcelona 2007tik jasotako datuak. Apustularien Espainiako Elkarteak (AEDAPI) emandako informazioa.

ORDAINTZEKO MODUA	MOTA ZEHATZAK
Kreditu-txartel arruntak (Kreditu eta zor-txartelak)	
Online ordaintzeko sistemak (E-wallet). Sistema horien bidez, funtsak hainbat modutan sar daitezke, interneten zerbitzu asko eta asko erabiltzeko. Funtsak sartzeko aukeretan txkeak, tokiko transferentziak, kreditu-txartelak, etab. sartzen dira.	
Aurre-ordainketa txartelak. Aurre-ordainketa txartelak erraz erosi daitezke Europa osoan, tabako-dendetan, Cyberkafetegietan, liburu-denda eta tabernetan. Bereziki, paysafecard izenekoa Europa osoko 90.000tik gorako salmenta-guneetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri gehienetan aurki daiteke.	
Transferentziak <ul style="list-style-type: none"> • Bankukoak • Bitartekarien bidez 	
Txekeak. Enpresa eragileen bulegoetara txkeak bidaltzea ere ordaintzeko modu onartua da, motelena bada ere.	

Espainiako estatuak hiru baldintza horiek betetzen ditu. Kirol-apusturik ez egoteak (LAEren jokoak eta Euskadiko eta Madril-eko erregulazioetan izan ezik), ordaintzeko bitartekoak izateak eta publizitate-jarduerak gutxi kontrolatzeak eragin dute urruneko joko horiek gero eta arrakasta handiagoa izatea. Erresuma Batua da Europako apustu-merkatu handiena, baina saturatuta dagoenez, enpresek ezin dute gehiago hazi. Alemanian eta Frantzia, agintariak kontrolerako joera handiagoa dute eta, beraz, merkatuan sartzeko zailagoa da, publizitatea murriztu egin baitute. AEBk, berriz, merkatu handiena izateko potentziala du, baina administrazioak ordainketa-moduei aurrez aurre eraso egin dienez, ia erabat desegin du merkatua.

Ordainketa-moduak ^[12]

Online operadoreek duten indar handienetako bat, hain zuzen, hauxe da: **ordainketa-modu asko eskaintzea**. Ordainketa-zerbitzuak soilik eskaintzen dituzten milaka enpresa daude Interneten. Enpresa horiek guztiak bost ordainketa-modutan bereiz ditzakegu.

Aurre-ordainketa txartelak gertu-gertu

Erresuma Batuko kasuen arabera, pertsona batzuk saiatu dira Interneten bidez jokoari uzten eta, horretarako, kreditu- eta zor-txartelak bertan behera utzi nahi izan dituzte, defentsarako bide moduan eta, azkenik, aurre-ordainketa txartelen bidez jokatzen amaitu dute. Euskadin, oso erraza da aurre-ordainketa txartelen bat lortzea, hala ere ez dago baimenduta txartel mota horrekin jokatzea.

Aurreordainketa-txartela

Zerbitzu asko ordaintzeko aurreordainketa-txartela erabiltzen da Interneten. Ordainketa-modu eroso eta segurua da, ez baita beharrezkoa Interneten bankuko datuak sartzeko. Dena dela, joko arduratsuen eta adin txikikoen babesaren ikuspuntutik, mehatxua da. Lehenik eta behin, edonori saltzen dizkiote txartelak, adina edozein dela ere. Eta bigarrenik, ez dute autodebekurako mekanismorik ezartzen uzten, jokalarik konpulsiboek laguntze aldera. Orain arte adierazitakoa kontuan hartuta, egia da sariak beti kontu batean kobratu behar direla eta adin txikikoez ezingo luketela, edonola ere, saria kobratu.

Mugak Ameriketako Estatu Batuetan ^[13]

Merkatu estatubatuarrak nabarmen egin du behera, 2006an UIEGA (Unlawful Internet Gaming Enforcement Act) indarrean sartuz geroztik. Dena dela, azaldu behar da online jokoak ez dela desagertu. Legea indarrean sartzeak Internet bidezko ordainketa-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa asko merkatutik kanpo irtetea eragin du (Neteller, Bookmakers, etab.), baina jokalarik estatubatuarrek badituzte oraindik ere zenbait ordainketa-sistema (Click2play, Instadebit, Eco card, Wire transfer, Bank Draft). Legeak, **online jokoak desagerrarazteaz gain, legearen kontrako bihurtu du**. Hor-taz, joko-enpresa handi gehienek estatubatuarrentzako zerbitzuak eskaintzeari utzi egin diote, eta beste enpresa batzuek

^[12] Beraiek egin dute, online jokoaren web orri nagusietan ordaintzeko dauden bitartekoak aztertu eta gero (Betfair, Bwin, Unibet, Interwetten y miapuesta).

^[13] Jokoaren Nazioarteko Biltzar eta Apuestas Remotas EIGEXPO, Barcelona 2007tik jasotako datuak.

sartzeko aukera izan dute; esate baterako, Bodog, BetUs, Slotsvillage, Golden Casino, etab.

Azken batean, neurri horrek ez du eragozten herritarrak Internet bidezko jokoetan aritzea, baina orain zailagoa da erabiltzea eta jende gutxiago aritzen da halako jokoetan.

Sartzeko moduak

Egun, urruneko joko-operadoreak sartzeko modu nagusia Internet da, ordenagailu bidez. Beste modu batzuk badira, besteak beste, telefonia mugikorra, baina diru-sarrerak oso txikiak dira; eta telebista digitalaren kasuan, berriz, diru-sarrera nulua da.

Online kasinoak ^[14]

Kasino birtualak edo online bidezkoak **hiru taldetan bana daitezke, horien interfazearen arabera**: web-kasinoak, behera kargatzen diren kasinoak eta, berrienak, zuzeneko kasinoak.

- **Oinarria web-orria duten kasinoak.** Jokatu ahal izateko erabiltzaileak ez du zertan programa behera kargatu terminalean (ordenagailua, PDA edota esku-telefonoa). Mota horretako kasinoek banda-zabalera jakin bat behar dute, grafikoak, soinua eta animazioak behera kargatu behar baitituzte.
- **Behera kargatzen diren kasinoak. Ezinbestekoa da aplikazioen bat instalatzea erabiltzailearen terminalean;** dela ordenagailua, dela esku-telefonoa, dela PDA (esate baterako, 888.com).
- **Azken asmakizuna zuzeneko kasinoak dira,** online jokoaren operadoreak asmatua. Benetako croupierrak ikusteko, haiei entzuteko eta haiekin elkarrekintzan aritzeko aukera eskaintzen dute; croupier horiek kasino-estudioetan daude eta mundu osoan barrena ikus daitezke. Hementxe bertan, Euskadiko kasinoak kudeatzen dituen taldeak, duela zenbait urte, mota horretako zerbitzuak eskaini ahal izateko softwarea garatu zuen, online jokoak baimenduko zutelakoan. Joko-modalitate hori baimentzeko legea aldatu ez dutenez, ez dute inoiz eskaini zerbitzua, oraindik ere itxaropena badute ere.

1.5. Berrikuntzak makinaren azpisektorean

Makinen bizitza baliagarriak gora egin du

Makina-mota asko dago nazioarteko merkatuan. Slot motako makinaz gain (B eta C motako makinak), badira urte batzuk ausazko beste joko batzuk emulatzen dituzten makinak sortu zirela. Besteak beste, nabarmentzeko modukoak dira kasino-jokoaren aukera osoa, bingo elektronikoa eta zaldi lasterketa birtualak.

Makina berri askok joko askotan aritzeko aukera ematen dute eta, halaber, behin baino gehiagotan programa daitezke zaharkituta gera ez daitezen. Nolanahi ere, potentzia eta ahalmen handiagoa duten beste makina batzuk sortzen ari dira, online kudeatzen diren B motako makinak.

Online kudeatzen diren B motako makinak ^[15]

Cantor Gaming enpresak "Casino de Pub Online" izenekoa merkaturatu du. Erresuma Batuko puben operadore nagusi Punch Taverns-en laguntzari esker, **tabernetako makinetan kasino tradizionalako joko guztietan aritzeko aukera** ematen duen makina diseinatu dute. Berrikuntza da saria eta jokoak Internet bidez kudeatzen direla. Besteak beste, blackjack, roulette, video poker, slots, eta baccara dituzte. Halaber, poker- eta bingo-jokoak ere erantsiko dituzte.

Makina horrek eskaintzen dituen zerbitzu berritzaile guztien artean, hauek dira nabarmentzeko modukoak: jokoetarako sarbidea kontrolatzeko neurriak, online ordaintzeko zerbitzuak eta bezeroaren arretarako zerbitzua. Online Cantor Gaming enpresak Maltan aritzeko lizentzia du, eta jarduera nagusia urruneko ausazko jokoak dira.

Makina-mota horrek sektorea goitik behera aldatzea eragin dezake ostalaritzan eta joko-aretoetan; izan ere, B motako makinek betidanik izan dituzten gabeziak hobetuko lirateke, joko arduratsuari eta adina egiaztatu behar izateari dagokionez. Hainbat herrialdetako enpresaburu ideia hori aztertzen ari dira 2001. urteaz geroztik (esaterako, Holanda ^[16]).

Inongo estatutan ezarri ez badira ere, antzeko kontzeptuak badira; esaterako, aurrerago deskribatuko dugun FOBT izenekoak (Fixed Odd Betting Terminales).

^[14] Jokoaren Nazioarteko Biltzar eta Apuestas Remotas EIGEXPO, Barcelona 2007tik jasotako datuak.

^[15] Coin-op news – Gaming & Amusement Trade Publications. 2007ko azaroa.

^[16] Netherlands Gaming Board.

^[17] Gamcare eta Gambleaware; Gambling Commission, "Sector summary"-eko informazioa.

TAMF sistemen abantailak

1. Joko berriak jar daitezke makina mugitu eta ordeztu beharrik gabe.
2. ADSL linearen bidez urrunetik egiten du lan lokalaren kanpoko zerbitzariarekin.
3. Monetak, billeteak eta zor-bartelaren bidezko ordainketa onartzen ditu.
4. Diruarekin truka daitezkeen irabazleen ticketak inprimatzen ditu, makinako dirua norberak kudeatzea saihesten du.
5. Jokolari buruzko estatistika-informazioa gehitu zaio zerbitzarian eta terminal bakoitzean.

Momio finkoko apustu-terminalak (gaztelaniaz, TAMF) ^[17]

TAMF izeneko makina horiek 2005. urtean hasi ziren ezagutzen Erresuma Batuan. **Apustu-etxeetan izaten dituzte halako makinak** eta zenbait **joko birtual eskaintzen dituzte**; esaterako, dadoak, galgoak, zaldiak, erruleta eta bingoa. **B motako makinaren eta kasinoko jokoaren arteko nahasketa** da jokoak.

Hau da, B motako makinek duten abiadura, eta sari handiagoak eta apustu malguagoak uztartzen ditu. **Azken urteotan, erruleta izan da jokorik arrakastatsuenak.**

Apustu-etxeetako zenbait elkartek adierazi dute makina horiek arrakasta handia izan dutela, bai eta salmahaietan betidanik egiten diren apustuek baino diru-sarrera handiagoa eragin dutela ere ("Over-the Counter-Betting").

Txanponak, billeteak eta zor-txartela ere erabil daitezke ordaintzeko. Azken ordainketa-moduari dagokionez, ezin da makinan bertan ordaindu, jokalaririk nahitaez joan behar baitu ordaintzera salmahaira. Badu alde nabarmena, dena dela, B mota makinekiko: **ezin da saria zuzenean kobratu**. Makinak txartel bat inprimatzen du eta horren truke dirua ematen dute salmahaietan. Jokalari-elkarteek adierazi dute sistema horrek jokatzeko jarraitzera bultzatzen duela, dena galdu arte.

Apustu-etxe britainiarren elkarteak (ingelesez, ABB) makinaren inguruko jokabide-kodea ezarri zuen 2004. urtean. Elkartearen eta Gamcare erakundearen arteko lankidetzari esker ezarri ahal izan zuten kodea, jardunbide onenak eta joko arduratsua sustatze aldera. Hona hemen kode horren bidez ezarritako mugak: apustu-etxe bakoitzeko lau makina, gehieneko apustua eta saria eta, azkenik, apustuen arteko denbora-tartea. Horrez gain, jokalariek jaso dezaketen laguntzari buruzko informazioa eskaintzera ere behartzen ditu terminalak (Gamcare erakundearekin harremanetan jartzeko). Halaber, jokabide-kodeak gogorarazten du nahitaez jarri behar direla jokalaritari laguntzeko informazioari buruzko posterrak eta liburuxkak ikusteko moduan (Gamcare erakundearen eta ABB

izeneko elkartearen web-orrietan eskura daitezke kodea oso-rik).

Joko-aretoak Erresuma Batuan ^[18]

Erresuma Batua da Europar Batasuneko herrialderik liberalena, jokoiari eta apustuei dagokionez; eta horrez gain, jokoaren alorrean prozedura eta araudi aurreratuenak eta zorrotzenak dituen da.

Kalkulatzen da, egun, Erresuma Batuan jokorako 260.000 makina daudela eta, horietatik, %31 familientzako denborapasarako zentroetan daudela (ingelesez, Family Entertainment Centres izena dute), %13 aretoetan, %28 pubetan, %1 kasinotan, %6 autobideetako zerbitzuetan, %9 bingo-aretoetan eta %9 lizentziadun apustu-etxeetan. Gainerakoak bestelako ezaugarriak dituzten tokietan daude. Horrenbestez, joko-aretoetan jokorako 33.800 makina daude guztira.

Azterlan hori egiteko, hainbat ezaugarri komun zituzten joko-areto batzuk bisitatu dira; hona hemen nabarmentzea merezi duten ezaugarri komun horietako batzuk:

- Sartu ahal izateko 18 urte izatea gutxienez. Prebalentzia-azterketa 2007ko irailean amaitu zuen Gambling erakundearen batzordeak eta bertan jasotakoaren arabera, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen %32k makina horietan jokatzeko ohitura dute.
- Erresuma Batuko joko-areto askotako ikuspegia bestelakoa da. Gazteak erakartzera bideratuago daude argi eta garbi. Honako joko hauek izaten dituzte: B motako makinak (bideoko bertsiokoak eta arrabolak dituztenak), billarrak, A motako makinak eta pinball-makinak.
- la 59 milioi biztanle ditu, eta makina-dentsitateari dagokionez, milioi biztanleko 4.400 makina inguru daude; zifra hori Euskadiri dagokiona baino txikiagoa da.
- Ezaugarri deigarrietako bat hauxe da: establezimenduetan, barruan, kutxazain automatikoak daude. *Gambling Act 2005* legeak horretarako baimena ematen du, betiere erabiltzailea behartzen bada jokoak uztera, kutxazainera joan dadin.

Makinaren homologazioa ^[19]

Erresuma Batuan duen nabarmentzeko moduko beste ezaugarri bat hauxe da: laborategi baimenduak dituzte makinak

^[18] BACTA, British Amusement and Catering Trade Association, Gambling Comission, "Gaming Machine Sector Summary" 2007.

^[19] Gambling Commission, "Gaming Machines in the UK".

^[20] Gambleaware.co.uk. Customer protection responsible gambling measures.

homologatzeko. Egun, Gambling Commission izenekoak baimendu dituen bederlatzi laborategi daude. Bitxiena da atzerriko herrialdeetan daudela horietako asko; besteak beste, Australian, Hegoafrikan, Austrian eta Holandan. Hala, Erre-suma Baturako makinak egin dituzten fabrikatzaileentzako makina homologatuak egitea errazagoa da eta, halaber, nahi bezalako makinak izatea bermatzen da.

Joko-aretoetako jokabide-kodeak ^[20]

“Gambling Act 2005” jokoari buruzko legea 2007ko irailean jarri zen indarrean eta, harrezkero, joko-aretoetako operadoreek lizentziari buruzko jokabide-kode zorrotzak bete behar dituzte. Kode horiek jardunbide onenak ezartzen dituzte, honako hauen ingurukoak: finantza- eta informazio-betekizunak, kutxaren erabilera, establezimenduetarako sarbidea kontrolatzeko neurriak eta joko arduratsuen sus-tapena. Horretarako, hainbat prozedura eta politika ezartzen dituzte. Besteak beste, operadoreek ondokoak egiaztatu behar dituzte ezinbestez:

- Joko problematikoari buruzko ikerketarekiko eta preben-tzioarekiko konpromisoa dutela.
- Zer egingo duten herritarrak hezteko, joko arduratsuen eta jokoak dituen arriskuen inguruan.
- Jokalari problematikoak hautemateko prozedurak.

Betebehar edo baldintza horiek aldaketa kualitatibo handia eragin dute, enpresaburuak bere gain hartu behar baititu zenbait erantzukizun; esate baretako, joko arduratsua sustatzea; langileak trebatzea, jokalari problematikoak hauteman ditzaten; eta adin txikikoek sarbidea izan ez dezaten prozedurak ezartzea.

Joko-batzordeak (ingelesez, Gamling Commission) egin dituen ikuskaritzen artean, nabarmentzeko modukoa da establezimenduetako langileei egiten dietena; lanean aritu ahal izateko trebakuntzari buruzkoa, hain zuzen. Horrezaz gain, establezimenduak behartuta daude nork bere burua kanpoan uzteko baimena eman dezaten establezimenduetan; halaber, behartuta daude beharrezko neurriak ezartzera, beren burua kanpoan utzi dutenei instalazioetan sartzea eragozteko (datu pertsonalak, argazkia, etab.).

Azken batean, joko-aretoei buruzko araudi britainiarra zorrotzagoa da lizentziak emateko ezartzen dituen baldintzei da-

gokienez eta, gainera, enpresaburuak behartu egiten ditu bere gain hartzera joko problematikoaren aurkako borroka eta adin txikikoen sarrera eragoztera.

1.6. Loteria, finantziazio-iturri: Ikusi Makusi

Finantziazioa, ausazko jokoen bidez ^[21]

Ausazko jokoak diru-iturri dira irabazi asmorik gabeko mundu guztiko elkarte askorentzat. Ameriketako Estatu Batuetan nahiko finantziatio-modu arrunta da gizarte-mugimenduen-tzat. Estatuaren baimena duten elkarteek loteriak eta zozketak antolatzen dituzte.

Suedian, 2002. urtearen abuztuaz geroztik, gizarte-ongizatea xede duten irabazi asmorik gabeko elkarteek (Svenska Spel, ATG) baimena dute urruneko loteriak kudeatzeko lizentziak eskuratzeko; hau da, Internet, telebista digital eta esku-telefono bidezko loteriak kudeatzeko.

1995. urteko martxoaren 22an, Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak jakitera eman zuen ebazpenaren bidez, Elkarrri elkarteari “Ikusi Makusi” txartel-jokoaren kudeaketa esleitu zion. Erabaki horrek aukera eman zion Elkarri elkarteari jokoaren bidez finantzatzeko.

Berehalako txartel horiek ez zuten arrakasta handirik izan. Nahiz eta beste faktore batzuek ere eragina izan, erabakigarria izan zen txartelak zuen irabazi-tartea. Grafikoan ikusten denez, diru-sarreraren %10 soilik eskuratzen zuten enpresaburuek edo saltokietakoek. Bingo eta joko-aretoetako enpresaburuaren elkarteek txartel-joko horren porrota zergatik izan zen azaldu zutenean, adierazi zuten beren establezimenduetan txartelak saltzeari uko egin izanaren ondorio zela. Izan ere, haien ustez, aurrekontu jakina zuten bezeroek, txartel horiek erosiz gero, diru gutxiago izango zuketenean beste joko batzuetan jokatzeko.


Horrezaz gain, berehalako txartel horiek uzten zuten irabazi-tartea txikiagoa zenez, enpresaburuei etekin txikiagoa eragiten zieten.

Bestalde, badirudi esleipendun enpresa jokoaren sektorekoa ez izateak ere eragina izan zuela. Txartel horiek propio saltzeko saltokirik ez zegoenez, erabat besteren mende geratu zen txartelen salmenta. Bi egoera horien eraginez, Elkarrik ezin izan zuen en-

^[21] www.lokarri.org. Elkarrikasi, “Gizarte mugimenduak finantzatzea eztabaidagai”.

Bestalde, badirudi esleipendun enpresa jokoaren sektorekoa ez izateak ere eragina izan zuela. Txartel horiek propio saltzeko saltokirik ez zegoenez, erabat besteren mende geratu zen txartelen salmenta. Bi egoera horien eraginez, Elkarrik ezin izan zuen enpresaburuekin eta salgai jarri zitezkeen lekuetakoeekin (ostalaritza, bingoak, joko-aretoak...) hitzarmenik lortu.

IKUSIMAKUSIKO DIRU-BILKETA BANATZEA



1.7. Bingoaren kontzeptu berria

Beacon Bingo izenekoa Londresen ^[22]

Erresuma Batuan 650 bingo-areto eta bingo-jokoak dituzten 1.000 establezimendu baimendu (klubak, erakundeak eta elkarteak) inguru daude. 2007. urtean, egun eta pertsona bakoitzeko 16,90 libra gastatu ziren. **Bingoa da emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino arrakasta handiagoa duen ausazko joko bakarra Erresuma Batuan.**

Beacon Bingo izenekoa, Riva Bingo katearen bingoetako bat da, **handia delako eta zerbitzu asko eskaintzen dituelako da bereziki erakargarria**. 10 Beacon Bingo bingo-areto daude Ingalaterran barrena. Londresen dagoenak 2.700 lagunentzako lekua du. Bingo horrek, aretoan bertan bingo-jokoa eta aldibereko bingo-joko bat enpresa beraren beste bi aretotan edukitzeaz gain (Madrilen dagoenaren oso antzekoa), Erresuma Batuko bingo guztiekin beste bingo nazional batean jokatzeko aukera ematen du. Nacional Game izeneko modalitate hori egunean behin jokatzen da eta 50.000 eta 200.000 libra arteko sariak banatzen dira.

Bingo-mahaietan zenbaki-panel bat ere badago, beste areto batzuetakoekin konexioa dutela, eta Cash Bingo izeneko jokoa aritzen dira aldiari-aldiari (zenbakiak ahots gora esaten dira eta irabazlea nor den kameran bidez erakusten da). Apustuak libra bat balio du. Bingo-modalitate hori ezaguna

^[22] Cadena Riva Bingo; Euskadiko Bingo Elkarteak emandako informazioa.

^[23] Responsible Gambling, Gamcare.

da Erresuma Batuan, eta koloretako 4 zutabe erakusten dituen 4x4 neurriko pantaila baten bidez jokatzen da. Zenbakiak azkar esaten dira ahots gora eta jokalaria elkarren segidan 4 dituenean, edozein dela noranzkoa, 4 ertzak edo elkarren segidan diagonalean 4 dituenean, ahots gora ematen du jakitera.

Londreseko bingo horrek honako zerbitzu osagarri hauek eskaintzen ditu: 250 eta 500 libra bitarteko sariak ematen dituzten B motako 250 makina eta zerbitzu libreko jate txela bat aretoan bertan, bezeroek berek har ditzaten janari-edariak.

1.8. Joko arduratsuaren sustapena, hobetu beharreko esparrua

Joko arduratsua ^[23]

Pertsona batek egoerez kontziente dela eta jokoa daraman denbora eta gastatutako dirua kontrolpean dituela erabakiak hartzen dituenean, esan daiteke jokoa arduratsua dela. Arduratsu jokatzen duen jendeak alde aurretik erabakitzen du zenbat aldiz jokatuko duen, zenbat diru gastatu eta zenbat denbora emango duen jokoa eta noiz utziko dion jokatzeari. Zerbaitetan, arduratsu jokatzea izan daiteke ez jokatzeko erabakia hartzea.

Arduratsu jokatzen duen pertsonak ondo pasatzeko jokatzen du, eta ez dirua irabazteko edo arazoz ahazteko. Ez du dirua irabazteko jokatu behar, arazoi sinple honengatik: galtzeko aukera gehiago ditu irabazteko baino, jokoak horretarako diseinatuta baitaude. Jokalari arduratsuak jakin badaki epe luzera dirua irabazteko aukera gutxi dituela, ez da galdutako dirua berreskuratzen saiatzen eta ondo pasatzeko aukeratu duen diru-kopurua soilik jokatzen du. Ez du dirua maileguan eskatzen jokoa erabiltzeko, eta hipoteka, alokairua, fakturak eta janaria ordaintzeko jasotako dirua ere ez du erabiltzen. Jokalari arduratsuak ez ditu jokoa dela-eta familia eta lagunak baztertzen, eta ez die uko egiten normalean gozarazi egiten dioten jardueri.

Gehiegizko jokoa edo problematikoa

Jokoak pertsona baten bizitzan kalteak eragiten dituenean, arazoa dagoela esan nahi du. Lehendabiziko alarma-zantzia izaten da zerbait irabazitakoan euforiko jartzea pertsona hori (askotan, gehiago irabazteko gogoia izaten dute) eta galdutakoan asko deprimitzea. Ziklo hori abian jartzen da, normalean, jokalaria galdutakoa berreskuratzen hasten denean.

Jokalariaren inguruan dagoen jendeak ere sumatu ditzake al-daketak jokoarekiko arazoa izaten hasten denean. Umore-al-daketak, dirua gero eta maizago eskatzea edota gizartetik baztertu nahi izatea izan daitezke joko problematikoaren zantzuak.

Joko arduragabe eta problematikoaren beste ohiko zantzu batzuk dira:

- Gero eta zor eta mailegu gehiago izatea.
- Gero eta denbora luzeago ematea familiatik aldentuta eta ohiko jarduerak, gustuko jarduerak... egin gabe.
- Ondasunak salgai jartzea.
- Delituzko ekintzak egiten hastea.

Portaerako zantzuak izateaz gain, zenbait sintoma fisikok ere agerian utz dezakete joko problematikoa dela; esaterako, ondokoak:

- Motibazio eza.
- Arreta jartzea gero eta nekezago izatea.
- Argaltzea.
- Loezina.
- Gehiegizko poza edo ezohiko oldarkortasuna erakustea.
- Depresioa eta antsietatea izatea.

Joko-enpresak gizartean daude eta, hortaz, kontuan izan behar dituzte ingurunean eragin ditzaketan ondorioak. Enpresa-etikaren inguruko baldintza izateaz gain, **joko arduratsua sustatzea bezeroei eskaintzen zaien zerbitzua kalitate onekoa delako seinale ere bada**. Horren haritik, Erantzukizun Sozial Korporatiboa (ESK) izan behar da kontuan. Eredu horren bidez, enpresek lagundu egin behar dute, gogotsu eta hala nahi dutelako, lan egiten duten gizartea hobetzen. ESK eredia legeak eta arauak betetzea baino zerbait gehiago da, eta normalizat hartu behar da horiek errespetatzea eta zorrotz betetzea. Joko-enpresen bikaintasuna, halaber, joko arduratsua sustatze aldera gauzatzeko ekintzen arabera neurtu behar da. Produktua kalitatezkoa izateko, gainera, bezeroak neurritz kanpoko jokotik babesteko mekanismoak garatu eta ezarri behar dituzte enpresek.

Euskadiko enpresek badute zer hobetu, joko arduratsuari dagokionez. Apustu-etxeak dituzten hiru enpresa daude, eta horietako bakar batek adierazten du berariaz web-orrian joko arduratsua sustatzeko konpromisoa hartu duela bere gain. Kasinok, bestalde, badituzte web-orriak, baina ez dute joko arduratsuari buruzko aipamenik egiten, ez eta joko- eta aisia-

zerbitzu osasungarria eskaintzeko konpromisoa beren gain hartu dutenik ere. Joko arduratsu eta osasuntsuari buruzko lelorik ere ez dago agerian Euskadiko establezimendu bakar batean ere.

Erresuma Batua, joko-mota asko eskaintzen dituelako nabarmentzeaz gain, joko arduratsua inguruko jardunbide onenak sustatze aldera bertako enpresak lan handia egiten dutelako ere nabarmentzen da. Jarraian erantsi dugun sinboloa Erresuma Batuko zenbait web-orritan erabiltzen dute, eta horren bidez ohartarazi nahi dute joko kontrolpean edukiz gero soilik dela joko. Kasino-kate britainiar ezagun baten web-orrian, logotipo horietan klikatuz gero, jokoaren inguruko laguntza eta aholkuak ematen dituzten elkarten zerrenda agertzen da. Logotipo ^[24] hori Erresuma Batuko bigarren joko-enpresa handienarena da, kasino-kopuruari dagokionez.



Euskadiko joko-sektorearen inguruko enpresek badute aukera zerbitzu hobek eta, hortaz, eskaintza hobek egiteko, Erantzukizun Sozial Korporatiboaren bidez. Merezi du ondoko nabarmentzea: joko arduratsua sustatzeak enpresaburuei eragiten dizkieten onurak, egindako ahaleginak baino handiagoak dira. Joko arduratsua sustatzeak esan nahi du jokoaren sektoreak irautearen aldeko apustua egin dela eta sektorearen irudia hobetzeko ere baliagarria da. Enpresaburuei komeni zaie gehien bezeroak problematiko ez bihurtzea eta jokoaren albo-ondorioek ez eragitea gizartean sektorearekiko gaitzespena.

Joko arduratsua eta enpresa-errentagarritasuna bateragarriak dira, sektoreak irautearen alde eta haren irudia hobetzearen alde egitea da. Horregatik guztiagatik, Europar Batasuneko herrialdeetan abian jarritako zenbait jardunbide onen azalduko ditugu; horietatik gehienak Erresuma Batukoak dira.

Hona hemen Erresuma Batuko kasinok bete behar duten araua: joko arduratsuari buruzko posterrak eta liburuxkak jarri behar dituzte, bai eta arazorik izanez gero laguntzeko dauden elkarteei buruzko informazioa ere. Zenbait kasinotan, norberaren kabuz online bidez nork bere burua kanpoan uzteko aukera ere eskaintzen dute; esate baterako, Stanley Leisure

^[24] Rank Group Plc. www.rank.com/businesses.

operadorearen kasinoetan. Horrezaz gain, langileak trebatuta daude arazoak dituzten jokalariai hautemateko eta horie eskuragarri dagoen laguntza eskaintzeko.

Bingoetan ere badituzte jokalariei laguntzeko liburuxkak eta arazoak dituztenei laguntzeko langile trebatuak.

Zenbait online operadorek ere joko arduratsua sustatzearen alde egiten dute. Horren inguruan aurrerapen handien egin duen enpresetako bat da Betfair izenekoa, adin txikikoak hautemateko eta diru-zuriketa eragozteko mekanismo berri-tzaileak ezarri baititu. Besteak beste, neurri hauek ezarri dituzte: nortasuna egiaztatzeko neurria; dirua sartzeko eta ateratzeko kontu berbera erabiltzera behartzeko bezeroa; eta, halaber, nork bere buruari mugak jartzeko mekanismoak ezarri dituzte, jokalaria-elkarteekin harremanetan jartzera behartzeko jokalaria eta, hartara, bere buruari debekuak jartzeko beharrik izan ez dezan.

Bwin izenekoak ere badu web-orrian joko arduratsuari buruzko atal bat eta, horrezaz gain, galdetegi bat ere eskaintzen du, jokalariai unean bertan jakin dezan jokoarekiko arazoak baduen edo ez.

Erresuma Batuko ostalaritza-establezimenduetan makinak dituzten enpresaburuak ere bat egin dute joko arduratsuen aldeko kanpainarekin. Ondoko neurria ezarri dute enpresaburu horiek: makinetan **pegatinak** jarri dituzte **jakinarazteko 18 urte baino gazteagoek debekatuta dutela horiek erabiltzea eta, halaber, jokalariai laguntzeko elkarte bati buruzko informazioa ematen dute.** Neurri hori ezartzeak oso gastu txikia eragiten die enpresaburuari eta, bestalde, ez die kalte ekonomikorik eragiten. Azken batean, jokoak kalte handiak eragiten dien pertsona-kopuru txikiari laguntza bilatzen laguntzen diete. Makina-mota horrekiko irudia hobetzeko modua ere bada, pegatina erakargarri bat jartzeak enpresaburuak berak kontzientziatuta daudela erakusten baitu. Pegatinak berak erakusten du ekimena Gamcare erakundeak (joko problematikoren aurkako borroka egiten duen elkarte britainiarra) eta Bacta izeneko enpresaburu-elkarteak babesten dutela.

ERRESUMA BATUKO B MOTAKO MAKINEN PEGATINAK



Alemanian ere ezarri dute neurri hori. Herrialde horretan erabili duten pegatinak bi gauza ematen ditu jakitera: batetik, 18 urte baino gazteagoek debekatuta dutela erabiltzea; eta, bestetik, jokalariai gogorarazten diote ausazko jokoak ez direla norberaren arazoak ahazteko modua. Halaber, telefono-zenbaki bat dute agerian, arazoak dituen jokalariai laguntza eskatzeko dei dezan.

ALEMANIAKO B MOTAKO MAKINEN PEGATINAK



Euskadin ere derrigorrezkoa da B motako makinek pegatina edukitzea, jokatu ahal izateko gutxieneko adina

	Herialdea ^[25]	Jokoaren mendekotasuna duten pertsonen laguntzeko elkarten esteka	Iruzurri erreferentzia edo lotura
AUSTRIA	Ministry of Finance	?	Ez
BÉLGICA	Gaming Commission. Metrology División, Ministry of Economics	?	Ez
FINLANDIA	Ministry of the Interior	Ez	Ez
FRANTZIA	Ministry of the Interior	Ez	Ez
HUNGARIA	Tax and Financial Control Administration	Ez	Bai
IRLANDA	Department of Justice	Ez	Ez
ITALIA	Autonomous Administration of State Monopolies	Ez	Ez
LETONIA	Lotteries and Gambling Supervisory Inspection	Ez	Bai
MALTA	Lotteries and Gaming Authority	SI	Bai
HOLANDA	Gaming Control Board Ministry of Justice	SI SI	Bai Bai
NORUEGIA	Gaming and Foundation Authority Ministry of Culture and Church Affairs	SI Ez	Bai Bai
PORTUGAL	Inspectorate General on Gaming	Ez	Bai
ESPAINIA	National Gaming Commission	Ez	Ez
SUEDIA	National Gaming Board	Ez	Ez
ERRESUMA BATUA	Department for Culture, Media and Sport Gambling Commission National Lottery Commission Isle of Man Government Aldemey Gambling Control Commission States of Jersey Gambling Control Gibraltar Regulatory Authority	Ez Bai Bai Bai Bai Ez Ez	Ez Bai Bai Bai Bai Ez Bai
EUSKADI		Ez	Ez

^[25] Europako arautzaile nagusien web orriak aztertzeak landuta.

2. Europako legeriak

2.1. Sarrera

Euskadin jokia arautzen duen esparru juridikoari buruz egindako diagnosiaren jarraipena dugu ondoko atala. Egungo legegintza-joerei buruzko irudi globala eskaintzea du xede esku artean duzun txostenak, Espainiako legeriarena zein nazioartean daudenena. Horretarako, estatuen edo arautzeko eskumena dutenen hainbat legegintza-jarrera aztertu ditugu.

Azterketa honetan, gehiago erreparatu diegu Espainiako autonomia-erkidegoetako araudiei, batez ere, zergen inguruko arauen analisia egiteko; izan ere, araugintza-sistema berekoak dira erkidegoetakoak eta Euskadikoa, eduki-aruari dagokionez.

Halaber, sakon aztertuko ditugu Europar Batasuneko estatu kideetako araudien ezaugarri esanguratsuenak eta definitzaileenak ere. Izan ere, estatu kide guztiak eta, jakina, Espainia, Erkidegoko Zuzenbidearen printzipio gidarien pean daude, eta EEln adierazten diren balioak, politikak eta printzipio programatikoak errespetatzen dituzte guztiak.

Gauzak hala, erkidegoko erakundeek ez dute estatu kideen legeriak harmonizatze eskumena baina badute eskumena, ordea, behar adina neurri hartzeko, estatu kideek Tratatuaren printzipioak eta helburuak bete ditzaten; hortaz, jokoaren inguruan dauden araudiak nahiko uniformeak direla hauteman dugu.

Azkenik, EBkoak ez diren estatuen arau-esparruek beren baitan biltzen dituzten oso elementu edo joera bereziak aztertuko ditugu. Hartara, jokoaren alorrean nazioartean dauden legegintza-joerak osatuko ditugu.

2.2. Araudien joerak

Nazioartean jokia erregulatzen duten arau-esparruak erabat desberdinak eta anitzak dira; are gehiago, esan daiteke askotan antagonikoak direla. Hainbat legegintza-joera daude eta, horiek uniformeak ez izateaz gain, oso desberdinak dira jokoaren eremuko arau-esparruaren elementu

definitzaile bakoitzaren erregulazioari dagokionez. Gauzak hala, zenbait estatuk, jokoari buruzko politikak aintzat hartuta, joera bat dute zenbait alderditan, eta oso bestelakoa beste batzuetan.

Estatu bakoitzak (atal honi dagokionez, gaiaren inguruan legeak egiteko eskumena duten administrazioek ere bai; esate baterako, Espainiako estatuko autonomia-erkidegoek edo Alemaniako Landers izenekoak) bere arau-esparrua osatu du, eta oso berezia da horiek beren baitan hartzen dituzten elementuen erregulazioa, gaiaren inguruan estatu horietako bakoitzak ezarritako politikaren arabera. Horrenbestez, jokoaren sektoreari dagokionez, nazioarteko egungo joera ez da uniforme. Hori hala izanik, arau-esparruaren elementu eta ezaugarri garrantzitsuenak eta definitzaileenak kontuan hartuta aztertu dugu atal honi dagokion gaia, eta horietako bakoitzean nazioartean dauden jarrera eta joera nagusiak azalduko ditugu.

Hain zuzen ere, ondoko elementu hauek kontuan hartuta aztertu ditugu joerak:

- Ezarpen-eremua: baimenduta dauden joko-motak.
- Baimen-araubidea eta -prozedura.
- Publizitate-araubidea.
- Zehapen-araubidea.
- Zerga-araubidea.
- Online jokoaren araudia.

2.2.1. Ezarpen-eremua: baimenduta dauden joko-motak

Zilegi diren edo baimenduta dauden joko-motei dagokionez, alde handiak daude estatuen artean. Dena dela, erabat uniformeak ez badira ere, legeriak bi joera handitan bereiz daitezke:

- a) Joera liberala, muga askorik gabe joko-zerrenda zabala eskaintzeko joera duena.
- b) Joera murriztailea, joko-jardueraren inguruan debeku orokorra abiapuntu hartuta, muga asko jarrita joko-jarduera guztiak edo batzuk baimentzen dituena.

A) Joera liberala

Oso desberdinak diren bi printzipio programatikoen ezinbesteko uztarketa du abiapuntu joera liberalak. Batetik, jokia hasieran jarduera erabat legekoa dela dioena; eta bestetik, erabiltzaileentzako ondorio kaltegarriak izan ditzakeenez, hura kontrolatzea guztiz beharrezkoa dela dioena.

Bi printzipio horiek uztartzearen ondorioz, baimendutako jokosortak behar bezain luzea, erakargarria eta kalitatezkoa izan behar du, eta joko guztiek kontrol zorrotza izan behar dute. Izan ere, gizarteak eskatzen duena eskaini behar da, eskarari aurre egin behar zaio, erabiltzaileek legez kontrako jokoak erabil ez ditzaten, horiek ez baitaude kontrolpean eta halakotan iruzur egitea errazagoa baita. Halako joerakoak dira, batik bat, Erresuma Batua eta Espainiako estatuko autonomia-erkidegoak.

Erresuma Batua

Araudi britainiarrak, Ipar Irlandakoak izan ezik, jokia legekoa dela hartzen du abiapuntutzat. Joko-mota asko ditu baimenduta; esate baterako, ausazko jokoak, kasinoa, bingoa, apustuak, loteriak, makinak (makina-mota ugari, A motakoak zein D motakoak, besteak beste) etab. Horrez gain, eta aurrerago azalduko dugun moduan, lokal fisikoetan zein euskarri eta bitarteko informatikoak edo interaktiboak erabilita jokatzera ere baimentzen du. Bestalde, eskaintzari edo sariei dagokienez, ez dago mugarik edo oso muga txikiak dituzte. Esate baterako, apustu-etxe baimenduak kopuruari dagokienez, ez dago inongo mugarik (700 baino gehiago daude). Beste joko batzuek badute muga, baina sinbolikoa da kasik; kasinoak dira horren adibide, 140 kasino baimendu baino gehiago baitaude Ingalaterran, Galesen eta Eskozian barrena.

Irizpide berbera erabiltzen dute sarien mugen inguruan; esate baterako, apustu-etxeetan eta A motako makinetan ez dago inongo mugarik, ez partidaren prezioari ezta sariaren zenbatekoari dagokienez ere. Hala, muga-motaren bat jarrita ere —bingoen kasuan, esaterako—, legea malgua da eta lizentzia duenari berari ematen dio eskumena sariei mugak jartzeko, halakorik egin nahi izanez gero.

Halaber, joko-eskaintzari eta aretoei dagokienez, *Gambling Act 2005* legeak baimena ematen du *Family Entertainment Center* izenekoak instalatzeko, hau da, adin txikiko seme-alabak dituzten familientzako bereziki egokitutako joko-

aretoak instalatzeko. Areto horietan jokorako makinak jar daitezke, baina beste mota batekoak.

Halako joera dute, halaber, legeak egiteko eskumena duten ondoko uharte britainiarretako araudiek: *Alderney*, *Guernsey*, *Curaçao* eta *Isle of Man*.

Espainiako estatuko autonomia-erkidegoak

Erresuma Batuko araudiaren ildo berekoak dira, politika murriztaileagoa badute ere, autonomia-erkidego gehienetako araudiak. Horiek jokia legeko jarduera delako printzipio orokorra dute abiapuntu. Baina profesionaltasun-maila jakin bat lortzen dutenean, irabazi-asmoa dutenean kudeaketan eta apustuetan muga ekonomiko jakinak gainditzen direnean, aurretiazko baimena izan behar da joko-jarduerak ustiatzeko, eta jardueretik kontrol zorrotza ezartzen da.

Oro har, baimena behar duten jokoak Jokoen Katalogoan zehaztuta daude ^[1], joko-mota ugari biltzen ditu eta jokozerranda bat dator gizarteak eskatzen duenarekin. Joko-aurkera handia bada ere (apustuen kasuan izan ezik), autonomia-erkidegoetako araudiak muga zorrotzak ezartzen dituzte. Batetik, eskaintzari dagokienez, bereziki kasinoen alorrean, autonomia-erkidego bakoitzeko bakarra instalatu baitaiteke. Eta bestetik, sariei dagokienez; esate baterako, jokorako makina guztietan eta bingoan partida bakoitzeko eskura daitekeen zenbatekoa mugatuta dago.

B) Joera murriztailea

Joera liberaleko estatuek eta legeak egiteko eskumena dutenek ez bezala, aztertzen ari garen joerakoek, baimendutako joko-motei dagokienez, joko-jarduerak debekatu egiten dituzte, legearen kontratatzat hartzen baitituzte. Printzipio hori abiapuntu izanik, jarduera jakin batzuk legearen bidez soilik baimendu daitezke eta egoera berezietan. Irizpide horren aldekoak dira EBko estatu kide asko; esaterako, Austria, Belgika, Danimarka, Finlandia, Frantzia, Alemania, Grezia, Irlanda, Luxemburg, Holanda eta Eslovakia.

Estatu-zerrenda horri beste estatu batzuk erantsi behar zaizkio, debeku orokorra ezartzen ez dutenak, baina osasunerako kaltegarriak direlako joko-jarduera asko legez kanpo utzi edo izugarri mugatzen dituztenak. Estatu horien artean, nabarmentzeko modukoak dira Zipre eta Portugal; Maltak bertako herritarrentzako soilik ezartzen du muga eta ez a-

^[1] Murtzia eskualdeko Joko eta Apustuak arautzen dituen martxoaren 15eko 2/1995 Legearen 5. artikulua: "Murtzia eskualdeko Joko eta Apustuen Katalogoan ez dauden joko eta apustuak debekatutzat hartuko dira".

tzerritarrentzako, estatu horretan turismoak indar handia duelako, batez ere.

Joera murriztaile horren barruan, jokoak dituen aukera anitzak kontuan hartuta, estatu bakoitzak bere modalitateak ezarri ditu, eta horiek bi azpieroeratan laburbildu daitezke:

- Joko-mota asko eskaintzen dituen, baina eskaintza eta sariak asko mugatzen dituen, bai eta ustiapen-sarrerak helburu jakinetarako mugatzen dituen ere (Danimarka, Holanda eta Finlandia).
- Joko-mota baimenduak eta eskaintza izugarri mugatu nahi duena (Ipar Irlanda, Belgika, Frantzia).

Joko-mota ugari

Halako joerakoak dira Danimarka eta Holanda. Estatu horiek joko-jarduerak debekatuta daudela hartzen dute oinarri, baldin eta legeak berariaz baimentzen ez baditu. Nolanahi ere, praktikan, eskatutako joko-jarduera gehienak gartzeko baimena ematen du araudiak, baldin eta kalitatez eta nahikoa erakargarritasunez eskaintzen badira, herritarrek legez kontrako jokoetara jo ez dezaten. Jokalariak irabazteko aukerarik ez duela egiaztatuta duten jarduerak soilik debekatzen dituzte (esate baterako, Holandan, *piramyd schemes* izenekoa)^[2].

Eredu hori aplikatzen duten estatuetan, baimenduta dauden joko-jarduerak kontrolpean edo mugatuta daude eta estatuak esku hartzen du; horretarako, besteak beste, neurri hauek ezartzen dituzte:

- Eskaintza mugatzen dute; hau da, zabal daitezkeen gehieneko establezimendu-kopurua mugatzen dute eta oso gutxi baimentzen dituzte. Esaterako, Danimarkan zortzi kasino bakarrik instala daitezke.
- Apustuen prezioak eta sarien zenbatekoak mugatzen dituzte. Esaterako, Holandan, loteriak ustiatzen dituztenek, gehienez, 4.500.000 euroko sariak emateko baimena dute. Bingo-jokoan, berriz, joko bakoitzeko 350,00 euro eta saio bakoitzeko 1.400,00 euro eman daitezke gehienez.
- Erakunde publikoei, estatuak kontrolpean dituen elkartei eta bestelako elkarte gutxi batzuei baino ez diete lizentzia ematen; hortaz, monopolioak edo oligopolioak eratzen dira

eta, zenbaitetan, estatuarenak berarenak. Halaber, bingo-jokoari dagokionez, Holandan, Austrian eta Danimarkan, irabazi-asmorik ez duten erakundeei soilik eman diezaizkete baimena estatuak.

- Ustiapenak eragindako etekinaren zati bat edo, zenbaitetan, oso-osorik emateko betebeharrak ezartzen dute; hau da, karitatezko jardueretarako edo irabazi-asmorik gabeko jardueretarako (Holanda) edo estatuari berari (Danimarka) eman behar diote.

Bada salbuespenik sistema horretan; Holandan, makina-mota asko baimentzen ditu jokorako makinei buruzko araudiak, baina homologazio-araubide aitzindari^[3] baten bidez kontrolatzen dituzte. Horrezaz gain, negozioari ez zaizkio muga zorrotzak ezarri, eskaintzari dagokionez, baimen-onoradunei dagokienez (gainerako negozioek ez bezalako sistema ezartzen zaie baimen horiei) eta irabazien erabilerrari dagokionez.

Halako joera dutenen artean, zuhurtzia handiz, Alemania ere aipa dezakegu. Izan ere, joko-jarduerak oro har debekatzea du abiapuntu, baina joko-mota dezente eta egungo egoerara egokitutakoak baimentzen ditu, muga handiak ezarrita eskaintzari, sarbideari eta sarien zenbatekoari.

Joko-motak mugatuta

Joera murriztaileena da, estatuak baimentzen dituen joko-jardueren sortari dagokionez. Lehen ere adierazi dugunez, joera honek, kasurik gehienetan, printzipio hau du abiapuntu: joko debekatuta dagoen jarduera da legearen aurkakoa delako; beste kasu batzuetan, zenbait joko legekotzat hartzen dituzte eta beste batzuk berariaz debekatzen dituzte.

Kasu guztietan, estatuak neurri murriztaileak eta kontrolneurriak jartzen dituzte, ondasun juridikoak babestea beharrezkoa delako; esate baterako, osasun publikoa edo giza duintasuna babesteko. Azken horri dagokienez, Frantziako jurisprudentziak *gizakiak jokorako joera du halaberrez* izendatu du.

Joera honen alde daudenen artean, **Irlanda** da buru; jokoak, printzipioz, debekatuta dago, eta *Gaming and Lotteries Act* 1956. urteko legeak eta *National Lotteries Act* 1986. urteko legeak ezartzen dutenaren arabera, joko hauek soilik daude baimenduta: tradizio handia duten apustu hipikoak, galgo-lasterketak eta loteria-motaren bat. Azken horri dagokionez,

^[2] Bereko izaeragatik, joko mota hauetan jokalarientzat ezinikoa izaten da onurarik lortzea, beraz beti galtzen du.

^[3] Estatuak laborategi berezia sortu du fabrikatutako makina guztiak frogatzeko eginkizuna duena, Holandako araudian ezarritako betekizun berezietara egokitzen direla ziurtatzeko.

funtsean, Irlandako estatuak berak kudeatzen du monopolioz, eta lortutako irabaziak oso-osorik bideratu behar dira kultura-, kirol- eta arte-jardueretara edo osasun publikoa babestera.

Hain zuzen ere, Irlandako sistemari dagokionez, joko-jarduerak debekatzeko araubidea honela laburbil daiteke:

- Kasino-jokoak debekatuta daude.
- Jokorako makinak, oro har, debekatuta daude; hala ere, egoera berezietan, festetan, azoketan eta halakoetan, zenbait jokorako makina jar daitezke aldi baterako.
- Ausazko konbinazio edo sustapen-jokoei dagokionez, erabiltzen duten joko-sistemaren arabera eman du ebazpena Irlandako Auzitegiak; hau da, zenbaitetan, legezko loteriatzat hartu du eta, beste batzuetan, debekatutako jokotzat eta, beraz, legearen kontrakotzat.

Beste estatu batzuk ere oso joera murriztailekoak dira baimendutako joko-moten inguruan, baina ez Irlanda bezain beste. Horien artean, **Portugal** da nabarmenena; jokia legezkoztat jotzen du, baina joko-jarduera asko debekatzen ditu eta beste batzuen garapena asko mugatzen du. Gauzak hala, jarduerak debekatzeko araubidea edo Portugaleko estatuaren esku hartzea honela laburbil daiteke:

- Jokorako makinak debekatuta daude kasinoetatik kanpo.
- Apustu hipikoak soilik dira legezkoak, kirol-ekitaldi, ekitaldi sozial eta mota guztietako ekitaldien inguruko apustuak ere debekatuta daude.
- Kasino-jokoak debekatuta daude estatuaren zenbait zonaldetan, leku jakinetan instalatzea soilik dago baimenduta, batez ere, leku turistikoetan; esate baterako, Azore uharteak, Algarve, Madeira eta Estorilen.
- Monopolio-araubidez kudeatzen dira loteriak; hain zuzen, diru-sarrerak ongintzazko helburuetarako erabiltzen dituen eta irabazi-asmorik ez duen erakunde batek.

Azkenik, araubide horren barruan sartzen dira atalaren hasieran aipatu ditugun beste estatuak. Joko-jarduerak legez kontrakotzat hartzen dituzte estatu horiek baina, gerora eta muga zorrotzak ezarri ostean, joko-mota asko baimentzen dituzte. Horrenbestez, aztertu ditugun bi joeren artean kokatuko

ditugu. Talde honetakoak dira, besteak beste, Frantzia eta Belgika; bi estatu horiei dagokionez, alderdi hauek dira nabarmentzeko modukoak:

- **Belgika.** Jokorako kasinoak eremu jakinetan soilik baimentzen dira. Debekatuta daude kasinoetatik kanpo dauden jokorako makinak eta kirol-ekitaldien ingurukoak ez diren apustuak.
- **Frantzia.** Debekatuta daude kasinoetatik kanpo dauden jokorako makinak eta kirol-ekitaldien ingurukoak ez diren apustuak, bai eta apustu-arteakien bidez egiten diren apustu guztiak ere. Kasinoei dagokionez, oso gutxi instala daitezke eta turismo aldetik garrantzia duten leku jakinetan.

2.2.2. Baimen-araubidea eta -prozedura

Joko-jarduerak, aretoak, makinak eta abar ustiatzeko baimen-araubideak estatuz estatu sakon aztertzea zaila izango litzateke, administrazio-zuzenbidearen egitura estatuz estatu sakon aztertzea bezain zaila. Hala aztertu nahi izateak, halaber, txosten honek dituen helburu eta xedeetatik desbideratzea eragingo luke eta, azken finean, jokoaren alorrean egun dauden legegintza-joeren irudi orokorra eskaintzea baino ez da helburua.

Horrenbestez, estatuak ematen dituzten baimenei buruzko alderdi tekniko hutsen balorazioa alde batera utzita, joerak aztertuko ditugu, bi ikuspegi hauek aintzat hartuta:

- a) Estatuaren protekzionismoa
- b) Baimena duen operadorearen izaera juridikoa

A) Estatuaren protekzionismoa

Irizpide hori oinarri hartuta, aplikatzen diren araubideak bi joera hauetan bereizten dira:

- Irekitasunaren aldeko joera
- Protekzionismoaren aldeko joera

Irekitasunaren aldeko joera

Irekitasunaren aldekotzat jo dugun joerak printzipio hau du oinarri: arauak ezarritako baldintzak betetzen dituzten operadore guztiek dute aukera, baldintza berberetan, joko-jarduerak

ustiatzeko baimena eskuratzeko. Joera horren adibide argiena, zalantzarik gabe, **Erresuma Batua** da. Operadoreei dagokienez, ez dute inongo mugarik ezartzen; hortaz, baldintza jakin batzuk betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiak eskura dezakete baimena, kopuru-mugarik gabe, joko-jarduerak ustiatzeko, beti ere araudiak ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta *Gambling Commission* izenekoak jarduera horiek kudeatzeko gai direla irizten badio.

Dena dela, 2005eko *Gambling Act* Legearen 23. artikulua arabera, lizentziak emateko kontuan hartuko diren irizpideak ezartzeko betebeharra du Batzordeak. Hala, batzordeak jakinarazi du kontuan hartuko duen irizpideetako bat izango dela egoitzaren bat lurralde britainiarren ezartzea, administrazioarekiko harremanak errazte aldera. Nolanahi ere, hori irizpide bat izango da, eta ez ezinbesteko baldintza; beraz, fisikoki establezimendurik ez duten operadoreek joko-jarduerak ustiatu ahal izango dituzte.

Urruneko komunikabideak erabilia joko-jarduerak gauzatzeko lizentziei dagokienez (esate baterako, online jokoa), *Gambling Act* legearen 89.2 artikulua arabera, ezinbesteko baldintza da jarduera hori ustiatzeko erabiltzen diren tresna informatiboak fisikoki lurralde britainiarrean egotea.

Dena dela, *Gambling Act* legeak berak, eta 89. artikulua berak, aukera ematen du batzordeak betebehara bertan behera utz dezan; beraz, praktikan, horren eraginez, *zerrenda zurian* (ingelesez, *white list*), aipatzen diren estatuetako operadore guztiak eskaini ditzakete online joko-zerbitzuak, tresna informatiboak lurralde britainiarrean eduki gabe ^[4].

Azkenik, Erresuma Batua baimenen alorrean nabarmendu egiten da, lizentzia konbinatuak emateko aukera ematen baitu. Hau da, lizentzia horien bidez ustia ditzake onuradun bakar batek baimenduta dauden joko-jarduera guztiak edo batzuk.

Erresuma Batua oso antzekoak dira Espainiako **autonomia-erkidegoak**. Negozio-motaren arabera, edozein estatutako edo EBko edozein estatutako pertsona fisiko edo juridiko orok (esate baterako, apustuak Euskadin eta Madrileko Erkidegoan) eskura dezake baimen arautua edo, halakorik balego, lehiaketa publikoan parte hartu ahal izango du, gainerako lizitzaileen baldintza berberetan.

Araubide britainiarrekin alderatuz gero, alde nabarmenenak, oro har, baldintza hauen ingurukoak dira:

- Egoitza soziala autonomia-erkidego horretan izan behar du, administrazioarekiko harremanak errazte aldera. Madrilen kasuan, halaber, egoitza fiskala Madrileko lurraldean ezartzeko betebeharra xedatzen du, apustuak ustiatzeko baimena eskuratu ahal izateko.
- Ezinbestekoa da autonomia-erkidegoko Jokoaren Erregistro Nagusian izena ematea.

Baldintza horiek ezarri izanak, nolabait ere, beste estatu batzuetako herritarrei eta pertsona fisikoei baimenak eskuratzeko nekezago izatea eragin badezakete ere; hau da baldintza horiek jarri izanaren arrazoiak: joko-jardueren inguruan kontrol handiagoa ezartzea, batik bat, erabiltzaileen babesa bermatzeko.

Protektionismoaren aldeko joera

Jokoaren alorrean politika murriztaileak dituzten herrialde gehienak dira joera horren aldekoak. Hona hemen joera horren muina edo oinarria: estatuek bere kontrolpean dituzten operadoreei soilik ematen dizkiete joko-ustiapeneko baimenak. EBn zerbitzuak aske emateko politika urra ez dadin, halako arau-motak erkidegoko araudira egokitzea da protagonismo handien izan duen gaia azken urteotan, jokoaren alorrean, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegian ^[5].

Gehienetan, EEIren 39. artikulua ematen dien ahalmenari heltzen diote estatuek; izan ere, artikulua horretan ezarritakoaren arabera, zerbitzuak aske emateko printzipioaren inguruan mugapenak ezartzeko eskumena dute estatuek, ondasun juridiko gorenak babestea oinarri hartuta ^[6].

Protektionismoaren aldeko joera horren barruan, hiru ildo bereiz daitezke argi eta garbi: lehendabiziko biak protektionismoaren aldeko joerakoak dira eta, zenbaitetan, estatu berean batera aplikatzen dira, baina jarduera edo negozio desberdinetarako; hirugarrena berritzaileagoa eta askoz ere zehatzagoa da, eta jokoaren alorrean esku hartzearen edo politika murriztaileak ezartzearen alde ez dauden zenbait estatu dira horren aldekoak.

Kapital publiko edo pribatuko operadore nazionalak

Joera hori, zenbaitetan, berriaz ezartzen da jokoaren alorreko xedapenetan. Beste batzuetan, berriz, *de facto* aplikatzen dute estatuek oso arau murriztaileen babespean, joko-jardueren

^[4] Araudi britainiarrean ezarritako kontrol-protokoloak eta -sistemak betetzen dituzten Estatuaren zerrenda. Zerrenda Zuria sortu zen publikitate irizpideen arabera, izan ere EBkoak ez diren operadoreen publikitatea debekatuta dago Erresuma Batuan eta Zerrenda Zuriak horietatik zehazten zituen.

^[5] *Vid.* Epai Cattabriga, (STJCE 13/09/07), Epai Plakanikoa, (STJCE 06/03/07) edo epai Gambelli, (STJCE 06/11/03).

^[6] EBren 5. artikulua: "*Ordena publikoa, segurtasun publikoa eta osasun publikoa arrazoi direla jarritako mugapenen kontra joan gabe, langileen zirkulazio askeak eskubide hauek dakartza...*".

kudeaketa operadore nazionalen esku gera dadin bultzatze aldera. Joera horrek joko-jarduerak operadore nazionalak soilik kudeatzea eta ustiatzea eragiten du.

Hona hemen joera horren eredu garbienak:

Holanda. Operadore nazionalen monopolioa edo oligopolioa de facto.

Holandako legediak, joko-jarduerak ustiatzeko baimenak emateko, ez ditu interesa duen enpresaren nazionalitatearen arabera ezartzen mugapenak. Dena dela, kasurik gehienetan, Holandako araudiak baimenak konpainia bakar bati eta zenbait baldintza oso murriztaile betetzen dituenari ematera mugatzen du. Hala, azkenean, monopolioa sortzen da, zenbaitetan, estatuak parte duen edo erabat kontrolatzen duen elkarteren batek gauzatzen duela, eta, beste batzuetan kapital pribatua eta Holandako nazionalitatea duen elkarte batek gauzatzen duela.

Hori gertatzen da, esate baterako, kasinoekin; izan ere, Holandan hamalau kasino baimendu daude, eta horiek kudeatzeko lizentzia bakarra Holandako nazionalitatea duen konpainia batek du: *Holland Casino* izenekoak.

Danimarkako eredia Holandako ereduaren oso antzekoa da loterien eta apustuen alorrean. Egoitza soziala Danimarkan duten kapital pribatuko elkarteek edo irabazi-asmorik gabeko erakundeek soilik ustia ditzakete (esate baterako, *Dansk Tipstjeneste* izenekoak du monopolioa).

Austria. Monopolio publikoa, baimenak enpresa nazionalen emanda.

Joko-jarduera gehienetarako Austriak ezarritako araubidearen oinarria hau da: estatua da joko-jarduerak kudeatzeko eta ustiatzeko eskumena duen entitate bakarra. Estatuak, lehiaketa publiko bidez, lizentzia-kopuru mugatua eman diezaiekete operadore pribatuei eta, horiek, ezinbestez izan behar dute Austriako lurraldean eratu diren eta egoitza soziala bertan duten elkarte anonimoak. Eredu horren adibide da BWIN izenekoak, Internet bidezko apustuetako operadorea; Austrian eratu zen eta Austrian aritzeko lizentzia du, Vienan egoitza soziala duen filialaren bidez.

Sistema hori eta beste zenbait herrialdetan *de facto* dutena oso antzekoak dira: esate baterako, Alemaniako zenbait *Landers* izenekoak, Italiak eta Frantziako kasinoek. Herrialde ho-

rietako araudiek ezarritakoaren arabera, estatuak berak ustiatu behar ditu joko-jarduerak, kapital pribatuko operadoreei, lehiaketa publiko bidez, lizentziak edo baimenak emateko eskumena dutela; halakoetan, gehienetan, operadore nazionalak izaten dira, lehiaketetako oinarrietan baldintza murriztaileak ezartzen dituztelako.

Izaera publikoko operadore nazionalak

Jokoaren alorrean politika murriztailea duten estatuak dira irizpide horren aldekoak. Zuzenean lege-xedapenak ezartzen dituzte, joko-jarduerak bakar-bakarrik estatuak kudea ditzan edo estatuko elkarteren batek kudea ditzan, hau da, izaera publikoko operadore nazionalen batek.

Frantzia. Française des Jeux – Pari Mutuel Urbain.

Frantzian, baimenduta dauden joko eta apustu guztiak, zenbait salbuespen izan ezik, *Française des Jeux* izenekoak soilik kudeatzen eta ustiatzen ditu; estatuak zuzenean parte hartzen du elkarte horretan, %72ko partaidetza du, hain zuzen. Elkarte horrek kudeatzen eta ustiatzen ez dituen jokoak hauek dira: kasinoetako ausazko jokoak, zaldi- eta zakur-lasterketetako apustuak eta euskal pilotako apustuak. Legearen bidez ezarri zen monopolio hori, azaroaren 9ko 98/1978 Dekretuan ezarritakoari jarraiki. Zaldi- eta zakur-lasterketetako eta euskal pilotako apustuei dagokienez, sistema berbera da baina beste konpainia batek du monopolioa, *Pari Mutual Urbain* izenekoak; lasterketetarako elkar-teen taldea da konpainia hori, eta ekitaldi jakin batzuen inguruko apustuak kudeatzen ditu.

Alemaniko Landers izenekoak. Monopolio publikoa.

Alemanian antolaketa federala dute, Espainiakoaren oso antzekoa, eta *Landers* izenekoek eskumena dute loterien, kirol-apustuen eta kasinoren alorrean legeak egiteko. Nolanahi ere, nork bere araudia badu ere, eta horien artean aldeak badaude ere, desberdintasunak ez dira nabarmenak, *Lander Interestate Agreement* izenekoari esker; administrazio periferiko guztiek sinatu zuten akordioa, barruti horietako bakoitzeko xedapenak harmonizatzea du xede, nolabait, eta, besteak beste, joko-jardueraren kudeaketa publikoa izan dadin sustatzen du. Alemaniako sistemaren barruan, eskualde hauetako xedapenak dira nabarmenezkoak:

- **Bavaria.** Apustuei eta loteriei dagokienez, *BayStaatlotteriegesetz* izeneko legeak bere baitan hartzen du *Land-*

der *Interstate Agreement* akordioa, eta jarduera guztiak *Staatliche Lotterieverwaltung* erakundeak ustiatu behar dituela ezartzen du; erakunde publikoa da hori, berezko nortasun juridikorik gabea eta Finantza Ministerioari atxikita dago. Halaber, erakunde horrek badu eskumena ustiapen-eskubidea erabat estatuarena den zuzenbide pribatuko erakunde bati emateko. Kasinoei dagokionez, *Casino Act* legeak ezarritakoaren arabera, Finantza Ministerioak eraturako estatuko elkarteren bati eman ahal zaizkio baimenak bakar-bakarrik.

- **Saxonia.** Loteriei eta apustuei dagokionez, *Staatslotteriegesetz* legeak ezarritakoaren arabera, jokoak estatuak berak ustia dezake edo elkarte pribatu baten esku utzi dezake jokoaren kudeaketa, eta ez du partaidetzaren titulartasunari buruzko aipamenik egiten. Praktikan, *Lander Intersate Agreement* akordioa betetze aldera, osorik estatuarenak diren elkartei ematen zaie baimena. Kasinoen alorrean, *Casino Act* legea oso antzekoa da: *Lander* berak edo *Lander*-ek erabateko partaidetza duen eta pribatuki eratu den elkarte batek eskura dezake soilik kasinoak ustiatzeko lizentzia.

Saxoniako araudiaren ildo berekoa da **Greziako araudia**; OPAP izeneko erakundeari soilik ematen dio eskumena joko-jarduera guztiak kudeatzeko, eta horrek baimenak eman diezazkieke elkarte pribatuei. Praktikan, joko-mota guztiak kudeatzeko baimena bakar-bakarrik OPAP S.A. elkarteak du; hau da, estatuaren merkataritza-sozietateak.

Italian ere zenbait joko-jarduera Grezian ustiatzen diren antzera ustiatzen dira; izan ere, 498/1948 Legeak ezarritakoaren arabera, estatuak du soilik baimendutako joko-jarduera guztiak kudeatzeko eta ustiatzeko eskumena. Horrenbestez, eskumen guztiak AAMS izeneko erakunde publikoak ditu, eta haren ardurapekoa da 2002ko uztailaren 8ko Lege Dekretuak ezarritakoari jarraiki jokoak kudeatzea. Dena dela, AAMS erakundeak jarduera gutxi kudeatzen ditu, egun; izan ere, kasurik gehienetan, estatuak emandako administrazio-emakidei jarraiki, operadore pribatuek (gehienak, Italiako nazionalitatekoak) betetzen dute eginkizun hori.

Kapital atzerritarraren sustapena

Orain arte aztertu ditugun estatuen eredu berberekoak ez badira ere, zenbait estatuk protekzionismoaren aldeko jarrera dute, oso helburu zehatzak dituztela. Irizpide hori

ezarri dute batez ere britainiar uharteek, Gibraltarrak eta, batik bat, Maltak.

Estatu horiek edo legeak egiteko eskumena duten maila txikiagoko administrazioek kapital eta inbertsio atzerritarrak beren lurraldera erakartzea dute helburu, nahiz eta (i) jokoaren alorrean esku hartzearen oso aldekoak ez izan (Maltak bertakoei ezartzen dien mugapena izan ezik), nahiz eta (ii) eskumena eman beren enpresei mundu osoan barrena zerbitzuak eskaintzeko eta nahiz eta (iii) joko-mota asko baimendu, bereziki interakziozkoak. Helburu hori lortze aldera, administrazio horiek bi ekintza hauek gauzatzan dituzte:

- Joko-enpresetako operadoreei beren estatuetan eratzeko eta, hortaz, bertako nazionalitatea izateko betebeharrak ezartzen die.
- Ordainetan, oso zerga-sistema onuragarria eta abantaila asko eskaintzen dituen estatuak ezartzen dute, egoitza soziala beren lurraldean duten kapital atzerritarreko enpresentzat.

Lehen adierazi dugunez, estatu hauetako administrazioetan hauteman dugu halako joera:

- **Malta.** Joko-enpresetako operadore guztiek, edozein dela ustiatzen duten jarduera, betebeharrak dute egoitza soziala Maltako lurraldean ezartzeko. Hau da, Maltan eraturako elkarteek soilik eskura ditzakete ustiatzeko baimenak. Halaber, zerga-abantaila handiak eskaintzen dizkiete joko-jarduerak ustiatzen dituzten konpainia nazionalak. Politika hori dela eta, online jokoak ustia daitekeen herrialde erakargarrietako bilakatu da Malta eta, horrez gain, joko-zerbitzu asko eskaintzen dizkie lurraldea bisitatzen duten turistak.

Dena dela, Maltaren jarrera oso murriztailea da, herritarrek jokatzeko duten aukerari dagokionez. Izan ere, mugapen osagarri anitz ezartzen dizkie eta joko-jarduera tradizional askotarako protekzionismoaren aldeko jarrera hartzen dute nabarmen; esate baterako, 25 urtetik gorako maltarrak soilik sar daitezke kasinoetan.

- **Britainiar uharteak eta Gibraltarra.** Online joko-zerbitzuen esportatzaile handi bilakatzea dute xede britainiar uharteek. Esate baterako, Alderney Uharteak, joko fisikoko edo kalean jokorako jarduera bakar bat ez badu ere, online joko-mota guztiak ustiatzeko joko interaktiboko 36 lizentzia ditu.

Hari beretik jarraituz, *E-gambling Ordinance 2006* izenekoak ezarritakoaren arabera, Alderney Uharteko joko-enpresetako operadore guztiek dute betebeharra uhartean eratzekoa eta bertan egoitza soziala ezartzekoa. Joko-jarduerak ustiatzeko lizentziaz baliatzeko urteko tasaren zenbatekoa oso handia bada ere, zerga-onura handiak dituzte elkarrekin guztiek eta, ondorioz, uhartean inbertitzea oso eragiketa erakargarri bihurtu da.

B) Baimena duen operadorearen izaera juridikoa

Irizpide honek operadorearen izaera juridikoaren eta ezaugarrien arabera hautatzen ditu joerak. Hori hala izanik, jokoaren alorreko xedapenei dagokienez, alde handiak daude estatuen artean zein estatu beraren barruan, ustiatu beharreko negozioaren arabera.

Gaiaren inguruko hainbat xedapen abiapuntu hartuta, lau joera hauteman ditugu:

Baimena pertsona fisikoei eta juridikoei, publikoei zein pribatuei.

Joera hori argien erakusten duten arau-esparruak dira britainiarrena eta Espainiako estatuko autonomia-erkidegoetakoena.

Aurreko ataletan adierazi dugunez, Erresuma Batuek baimenak ematen dizkie pertsona fisikoei zein juridikoei, izan publikoak izan pribatuak, beti ere eskaria egin duenak egokia dela egiaztatzen badu eta jarduera ustiatzeko erabiliko dituen materialak eta aretoak egokiak direla egiaztatzen badu. Halaber, ezinbestez adierazi behar dugu, pertsona juridikoa baimenaren onuradun den kasuan, pertsona juridiko jakinek, esate baterako, gerenteek eta operadore fisikoek (apustu-artekariak edo *dealers* izenekoak) lizentzia pertsonala eskuratu behar dutela beren eginbeharrak gauzatu ahal izateko (kudeaketa-lizentzia eta lizentzia funtzionala, hurrenez hurren).

Autonomia-erkidegoetako xedapenek ezarritakoaren arabera ere eman dakizkieke baimenak pertsona fisikoei zein juridikoei, izan publikoak izan pribatuak; baina, zenbait kasutan, kasinoetan eta apustuetan esaterako, merkataritzako arauak ezartzen duten kapital soziala baino handiagoa izatea eskatzen zaie pertsona fisikoei.

Baimena soilik pertsona juridikoei.

Legedi askok, besteak beste, Holandakoak, *Landers* batzuetakoak, Maltakoak eta Irlandakoak (klubak), pertsona juridikoei soilik ematen die joko-jarduera guztietarako edo gehienetarako baimenak eskuratzeko aukera; hau da, merkataritza-sozietate gisa eratzten ez diren pertsona fisikoek ezin dute ustiatzeko baimena eskuratu.

Baimena soilik pertsona juridikoei edo izaera publikoko erakundeei.

Aurreko puntuan adierazi dugunez, zenbait estatuk joko-jarduerak ustiatzeko baimena estatuari berari edo, hala badagokio, pertsona juridiko pribatu eta kapitala osorik edo zati handi bat publikoa dutenei soilik ematen die; esate baterako, Italiak, Frantziak eta Greziak.

Baimena soilik irabazi-asmorik ez duten erakundeei.

Zenbait xedapenek ezarritakoaren arabera, joko jakin batzuk irabazi-asmorik ez duten erakundeek soilik ustia ditzakete. Portugalen, esate baterako, 282/2003 Lege Dekretuak ezarritakoari jarraiki, loteria soilik Lisboako Santa Casa do Misericordia izenekoak ustia dezake, eta diru-sarrerara guztiak xede sozialetarako erabiltzen ditu.

Danimarkan ere oso antzeko egoera dute. Loteriei buruzko Danimarkako zenbait xedapenen arabera —esaterako, *Public Notice on Lotteries* eta *Act on the Danish Classlottery* izenekoak—, irabazi-asmorik ez duten erakundeek soilik ustia ditzakete loteriak eta, halaber, etekin guztia edo etekinaren zati bat ongintzako proiektuei edo estatuari eman behar dizkiete.

2.2.3. Publizitate-arabidea

Joko-jardueren publizitate-arabidearen joerari dagokionez, orokorra da; baimenduta dauden jokoei buruzko publizitatea soilik egin daiteke, betiere publizitate-kanpainen zuzenean jokora bultzatzen ez badute.

Publizitatea kontrolatzeari dagokionez, badira aldeak estatuaren edo legeak egiteko eskumena duten administrazioen artean. Publizitate-kanpaina abian jarri baino lehen aurretiazko baimena izatea ezartzen dute batzuek (autonomia-erkidegoek), publizitate guztiarentzat *ex post* kontrol orokorra ezartzen dute beste batzuek, eta jokoari buruzko

araudian bertan oinarritzko kontrolerako mugak eta irizpideak ezartzen dituztenak ere badira.

Horrenbestez, jarduera horiei buruzko publizitate-araubideak bereizteko, bi irizpide-mota hautatu ditugu:

- Zehapenen zorrotasun-maila; izan daitezke administrazio-zehapen hutsak edo zehapen penalak. Gai hori, estatu bakoitzak ezarritako zehapen-araubideari buruzkoa, hurrengo atal batean aztertuko dugu.
- Publizitatearen kontrola egiten den unea; aurretiatzko kontrola (kanpaina abian jarri baino lehen aurretiatzko baimena izateko betebeharra) eta *ex post* kontrola bereizi ditugu.

Aurretiatzko kontrola

Espainiako estatuko autonomia-erkidego gehienek ezarrita duten eredia da. Horietan guztietan, aurretiatz kontrolatu behar da jokoari buruzko publizitate-kanpaina, eta kontrol horren emaitzaren arabera eskuratuko du baimena. Bestela, baimena lortzen ez badu, debekatuta dagoela esan nahi du, eta publizitate-kanpaina abian jarriz gero, oso arau-hauste larritzat hartzen da.

Kanpaina baimentzeko oinarritzko irizpidea hau da: ez du zuzenean jokora bultzatu behar eta, hortaz, informatzeko soilik izan behar du; halaber, baimena izan dezakete, oro har, prentsa espezializatuan publizitatea egiteko eta kirol-ekitaldiak diruz laguntzeko. Salbuespen hori izan ezik, autonomia-erkidego gehienetan debekatuta dago jokorako makinei buruzko berarriazko publizitatea egitea.

Ex post kontrola

Zenbait estatuk joko-jarduera guztiei edo batzuei buruzko publizitate-kanpainiei ezartzen dizkiete mugak, eta osasunerako arriskutsutzat hartzen direnekiko, berriz, kontrol zorrotzagoak ezartzen dituzte. Hala egiten dute, esate baterako, Erresuma Batuak, Alemaniak, Holandak, Suediak eta Finlandiak. Espainiako xedapenek ezartzen duten kontrola ez bezala, *ex post* kontrola da.

- **Erresuma Batua. Ex post kontrola, legezko aginduz.** Hain zuzen ere, 2007ko irailean indarrean jarritako *Gambling Act 2005* legearen 16. artikulua arautzen du jokoari buruzko publizitatea. Artikulu horretan ezarrita-

koaren arabera, Estatuko Idazkaritzak joko-jardueri buruzko publizitatea kontrolatzeko irizpideak ezartzeko xedapen bat emateko betebeharra du, batik bat, kanpainaren formari, edukiari, euskarriari eta ordutegiari buruzkoak.

- **Holanda: jokoari buruzko publizitate-kodea / Malta: publizitateari buruzko jokabide-kodea.** Holandak kode berezia osatu du, operadoreek antolatzen dituzten ausazko jokoei buruzko publizitatea arautzeko ^[7]; bertan, Holandan jokoari buruz abian jartzen diren publizitate-kanpainek kontuan hartu beharreko irizpideak ezartzen dira, bai eta kontuan hartu behar dituzten mugak ere.

Maltako LGA izenekoak (*Lotteries and Gaming Authority*), bestalde, publizitateari buruzko jokabide-kodea eman zuen; bertan ezarritakoari jarraiki, goizeko 6etatik gaueko 9ak bitartean debekatutako dago irratian eta telebistan jokoari buruzko publizitate-jarduera oro.

Jarduera jakin batzuei buruzko publizitatearen debekua

Azpiatal honetan, egokia iruditzen zaigu bi joera nabarmen-tzea. Batetik, kanpaina bideratuko zaien herritarren estatuan baimenduta ez dauden atzerriko operadoreek —nahiz hirugarren estatuetan baimenduta egon— joko-jardueri buruz eskaintzen duten publizitatea orokorrean debekatzen duen joera. Eta bestetik, jarduera jakin batzuei buruzko publizitatea erabat debekatzen duen joera. Azken joera hori ez da oso ohikoa.

- **Atzerriko operadoreentzako debekua.** Gehien esku hartzen duten estatuetako araudiek debekatu egiten dute, zigor zorrotzak ezarrita, hirugarren herrialdeetan baimenduta dauden atzerriko operadoreek egin duten publizitatea, kanpaina horiek beren herrialdeetako herritarrentzat ere badirela erabakitzen badute. Hauek dira estatuak: Holanda, Danimarka, Alemania, Italia eta Frantzia. Erresuma Batuak, halaber, *Gambling Act* Legearen 331. artikuluan ezarritakoari jarraiki, EBkoak ez diren operadoreek jokoari buruz egiten duten publizitatea debekatzen du; dena dela, *White List* edo Zerrenda Zuria izeneko sistemaren bidez, joko-sistemak kontrolatzeko neurriak xedapen britainiarrera egokituta dituzten herrialdeetako publizitatea baimentzen du.

^[7] Hauxe da kode horren izen ofiziala nederlanderaz “*Reclamecode voor kansspelen die wordt aangevoden door vergunninghouders ingevolge de wet in the kansspelen*” eta Holandako jokoaren jardueri buruzko publizitatea errespetatzeko mugak ezartzen ditu, baita legezketasunari egokitzeko joko-operadoreek jarrai dezaketen gidarako irizpide jakin batzuk ere.

- **Jarduera jakin batzuei buruzko publizitatearen debekua.** Ez da ohikoa legezko jardueri buruzko publizitatea erabat debekatzea, eduki kaltegarriak ez dituzten kanpainak baimentzeko aukera xedatu gabe. Hala ere, badira hala xedatzen duten araudiak. Esate baterako, eta adibide gisa, hori gertatzen da jokorako makinekin Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan; edo, oso antzera, Portugalen, jokorako kasinoei buruzko publizitate-mota oro egitea debekatuta baitago.

2.2.4. Zehapen-araubidea

Zehapen-araubidearen alorrean, oso ondo bereizten diren bi joera daude. Batetik, administrazio-motako arau-hausteen eta zehapenen sistema ezartzen duen joera, baldin eta zigortutako ekintza bide penaletik bideratzekoa ez bada (esate baterako, iruzurra). Eta bestetik, zehapen-araubide penala ezartzeko joera duena eta, beraz, arau-hauste izendatu orde delitu dioena eta zehapen orde zigorra.

Zehapen-araubide administratiboa

Zehapen-eredu administratiboa dute ezarrita Espainiako estatuko autonomia-erkidego guztietako xedapenek.

Izaera administratiboko arau-hauste eta zehapen-araubidea du oinarri joera horrek eta ez du, inola ere, zigortutako zehapenik hartzen bere baitan; beraz, ezinezkoa da askatasunaz gabetzeko zigorrrik ezartzea, edozein dela ere arau-haustea.

Autonomia-erkidegoek jokoari buruz dituzten xedapenen bidez ezarritako arau-hausteen katalogoak, batik bat, arau-hauste mota eta zigor-mota hauek hartzen ditu bere baitan:

Zehapen-araubidea

Zigor izaerako zehapen-araubidea ezartzen dute EBko ia estatu kide guztietako araubideek; besteak beste, Britainia Handia, Alemania, Frantzia^[9], Danimarka eta Italiak. Jokoa erregulatzeko arauak urratzen dituzten joko-jarduerekin zerikusia duten ekintza oro edo zenbait ekintza delitutzat

Lege-hauste mota	Eremua	Zehapena ^[8]
Oso larria	Baimendu ez diren jokoak edota baimendu ez diren lokaletan ustiatzea edo sustatzea. Araudiak aurreikusitakoa ez betetzea, hauetan: hasierako prezioaren eta sarien mugak, jokoa funtzionatzeko arauak, etab. Baimendu ez diren joko-materialak fabrikatzea edo merkaturatzea.	9.000,01 eurotik 600.000,00 eurora
Larria	Baimendu ez diren jokoak edo baimendu ez diren lokaletan garatzea erraztuko da edo horietan parte hartzea. Sarrera mugatua duten pertsonen jokoa baimentzea edo erraztea. Joko-jarduerak kontrolatzeko eginkizuna duten funtzionarioekin lankidetzarik ez izatea edo zenbait jarduera jakinarazteko beharra ez betetzea. Dokumentu izaerako ez betetze larriak.	3.000,01 eurotik 9.000,00 eurora
Arina	Dokumentu izaerako ez betetze arinak.	3.000,00 euroraino

^[8] Oro har, 600.000,000 euro arteko isunak ezarri dira, lege-hauste motaren arabera, arau autonomikoak beraien artean alderatuz, maila bakoitzeko lege-hausteeetan ezarritako tarteari dagokionez. Kasu honetan, adibide modura, Madrilgo autonomia erkidegoan ezarritakoa hartu da.

^[9] Frantzia da, zalantzarik gabe, baimenik gabeko online joko-operadoreen kontrako neurri gehiago hartu dituen estatua. Gauzak horrela, Epaimahaiek BWINeko exekutiboen kontra abiltzeko agindua eman dute, Frantziako lehenengo mailan jokatzen duen AS Monako futbol taldea diruz laguntzeagatik.

tipifikatzea du ezaugarri joera horrek. Beraz, zigorrak ezartzearen lehendabiziko ondorioa, zenbaitetan, askatasunaz gabetzea izan daiteke. Joera horren beraren barruan, beste bereizketa bat ere egin daiteke. Batetik, zehapenen zorrotztasun-mailari dagokionez, hain gogorra ez den zigor-sistema ezartzen dutenak, britainiarra esaterako. Eta bestetik, araubideak urratze-mota asko ezarri eta horietako bakoi-tzarentzako zigor gogorra ezartzen dutenak.

• Sistema britainiarra

Zehapen-araubide britainiarra *Gambling Act* Legeak hartzen du bere baitan, eta irizpide honen inguruan antolatuta dago: *Gambling Act* Legearen bidez ezarritakoa betetzen ez bada (lizentzia izateko betebeharra, areto baimenduetan gauzatu jarduera baimenduak, etab.), arau-hauste hori penala da eta, ondorioz, espetxe-zigorra, 51 aste gehienez (sei hilabete Eskozian) edo, isun ekonomikoa dagokio, kasuaren arabera.

Gambling Act Legeak bi salbuespen xedatzen ditu araubide horrentzako: (i) askatasunaz gabetzeko zigorra ez da ezarriko, arau-haustea egin duena adin txikikoa bada eta (ii) zigorra gogorragoa izango da, berriz, irabazteko aukera gehiago izate aldera, joko-sistemak aldatzen badira. Halako kasuetan, bi urteko espetxealdikoa ere izan daiteke zigorra.

• Zigor-sistema zorrotza

Joko-jarduerak kudeatzeko eta ustiatzeko, operadore nazionalak monopolioa edo oligopolioa ezarrita duten herrialdeetako xedapenek jasotzen dute zehapen-araubide zorrotzeta, operadorea nazionalak publikoak zein pribatuak izan.

Mota horretako zehapen-araubidea dute, besteak beste, Frantzia, Holanda, Italia eta Alemaniak. Horiek guztiak bi zigor-mota edo -maila ezartzen dituzte joko-alorreko arau-hausteentzat. Askatasunaz gabetzekoak dira, baina are gogorragoak dira atzerriko operadoreentzat, joko-zerbitzuak legearen aurka eskaintzen badituzte. Estatu horiek ezartzen duten zehapen-sistemak, desberdintasunak eta xehetasunak kontuan hartuta, honako talde hauetan bilzen ditu arau-haustek:

- Joko-jarduerak ustiatzea dagokien baimenik gabe (aipamen bereziak, operadoreak atzeritarrak badira).

- Joko-jardueri buruzko publizitatea egitea baimenik gabeko operadoreek.
- Baimendu gabeko joko-jarduerak ustiatzea.
- Baimendutako aretoetatik kanpo ustiatzea joko-jarduerak.
- Jokoa erregulatzen duten arauen beste arau-hauste batzuk.

Xedatutako arau-hausteei dagozkien zehapenak estatuaren arabekoak dira, norik bereak ezartzen baititu. Hauek dira nabarmentzeko modukoak:

Italia. Joko-jarduerak dagokien baimena gabe ustiatuz gero, sei hilabetetik hiru urtera bitarteko espetxe zigorra eta isun osagarri bat. Baimendu gabeko operadoreen batek joko-jardueri buruzko publizitatea eginez gero edo horiek sustatuz gero, hiru hilabetetik urtebetera bitarteko espetxe-zigorra eta isun osagarri bat.

Frantzia. Baimendu gabeko joko-jarduerak ustiatuz gero edo horiei buruzko publizitatea eginez gero dagokien baimenik gabe, sei hilabetetik hiru urtera bitarteko espetxe-zigorra eta zenbateko handiko isun osagarri bat.

Alemania. Zehapen penalak legearen aurkako joko-enpresetako operadoreentzat ezartzeaz gain, legearen aurkako operadoreekin jokatzeko edo horien jokoa sustatzen dutenak edo joko-jardueretan atzerrian aritzen direnentzat edo halakoak sustatzen dituztenentzat ere xedatzen dituzte. Lehendabiziko kasuari dagokionez, sei hileko espetxe-zigorra; eta bigarren kasuari dagokionez, espetxe-zigorra bi urte bitartekoa izan daiteke.

Holanda, Danimarka eta Bavaria. Etekinak helburu jakin baterako (estatu, ongintzako proiektuak...) erabili behar direla arauz ezartzen den kasuetan, zehapen penalak ezartzeaz gain, administrazio-zehapenak ere ezartzen dira legezko betebeharrak hori betetzen ez bada; oso zenbateko handiko isunak ezartzen dituzte zenbait estatuk (esaterako, Bavarian, 500.000 eurokoa ere izan daiteke).

2.2.5. Zerga-araubidea

Sarrera

Lehenik eta behin, esan behar dugu eginkizun nekeza eta zaila izango litzatekeela European jokoaren alorrean xedatuta dagoen zerga-ordainketa sistematikoki eta beren artean

aldeak eginez azaltzea; izan ere, herrialde bakoitzak bere zerga-sistema du eta, askotan, beren artean oso desberdinak baitira. Horren guztiaren ondorioz, lurralde bakoitzeko zerga-ordainketa zehazteak legedi horietako bakoitza sakon aztertzea eragingo liguke, eta hori ez da analisi honen xedea. Horrenbestez, esku artean duzun txostenaren xedea hau da: ahalik eta argien azaltzea European alor horretan hauteman ditugun joerak eta desberdintasunak eta, halaber, zenbait berezitasun interesgarriren berri ematea.

European zerga-alorrean dauden joeren azterketa

Hauteman dugu, oro har, aztertu ditugun herrialde edo barruti gehienetan, joko antolatze moduaren arabera zerga-sistema dutela. Nolanahi ere, eta logikoa denez, lurralde bakoitzeko lege-esparrupekoa da zerga-sistema hori.

A) Jokoaren gaineko zerga

Adierazi dugunez, aztertu ditugun herrialde gehienetan arautzen da jokoaren gaineko zerga. Zerga horren barruan, bi mota bereizi ditugu. Lehen "jokoaren gaineko zerga" izenda dezakegu eta, kasurik gehienetan, likidazio tradizionalako eskema bati jarraitzen dio (zerga-oinarria, zerga-tasa...). Bigarrena "jokoaren gaineko tasa" izenda dezakegu, zerga-tasa jakin bat da eta herrialde bakoitzean araututa dituzten xedapenen arabera da.

Jarraian azalduko dugun azterketa argiagoa izan dadin, zerga-ordainketa "sistematizatzea" beharrezkoa iruditu zaigulako egin dugu desberdintasun hori. Horrek ez du esan nahi, ordea, "zerga" eta "tasa" izendatutako horiek gure antolamendu juridikoan kontzeptu horientzako ezarritako ezaugarri berberak dituztenik.

Jarraian, hauteman ditugun joerak azalduko ditugu eta, horretarako, zerga bakoitza osatzen duten elementuak aztertu ditugu:

- Zerga-egitatea.
- Subjektu pasiboa.
- Zerga-kuota zehaztea (zerga-oinarria eta zerga-tasak).

Zerga-egitatea

Oro har, zerga-egitatea joko-jarduerak antolatzea da. Estatu bakoitzeko lege-esparruan baimenduta dauden edo zilegi diren joko-jarduerak desberdinak direla kontuan hartuta, alde

handiak daude lurralde bakoitzean araututa duten zerga-egitateen artean. Horrenbestez, joera liberala duten estatuetan, Erresuma Batuan esaterako, zerga-egitatea joko-mota askok osatzen dute. Joera murriztailea duten herrialdeetan, berriz, baimenduta dauden joko-jarduerak soilik osatzen dute zerga-egitatea. Halako joera dute, besteak beste, Irlandak eta Portugalak.

Subjektu pasiboa

Aztertu ditugun herrialde gehienetan, antolatu duen agentea da subjektu pasiboa (monopolioa duen erakundea, Poloniaren kasua; edo joko antolatze dagokion lizentzia duen erakundea edo pertsona). Nolanahi ere, Espainian eta Euskadin ez bezala, zenbait estatutan, Danimarkan esaterako, makinak dauden aretoetako jabeek ere ezartzen zaie zerga-tasa.

Zerga-kuota zehaztea

Kontuan hartu beharrezkoa da, estatuaren artean alde nabarmenenak puntu honen ingurukoak direla. Izan ere, zergak biltzeko aplikatzen den teknikaren arabera zehazten da zerga-kuota, eta teknika horien artean alde handiak daude.

Jarraian, **zerga-oinarria** zehazteko moduak azalduko ditugu gaineratik eta, halaber, desberdintasun nabarmenenak zertan oinarritzen diren ere azalduko dugu. Zerga-kuota zehazteko modua araututa dago ia estatu guztietan, eta zerga-mota jakin bati aplikatu beharreko zerga-oinarria kalkulatzeko datza.

Euskadin bezala, herrialde gehienetan norberaren arauak ezartzen dira zerga-oinarria zehazteko, eta zergapeko joko-motaren arabera erabakitzen da. Dena dela, zenbait estatutan joko-mota bakoitzeko ezartzen dituzte arauak eta, halaber, joko-mota bakar baten barruan ere ezartzen dituzte gaiaren arabera arauak. Esate baterako, Britainia Handiak apustuarentzako zerga-oinarri orokorra zehazteko modua xedatzen du, baina zaldi-lasterketetako apustuarentzako desberdina da.

Aplikatzen diren **zerga-tasei** dagokienez, alde handiak daude estatuaren artean. Horren haritik, zenbait estatutan zigortu egiten da, praktikan, joko-mota jakin batzuk antolatzea, oso zerga-tasa handia aplikatzen baita. Danimarkan, esate baterako, kasinoarentzako xedatutako zerga-tasa %75ekoa da. Beste estatu batzuetan, berriz, zerga-tasa oso txikiak dituzte, Maltan eta Eslovakian esaterako, apustu-mota jakinetarako %0,5ekoa eta %1ekoa aplikatzen baita, hurrenez hurren.

Horiez gain, estatu orok arautzen ditu norberarentzako oso mota desberdineko murriztapenak, hobariak eta salbuespenak. Hari beretik jarraituz, adierazteko modukoa da gehien ezartzen den salbuespena irabazi-asmorik ez duten erakundeek antolatutako jarduerentzako izaten dela.

Azkenik, zenbait lurraldetan, Maltan esate baterako, zerga desberdina xedatzen da joko-mota jakin batzuentzako (online jokoak); adibidez, urtean edo hilean zerga edo kuota finko bat ordaintzea izan daiteke, eta jokoak **antolatzen duen agenteak** ordaindu beharrekoa da, gehienetan. Hau da, ez da zerga-oinarria zehazten kalkulu jakin batzuen arabera, lortutako etekinaren arabera edo emandako diru edo sariaren arabera esaterako, baizik eta kuota finko bat ezartzen da joko-mota bakoitzeko.

B) Beste zerga batzuk

Horiez gain, oro har, jokoak antolatzen duen eragileak zuzeneko zerga bat ere ordaindu behar du, dagokien Sozietateen gaineko Zerga, eta joko-jardueraren bidez lortutako etekina zergapetzen du, hura gauzatzeak eragindako gastuak kenduta. Horri dagokionez, zenbait lurraldetan, atzerriko erakundeek mota horretako jarduerak sustatzea xede dutenetan, Maltan esaterako, zenbait hobari ematen dituzte, entitate horiek ordaindu beharreko zuzeneko zerga nabarmen murrizte aldera. Eskura dugun informazioaren arabera, Man uhartean eta Gibraltarren, online jokoak eskaintzen duten erakundeek ez dute Sozietateen gaineko Zerga ordaindu behar, ezabatu egin baitute.

Autonomia-Erkidegoetako zerga-alorren konparaziozko azterketa

Euskadin (Ekonomi Itunaren Legea) eta Nafarroako Foru Komunitatean (Ekonomi Hitzarmenaren Legea), gainerako autonomia-erkidegoetan ez bezala (araubide komuna), autonomiadun arautegiko zerga itunduak dira jokoaren gaineko zergak. Hortaz, bi lurralde horietako erakunde eskudunek dute arauak emateko eskumena, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan baimendu behar direnean. Arauak emateko eskumen horrek badu mugarik: zerga-egitatearekin eta subjektu pasiboarekin zerikusia duten arloak; izan ere, halako kasuetan, Espainiako estatuak unean-unean ezarritako arauak aplikatu behar baitira.

Aztertzen ari garen atalean, konparaziozko azterketa egingo dugu, araubide komuna duten autonomia-erkidegoekiko.

Abenduaren 27ko 21/2001 Legearen arabera, araubide komuna duten autonomia-erkidego guztiek lagata dute joko-alorreko zerga-eskumena. Nolanahi ere, lehen azaldu dugunez, autonomia-erkidegoek legeak emateko duten eskumena ez da osoa, zerbait alderdi arautzera mugatzen baita eskumena. Hain zuzen ere, honako hauei buruzko eskumenak har ditzakete beren gain autonomia-erkidegoek: salbuespenak, zerga-oinarria, zerga-motak eta kuota finkoak, hobariak eta sortzapenak, baita kudeaketa, likidazio, zerga-bilketa eta ikuskaritzaren inguruko alderdiak ere. Azaldu dugunaren arabera, autonomia-erkidegoetan araututako zerga-oinarria eta subjektu pasiboa berdina izan beharko luke. Ildo beretik jarraituz, kontuan izan behar da, aipatutako araubideari jarraiki, autonomia-erkidegoek ez badute erabiltzen arauak egiteko duten eskumena, haren ordezt Espainiako estatuko araubidea aplikatuko dela. Egun, autonomia-erkidego bakoitzak arautu du, neurria batean, zerga hori.

Ceuta eta Melilla hiriei dagokienez, Espainiako estatuaren zergak ez dira laga, administrazio-baimenekin zerikusia duten funtzioak soilik transferitu dira. Jokoaren alorreko eskumenak beren gain har ditzakete, baina horiek ahalmen hauen ingurukoak soilik izan daitezke: administrazioa, ikuskaritza, zehapena eta, Espainiako estatuaren legedi orokorrak ezarritako terminoetan, araugintza-ahalmena. Kontua da hiri horiek ez dutela jokoaren alorrean zerga-araurik ezarri eta, beraz, Espainiako estatuko arauak aplikatzen dira.

Egoera halakoa izanik, gure analisia, batik bat, elementu hauek aztertzeraz bideratu da:

- Zerga-egitatea.
- Subjektu pasiboa.
- Zerga-oinarria.
- Zerga-tasak.
- Intereseko beste alderdi batzuk.

Zerga-egitatea

Zerga-egitatea da, Euskal Herrian bezala, zori, enbido edo ausazko jokoak baimentzea, gauzatzea eta ospatzea. Hasi batean, diagnosian azaldutako eskumen-esparruaren arabera, zerga-egitateak berdina izan beharko luke erkidego guztietan. Hala ere, zenbait autonomia-erkidegoek zehaztu dute zerga-egitatea eta beste batzuek, aldiz, Espainiako estatuko arauetara igortzen dute, ez dutelako hura zehaztu eta zerga-alorreko zenbait alderdi soilik arautu

dituztelako; esate baterako, soilik tasa, zerga-oinarria... Horren ildotik, Euskal Herrian joko-motak aipatzen dira zerga-egitearen barruan eta, azken klausulan, "erkidegoak onartutako Jokoen Katalogoko beste edozein joko" ere erantsita dago.

Horrezaz gain, atentzioa eman digu zenbait autonomia-erkidegok bingo-jokoaren berariazko zerga arautu izanak; zerga-egitatea, kasu horretan, jokalariei sariak ordaintzea da. Hori gertatzen da, esaterako, Asturias, Kantabria, Galizia, Madril, Murtzia eta Nafarroan. Zenbait kasutan, zerga hori errekaru izaerarekin arautzen da, aurrerago ikusi ahal izango dugunez.

Subjektu pasiboa

Administrazio baimena edo ustiapen-baimena eman zaien pertsona guztiak dira subjektu pasiboak. Halakorik ez balego, subjektu pasibotzat hartuko dira ausazko jokoak gauzatzea edo antolatzea jardueretako bat duten pertsonak edo erakundeak. Erantzule solidarioei dagokienez, ausazko jokoak egiten direneko aretoetako jabeak eta enpresaburuak dira.

Aurreko atalean adierazi dugunez, zenbait autonomia-erkidegok bingoaren berariazko zerga bat arautu dute, eta horren subjektu pasiboa eta Espainiako estatuarentzat oro har ezarritakoa ez dira berdinak. Horrenbestez, subjektu pasibo zergaduna ezarri da, jokalaria; eta, bestalde, ordezkotako subjektu pasiboa, jokoaren baimena edo jokoa antolatu duen enpresa, eta horrek zergadunari jasanarazi diezaike zerga.

Salbuespenak

Jokoaren gaineko zergen alorreko albuespenak aztertzen hasi aurretik, ezinbestekoa da zehaztea, Euskal Herrian gertatzen den bezala, apustuei, zozketari, tonbolei eta ausazko konbinazioei buruzkoak direla soilik.

Behin zehaztasun hori eginda, Espainiako estatuak arautzen dituen albuespenak aztertuko ditugu lehendabizi. Espainiako estatuko araudiaren arabera, abenduaren 1eko 3059/1966 Dekretuak, Zerga Tasen Testu Bateratua onartzeok, araututako tasak ordaintzetik salbuesita daude honako hauek:

1. Elkarren artean egindako kirol-apustuak, Kirol Ongintzako Elkarrekiko Apustuen Patronatuaren —1946ko apirilaren

12ko lege-dekretuz eraturia— kontura antolatzen edo egiten badira.

2. Itsuen Erakunde Nazionalak (gaztelaniaz, ONCE) antolatutako zozketak.
3. Amortizatze eta dirua biltzeko zozketak, lege baimendutakoak.
4. Elizbarrutiek antolatutako karitateko tonbolak, arauz zehazten diren baldintzetan.
5. Espainiako Gurutze Gorriak antolatutako zozketak eta tonbolak, arauz zehazten diren baldintzetan.

Andaluziako Autonomia Erkidegoak albuespen berberak arautzen ditu, baina elizbarrutiek antolatutako tonbolak aipatu beharrean, zerga ordaintzetik albuesten ditu ongintzako xedea duten erlijio-, kultura-, turismo-, kirol-, edo ingurumen-erakundeek antolatutakoak, lege baimenduta eta dagokien erregistroan izena emanda dutenak, betiere sarien zenbateko osoa 3.000 eurotik beherakoa bada.

Aragoiko Autonomia Erkidegoak, berriz, baldintza hauek bete-tzea eskatzen die erakundeei, antolatutako zozketa, tonbola, apustu eta ausazko konbinazioen gaineko zerga ordaintzetik albuesteko:

1. Zerga-alorreko araubidea arautzen duen Legea aplikatzen den eremuan dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeek antolatzea.
2. Emandako sarien zenbateko osoa 3.000 eurotik beherakoa izatea.

Bestalde, Balear Uharteek, abenduaren 1eko 3059/1996 Dekretuan araututako zozketa, tonbola, apustu eta ausazko konbinazioen gaineko zerga ordaintzetik albuesten dituzten erakundeek baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Beren funtzioak batez ere Balear Uharteetan betetzea.
2. Eskudun elkarrean erregistroan izena emanda edukitzea, martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan, Elkartzeko Eskubidea Arautzekoan, ezarritako jarraiki.
3. Irabazi-asmorik ez izatea eta goi karguek edo gizarte-ordezkariek dirurik ez irabaztea. Halaber, jokoa antolatzeko

lanetan parte hartzen duten pertsonak ere ezin izango dute dirurik jaso.

4. Antolatutako jokoaren saria 1.500 eurotik beherakoa izatea.
5. Eskainitako txartel guztien zenbatekoa 1.200 eurotik beherakoa izatea eta eskuratutako dirua izaera sozialeko helburua duten funtsetara bideratzea.

Aipatutako erakunde horiek guztiak urtean, gehienez, lau zozketa edo tonbolen gaineko zergatik salbuetsiko dira eta, epeari dagokionez, ez da hiru hilabete baino luzeago izango. Ogasunaren alorrean eskumena duen sailburuari eskaera egin ondoren emango da salbuespena; eskaera, bestalde, arauz zehazten den baldintzetan egin behar da.

Gaztela eta Leon Erkidegoak salbuespen bakarra arautzen du eta oso berezia da; hau da, txapa-jokoa, Gaztela eta Leongo Jokoa eta Apustuak arautzen duen ekainaren 24ko 4/1998 Legearen 3.3.f) artikuluan xedatutakoa.

Azkenik, Galiziako Erkidegoak Espainiako estatuak arautzen dituen salbuespen berberak izateaz gain, beste bat gaineratu du: hezkuntza-ikuskizunak, sozialak edo jai-giroko ikuskizunak direla eta, irabazi-asmorik gabe antolatu edo egindako zozketak zerga ordaintzetik salbuetsiko dira, betiere eskainitako txartelen salmentatik eskuratutako zenbateko osoa 12.000 eurotik beherakoa bada eta emango den saria 1.500 eurotik beherakoa bada.

Zerga-oinarria

Aztertuko dugun atala hobeto ulertze aldera, joko-motak be-reiziko ditugu.

Kasinoak

Kasinoetan gauzatutako jokoari dagokionez, autonomia-erkidegoek araudia bateratuta dute, eta jokoaren bitartez eskuratutako diru-sarrerara gordinek osatzen dute zerga-oinarria. Orain arte esandakoak kontuan hartuta, jokoaren bitartez lortutako diru-sarreraren zenbateko osoari jokalariei irabazietan edo sarietan ordaindutako zenbatekoak kenduta ateratzen den emaitza izango da diru-sarrerara gordina. Joko-aretoetan sartzeko ordaindu beharrekoa ez da aintzat hartuko aipatutako diru-sarrerara horietan.

Horrezaz gain, Valentziako Autonomia Erkidegoak zori, enbido edo ausazko jokoek zorpetzen duten zergaren gaineko erre-kargu bat arautu du.

Bingo

Bingo-jokoan, kartoiak erosteko jokalariek erabiltzen duten diru-zenbateko guztia izango da zerga-oinarria, inongo kenke-tarik gabe.

Izaera orokorreko zergaz gain, bingoaren gaineko berariazko zergaren bat duten erkidegoen kasuan, saritutako kartoia duen pertsonari emandako diru-zenbateko guztia izango da zerga-oinarria. Berariazko zerga hori, nahiz eta araudiak ez definitu modu horretan, Euskal Herrian dugun errekar-guaren antzekoa da.

Madril, Murtzia eta Gaztela eta Leon erkidegoek bingo elektronikoen jokoa arautzen dute, eta jokalariek jokoetan parte hartzeko erabiltzen duten diru-zenbatekoari sarietarako erabili den diru-zenbatekoa kenduta lortzen den emaitza da zerga-oinarria.

Makinak

Makina edo tresna automatikoen kopuruak osatuko du zerga-oinarria. Bi jokalarik edo gehiagok aldi berean eta jokoa independentea dela erabil ditzaketen makinaren kasuan, zerga ordaintzeko, makina horietan jokoan aritu daitezkeen jokalaria-kopurua hartuko da kontuan, Jolase-rako Makinen eta Ausazko Makinen Erregelamenduan eza-rritakoari jarraiki.

Euskal Herriari buruzko diagnosiaren bidez jakin ahal izan du-gunez, «B» eta «C» motako makinak dira zergapetzekoak, baina zenbait autonomia-erkidegok, halaber, beste makina-mota bat arautzen dute, «D» motako makinak edo gauzazko sariak ematen dituztenak. Hala egiten dute Balear Uharteak, Kantabria, Katalunia, Gaztela eta Leon eta Madril erkidegoek. Halaber, Gaztela eta Leongo autonomia-erkidegoak laugarren makina-mota arautzen dute, «E» izenekoa; makina horiek bingo-jokoa dute oinarri. Galiziak, berriz, «A» motako makinak zergapetzen ditu.

Bestalde, Extremaduran debekatuta dago garabi-makinen (edo gauzazko sariak ematen dituztenen) bidezko joko-modalitatean jokatzea, herriko festetan eta herriko festak

dirrela-eta jartzen diren azoka-esparruetan izan ezik. Ez da horien inguruko zergaren zenbatekorik zehazten.

Apustuak

Balear Uharteetako eta Madrilgo Autonomia Erkidegoek apustu-mota jakinentzako berariazko zerga-oinarria arautu dute. Horrenbestez, Balear Uharteetako Erkidegoak zerga-oinarri hau ezarri du zaldi lasterketetarako eta “trosta sustatzeko” beste joko batzuetarako: jokoaren bidez lortutako diru-zenbateko osoari jokalariek irabazitako sariaren diru-zenbateko osoa kenduta lortutako emaitza. Madrilek zerga-oinarri berdina ezarri du kirol- eta lehiaketa-ikuskitzarako. Zenbait autonomia-erkidegok, esaterako Andaluziak, Asturiasek eta Murtziak, ez dute apustuen alorrean ezer zehazten eta, hortaz, Espainiako estatuko araudia litzateke aplikatzekoa, betiere apustuak baimenduta badaude lurralde horietan.

Txartelak

Kartoiak edo txartelak erosteko jokalariek erabili duten diru-zenbateko guztia da zerga-oinarria, kenketarik gabe. Euskadik izan ezik, txartelen bidezko jokoentzako zerga-oinarria ez du autonomia-erkidego bakar batek ere arautu.

Zozketak eta tonbolak

Parte hartu ahal izateko eskainitako txartel, billete edo beste edozein bitartekoren bidez eskuratutako diru-zenbateko osoa da zerga-oinarria; euskarri fisikorik ez duten kasuetan, berriz, lortutako diru-zenbateko osoa izango da zerga-oinarria.

Ausazko konbinazioak

Eskainitako sarien balioak osatzen du zerga-oinarria.

Merezi du nabarmentzea zozketetan eta tonboletan zein ausazko konbinazioetan ‘eskainitakoak’ esaten dela; hortaz, horrek esan nahi du eskaintzen diren txartel edo sari guztiak

	OROKORRA	JOKO MAKINAK		JOKO-KASINOAK	BINGOA		
		Mota	Mota		Orokorra	Zerga zehatza	Elektronikoa
GUTXIENEZ	%20	2.845,80 €	4.020,77 €	%20	%20	%4	%30
GEHIENEZ	%26	3.832,86 €	5.950,50 €	%61	%31	%10	%50

direla zergapetzekoak, eta ez saldu direnak edo emandako sariak soilik; dena dela, diagnosian ere aipatu dugu hori hala dela.

ZERGA-TASA OROKORRA ETA MAKINENTZAKO ZERGA-TASA APLIKAGARRIA

AUTONOMIA ERKIDEGOAK	OROKORRA1	JOKO MAKINAK			
		B makinak	C makinak	Beste makina batzuk	Gainordaina
Estatua	%20	2.845,80 €	4.020,77 €		
Andaluzia	%20	3.272,67 €	4.623,89 €		
Aragoi	%20	3.650,00 €	5.354,00 €		
Asturias	%20	3.600,00 €	5.300,00 €		
Balear uharteak	%21	3.467,00 €	4.946,00 €	150 €	
Kanariak	%20	3.402,29 €	4.207,08 €		
Kantabria	%25	3.600,00 €	5.600,00 €		
Gaztela eta Leon	%20	3.600,00 €	5.265,00 €	600 €- 3600 €	
Gaztela-Mantxa	%26	3.700,00 €	5.300,00 €		
Katalunia	%28	3.656,00 €	5.264,00 €	500 €	
Ceuta	%20	2.845,80 €	4.020,77 €		
Euskadi	%20	3.080,00 €	4.508,00 €		%12 (barne)
Extremadura	%20	3.335,00 €	4.617,00 €		
Galizia	%20	3.558,00 €	5.236,00 €	500 €	
Errioxa	%20	3.640,00 €	5.720,00 €		
Madril	%20	3.600,00 €	5.400,00 €	500 €	
Melilla	%20	2.845,80 €	4.020,77 €		
Murtzia	%25	3.620,00 €	5.300,00 €		
Nafarroa	%20	2.845,80 €	4.020,77 €		
Valentzia	%26	3.832,86 €	5.950,50 €		

Sortzapena

Ez dago nabarmentzeko moduko alderik Euskadin aztertutako araudiarekiko eta, beraz, hura izango da erreferentzia.

KASINOEI ETA BINGOEI APLIKATUTAKO ZERGA-TASA

AUTONOMIA ERKIDEGOAK	JOKO- KASINOAK			BINGOA	
	%Mota	Gainordaina	Orokorra	Zerga zehatza	Elektronikoa
Estatua	20-35-45-55		%20		
Andaluzia	22-38,5-49,5-60,5	%10	%24,5		
Aragoi	20-35-45-55		%20		
Asturias	20-35-45-55		%20	%10	
Balearrak	22-40-50-61		%31		
Kanariak	20-35-45-55		%20		
Kantabria	24-38-49-60		%20	%5	
Gaztela eta Leon	20-35-45-55		%20		%50
Gaztela-Mantxa	20-35-45-55		%26		
Katalunia	20-35-45-55		%20		
Ceuta	20-35-45-55		%20		
Euskadi	20-35		%20	%4	
Extremadura	20-35-45-55		%20		
Galizia	22-38-49-60		%20	%5	
Errioxa	24-38-49-60		%20		
Madril	22-30-40-45		%20	%6 3.005,00 €ra	%30
			Taldeak %8,5	%7 3.005,01 €ra	
Melilla	20-35-45-55		%20		
Murtzia	25-42-55		%20	%6	%30
Nafarroa	20-35-45-55		%20	%8	
Valentzia	20-35-45-55	%3	%26		

ZOZKETEI, TONBOLEI ETA AUSAZKO KONBINAZIOEI APLIKATUTAKO ZERGA-TASA

AUTONOMIA ERKIDEGOAK	ZOZKETAK		TONBOLAK		AUSAZKO KONB.
	Orokorra	Ongileak	Orokorra/eguneko	Ongileak	
Estatua	%15	%1,5 - %5	$\frac{\%15}{6\text{€} - 3\text{€} - 1,5\text{€}}$	%5	%10
Andaluzia	%20	%10	$\frac{\%20}{30\text{€} - 70\text{€} - 100\text{€}}$	%10	%12
Aragoi	%20	%1,5 - %5	$\frac{\%20}{7\text{€} - 4\text{€} - 1,7\text{€}}$	%5	%12
Asturias					
Balear uharteak					
Kanariak					
Kantabria					
Gaztela eta Leon					
Gaztela-Mantxa					
Katalunia	%15	%1,5 - %5	$\frac{\%15}{6\text{€} - 3\text{€} - 1,5\text{€}}$	%5	%10
Ceuta					
Euskadi	%20		%15		%15
Extremadura					
Galizia	%10		$\frac{\%10}{90\text{€} - 210\text{€} - 300\text{€}}$		%12
Errioxa	%15	%1,5 - %5	$\frac{\%15}{7\text{€} - 4\text{€} - 1,7\text{€}}$	%5	%10
Madril	%45,5	%19,5	$\frac{\%45,5}{6\text{€} - 3\text{€} - 1,5\text{€}}$		%13
Melilla					
Murtzia					
Nafarroa					
Valentzia					

APUSTUEI APLIKATUTAKO ZERGA-TASA

AUTONOMIA ERKIDEGOAK	APUSTUAK		
	Orokorra	Kirol-jarduerak	
Estatua	%10	Trabesak %1,5	
Andaluzia	%10	Zaldi-lasterketa %3	
Aragoi	%10	Trabesak %1,5	Galgo-, zaldi-lasterketak, frontoiak %3
Asturias			
Balear uharteak		Zaldi-lasterketak eta trosta sustatzeko bestelako jarduerak %18	Galgo-, zaldi-lasterketak eta frontoiak %3
Kanariak			
Kantabria			
Gaztela eta Leon			
Gaztela-Mantxa			
Katalunia	%10	Trabesak %1,5	Kontra-ordaineko apustuak %0,5
Ceuta			
Euskadi	%10 (WIN)	100€ jardunaldi bakoitzeko edo 150€ jardunaldi bakoitzeko urtero 50 jardunaldi baino gehiago bada (Pilota)	
Extremadura			
Galizia	%8,5		
Errioxa	%10	Trabesak partida bakoitzeko kuota finkoa 150€	
Madril	%13	General 10% Traviesas 1,5	Zaldi-lasterketa %3
Melilla			
Valentzia			

Zerga-tasak

Araudi autonomikoan, puntu honetan hauteman ditugu alde-rik nabarmenenak. Hala, tasen artean gorabehera handiak

MAKINAK

"B" MOTAKO MAKINAK	Jokalari 1	2 jokalarari	3 jokalarari	Formula
Estatua	2.845,80	5.691,60	7.138,57	$5.797,57 + (2.235 \times 3 \text{ jokalarari} \times 0,2 \text{ jokoaren prezioa})$
Andaluzia	3.272,67	3.599,94	3.927,20	$3.272,67 + \%10 \text{ jokalarari bakoitzak}$
Aragoi	3.650,00	7.300,00	8.307,40	$7.300 + (1.679 \times 3 \text{ jokalarari} \times 0,2 \text{ jokoaren prezioa})$
Asturias	3.600,00	7.200,00	8.541,00	$7.200 + (2.235 \times 3 \text{ jokalarari} \times 0,2 \text{ jokoaren prezioa})$
Balear uharteak	3.467,00	6.934,00	8.342,20	$6.934 + (2.347 \times 3 \times 0,2)$
Kanariak	3.402,29	6.804,58	7.712,07	$6.245,07 + (2.445 \times 3 \times 0,2)$
Kantabria	3.600,00	7.200,00	9.000,00	$7.500 + (2.500 \times 3 \times 0,2)$
Gaztela eta Leon	3.600,00	7.200,00	7.200,00	Bi kuota 8 jokalarari arte, 8tik aurrera: + 600 € x jokalaria
Gaztela-Mantxa	3.700,00	7.400,00	9.240,00	$7.500 + (2.900 \times 3 \text{ jokalarari} \times 0,2 \text{ jokoaren prezioa})$
Katalunia	3.656,00	7.312,00	8.680,00	$(1.828 + (570 \times 3 \text{ jokalarari} \times 0,2 \text{ jokoaren prezioa})) \times 4$
Ceuta	2.845,80	5.691,60	7.138,57	$5.797,57 + (2.235 \times 3 \text{ jokalarari} \times 0,2 \text{ jokoaren prezioa})$
Euskadi	2.750,00	5.500,00	6.325,00	$5.500 + (5.500 \text{eko } \%15 \times \text{jokalarari bakoitzeko } 2 \text{ baino gehiago badira})$
Extremadura	3.335,00	6.670,00	7.878,60	$6.483 + (2.326 \times 3 \text{ jokalarari} \times 0,2 \text{ jokoaren prezioa})$
Galizia	3.588,00	7.176,00	9.115,20	$7.344 + (2.952 \times 3 \text{ jokalarari} \times 0,2 \text{ jokoaren prezioa})$
Errioxa	3.640,00	7.280,00	9.150,00	$7.650 + (2.500 \times 3 \text{ jokalarari} \times 0,2 \text{ jokoaren prezioa})$
Madril	3.600,00	7.200,00	8.352,00	$7.200 + (1.920 \times 3 \text{ jokalarari} \times 0,2 \text{ jokoaren prezioa})$
Melilla	2.845,80	5.691,60	7.138,57	$5.797,57 + (2.235 \times 3 \text{ jokalarari} \times 0,2 \text{ jokoaren prezioa})$
Murtzia	3.620,00	7.240,00	8.740,00	$7.240 + (2.500 \times 3 \text{ jokalarari} \times 0,2 \text{ jokoaren prezioa})$
Nafarroa	2.845,80	5.691,60	7.138,57	$5.797,57 + (2.235 \times 3 \text{ jokalarari} \times 0,2 \text{ jokoaren prezioa})$
Valentzia	3.832,86	7.665,72	8.144,15	$6.994,30 + (\%10 \text{eko kuota jokalarari bat} \times 3 \text{ jokalarari})$

(*) Kuota finkoak ez du erreargua islatzen.

"C" MOTAKO MAKINAK	Jokalari 1	2 jokalaria	3 jokalaria	Formula
Estatua	4.020,77			
Andaluzia	4.623,89			
Aragoi	5.354,00	10.708,00	15.316,00	10.708+(1536 x jokalaria-kopurua)
Asturias	5.300,00			
Balearr uharteak	4.946,00	9.892,00	11.717,07	9.892+(4.946 x jokalaria-kopurua x 0,123)
Kanariak	4.207,08			
Kantabria	5.600,00	11.200,00	16.000,00	11.200+(1600 x jokalaria-kopurua)
Gaztela eta Leon	5.265,00	10.530,00	10.530,00	Bi kuota 8 jokalaria arte, 8tik aurrera: 877 € x jokalaria
Gaztela-Mantxa	5.300,00			
Katalunia	5.264,00	10.528,00	15.268,00	2632+(395 x jokalaria-kopurua) x 4
Ceuta	4.020,77			
Euskadi (*)	4.025,00	8.050,00	9.257,50	8.050-(8.050eko %15 x 2tik gorako jokalaria bakoitzeko)
Extremadura	4.617,00			
Galizia	5.236,00			
Errioxa	5.720,00	11.440,00	17.160,00	Kuota bat jokalaria bakoitzeko
Madril	5.400,00			
Melilla	4.020,77			
Murtzia	5.300,00	10.600,00	15.900,00	Makina eta jokalaria bakoitzeko
Nafarroa	4.020,77			
Valentzia	5.950,50			

daude; jarraian erantsi dugun maximoen eta minimoen taulan argi ikus daiteke hori hala dela:

Jarraian, autonomia-erkidego bakoitzak joko-mota bakoitzean aplikatzen dituen zerga-tasei buruzko gutxi gorabeherako zenbait taula-laburpen erantsi ditugu:

Halaber, nabarmentzeko modukoa da Gaztela-Mantxako Erkidegoak ezartzen duen tasa murriztua kasino sortu edo

instalatu berrientzako; horiei, %10eko tasa aplikatzen zaie. Hasieran emandako baimenak iraun bitarteko ekitaldietan edo automatikoki ezeztu bitartean sortutako kuotei aplikatzen zaie tasa murriztu hori.

Makina guztiei ez zaie kuota finko bera aplikatzen, makina horietan jokoan aritu daitezkeen jokalaria-kopuruaren arabera koa baita. Beraz, komenigarria iruditu zaigu taula horiek

eranstea, agerian uzten baitute, C motako makinei dagokien batez ere, zerga-alde handiak daudela erkidegoen artean.

Ondorioak

1. Aztertutako estatu gehienetan bada jokoaren alorrean zerga-sistematik (azterketa honetan, jokoaren gaineko zerga izen-datua). Horrezaz gain, zenbait estatuk zehaztasunen bat erantsi dute jokoarekin lotutako Sozietateen gaineko Zergan.
2. Oro har, jokoaren gaineko zerga badago ere, alde handiak daude estatuaren artean; alde handienak, batez ere arautu beharreko zerga-oinarriaren ingurukoak dira, lege-esparrupekoa baita, baina bai eta zerga-oinarria zehazteko moduen artean ere.
3. Espainiako estatuari dagokionez, ondoriozta dezakegu autonomia-erkidego gehienek antzera arautu dutela jokoaren gaineko zerga eta Espainiako araudiak ezarritakotik gehiagi alden du gabe. Autonomia-erkidegoetako araudien artean dauden aldeak dagokionez, honela laburbil genitzake:
 - Beste makina-mota bat zergapetzen da, B eta C motako makinez gain.
 - Zenbait autonomia-erkidegok berariaz arautzen dute bingo-jokoa, eta jokalariei ere eragiten die zergak.
 - Zenbait autonomia-erkidegok zori, enbido edo ausazko jokoek zorpetzen duten zergaren gaineko errekaru bat arautu dute. Dena dela, horietako zenbaitek deuseztatu egin dute eta, hortaz, badirudi erabat deuseztatzearen aldeko joera nagusitzen ari dela.
 - Alde nabarmenak zerga-tasenean.

2.2.6. Online jokoaren araudia

Azken urteotan, jokoaren sektoreak izugarritzko gorakada izan du, batez ere teknologia berriek joko horiekiko eragin handia izan dutelako. Horrek guztiak eragin du estatuak horren inguruko lege-esparrua egoera berrira pixkanaka egokitu behar izatea. Horren ildotik, kezka handienetako bat telematika bidez gauzatzen diren joko-jarduerak arautzea izan da, halako jokoek lurralde osoa hartzen dutelako batez ere eta, halaber, oso zaila delako horiek kontrolatzea eta halako jokoak osatzen dituzten elementuak kontrolatzea.

Beraz, nahikoa arrazoi badugu, azaldutako joerak eta araudi-ereduak abiapuntu hartuta, joko interaktiboaren inguruan nazioartean dauden legegintza-joerei buruzko aipamen bere-

zia egiteko. Hala, egun dauden joerak, funtsean, hiru multzo hauetan sailka daitezke:

- Online jokoa araututa eta baimenduta dago
- Online jokoa araututa eta debekatuta dago
- Online jokoa ez dago araututa

Online jokoa arautzen eta baimentzen duten sistemak

Legegintza askok egin diote aurre jokoaren alorrean sortu berri den egoerari, eta arautu egin dute, neurri batean, online jokoa, bai eta baimendu ere areto fisikoetan jokatzen diren joko tradizionalak arautzen diren modu berean. Dena dela, online jokoei dagokionez, kontrol-neurri ugari ezarri dituzte, jarduera horiek inongo ondorio kaltegarriak eragin ez ditzaten.

Hala egin dute Erresuma Batuak (eta estatu eta administrazio kideek, britainiar uharteek, Gibraltarrek eta Maltak, esaterako), Italiak, Madrilgo Autonomia Erkidegoak eta Holandak. Herrialde horiek xedapenak ezarri dituzte legegintza-esparruan online jokoa arautzeko, eta guztiek, halaber, legezkatat hartzen dute baimendutako operadoreek garatutako joko interaktiboa. Egoera berbera dute, besteak beste, Hegoafrikako Errepublikak eta Ameriketako Estatu Batuak.

Joera horren barruan, badira alde txikiak araudien artean eta, hortaz, hiru azpijoera bereiz daitezke:

• Erresuma Batua

Jokoari buruzko lege-esparruak zehazten dituen elementu ia gehienetan bezala, legegintza-joera berritzaileenetako bat eskaintzen du Erresuma Batuak joko interaktiboaren alorrean. Hauek dira, funtsean, joeraren oinarriak: (i) online jokoa legezkoa da; (ii) online jokoari buruzko kontrol-neurri ugari ezarri dituzte; eta (iii) kontrol-neurri arinagoak ezarri dituzte zerrenda zurian (*White List*) aipatzen diren zenbait herrialdeetako operadoreentzat, hau da, Erresuma Batuak on-tzat ematen dituen kontrol-neurriak dituzten herrialdeetakoentzat. Laburpen gisa, hauek dira 2005eko *Gambling Act* Legeak online jokoaren alorrean xedatutako ezaugarri garrantzitsuenak:

Ezarpen-eremua: Areto fisikoetan ustia daitezkeen joko-jarduera berberak modu interaktiboan ustiatzeko lizentziak ematen dira, inongo salbuespenik gabe.

Baimenak: Gainerako jarduerentzako xedatutako baimen-araubide berbera ezartzen da (kopuru- eta denbora-mugarik gabeko baimenak pertsona fisiko zein juridikoentzat, inongo nazionalitate-mugarik gabe); dena dela, baldintza berezi batzuk betetzea eskatzen da:

- Jarduera ustiatzeko erabiltzen diren tresna informatikoak fisikoki lurralde britainiarrean egon behar dute eta horiek Batzordeak egiaztatu behar ditu. Batzordeak baldintza hori bertan behera utz dezake, atzerriko tresna informatikoek beharrezko kontrol-sistemak betetzen dituztela hautematen badu. Praktikan, zerrenda zurian erantsita dauden herrialdeetan dauden sistema informatikoak baimentzen ditu Batzordeak.
- Tresna informatikoek zenbait estandar tekniko bete behar dituzte, batez ere, barne-kontrolako sistema bat ezartzeko premiarekin zerikusia dutenak; kontrol-sistema horrek aukera eman behar du, zenbait egoera larritan, besteak beste, honako hauetarako: (i) jokalariaren oinarritzko datuak kontrolatzeko eta egiaztatzeko (jatorria, bankuko kontu-zenbakia eta adin handikoa dela); (ii) jokalariari jokoari buruzko arauak eta jokatu ahal izateko alderdi teknikoak ezaugarazteko; (iii) segurtasun-sistema jartzeko, iruzurra gerta ez dadin; eta (iv) gerta daitezkeen kapital-zuriketak eragozteko.
- Ezinbestekoa, inongo salbuespenik gabe, negozioaren kudeaketaz arduratuko diren pertsonen lizentzia pertsonalak eskuratzea (*Management Office*) eta eragiketarako fisikoki egitea (*Operational Function*).
- Ezinbestekoa da aretoarentzako baimena eskuratzea (nahiz eta "areto birtuala" izan), gainerako jarduerak dituzten baldintza berberetan.
- Debekatu egiten da zenbait estatutako herritarrei joko-zerbitzuak eskaintzea, kapital-zuriketa eragin dezaketen eragiketarako eragozte aldera.

Publizitate-araubidea: Gainerako jardueretarako ezarritako publizitate-araubide berbera xedatzen da.

Zehapen-araubidea: Gainerako jardueretarako ezarritako zehapen-araubide berbera xedatzen da, joko-motak berak berez dituen zenbait berezitasun erantsita. Besteak beste, gehieneko 51 asteko espetze-zigorra edo 5. mailako isuna

xedatzen da, debekatuta dauden lurraldeetan bizi diren pertsonen joko-zerbitzuak eskaintzen dituzten operadoreentzat.

• Britainiar uharteak, Gibraltar eta Malta

Legeak emateko eskumena duten administrazio horiek online joko-zerbitzuen esportatzaile-potentzia hutsak dira, eta joko interaktiboari buruzko arau-xedapen zabalak eta osoak dituzte.

Gambling Act Lege britainiarrak ezarritako baldintza tekniko eta lege-baldintzen oso antzeko baldintzak ezartzen badituzte ere, interesa duten operadoreak behartu egiten dituzte egoitza soziala estatu edo barruti horren barruan edukitzera. Halaber, administrazio horietako bakoitzak berezitasun hauek ditu:

Britainiar uharteak

Ez da ezinbestekoa online joko-zerbitzuak emateko erabiliko diren tresna informatikoak fisikoki bere lurraldean egotea.

Malta

Ezinbestekoa da fisikoki estatuan egotea; hau da, operadorearen establezimendu fisiko iraunkorrak Maltako lurraldean egon behar du. *Remote Gambling Regulations 2004* izenekoak *Call Centre* deitzen dio establezimenduari. Halaber, lizentziak ez dira denboran mugagabeak, gehienez bost urteko iraupena dute, berritzeko aukerarekin. Halaber, bermetarako fondo iraunkorra edukitzeko betebeharra ezartzen du, nahikoa funts izango duena sari handiak behin-behinean ordaindu ahal izateko.

• Frantzia, Holanda, Madrileko Autonomia Erkidegoa eta Malta

Joko interaktiboko jarduerak garatzeko baimena ematen duen hirugarren estatu- edo barruti-multzoa estatu hauek osatzen dute: Frantzia, Holanda, Madrileko Autonomia Erkidegoa (apustuen negozioan soilik) eta Italia. Horiek guztiek badute ezaugarri komuna: norberaren lurraldearen barruan, operadore nazionalak soilik eskaini ditzakete zerbitzuak. Hortik aurrera, irizpide desberdinak ezartzen dituzte beren xedapenetan; horiek, funtsean, araudi britainiar, maltar eta barruti britainiarretan ezarritakoen oso antzekoak dira, neurri handi batean.

Frantzia

Frantziako araudiak online jokoak ustiatzeko baimena *Française de Jeux* izenekoari soilik ematen dio edo, jarduera-motaren arabera, *Pari Mutuel Urbain* izenekoari.

Nabarmentzeko modukoa da beste herrialde batzuetan baimenduta dauden online jokorako operadoreekiko Frantziak ezartzen duen kontrola. Izan ere, Frantziako epaitegiek *BWIN* izenekoaren kargu handiko austriarrak atxilotzeko agindua eman zuten, Frantziako Lehen Mailako Futbol Ligako AS Monako futbol-taldea diruz laguntzeagatik.

Holanda

Berezitasun hauek ditu Holandako araudiak:

- Epealdi mugatuko proba esperimentalak da, hiru urteko iraupenekoa.
- Lizentzia bakar bat ematea xedatzen da, *Holland Casino* izenekoari.
- Joko tradizionaletarako ezarritako araudi orokorra ezarri da joko-jarduera horietarako, kopuru-mugari eta baldintzei dagokionez, eta ustiapenarekin lortutako etekinaren erabilerrari dagokionez.
- Holandako IPen bitartez soilik sar daiteke joko-jardueratara.
- Holandako bankuetako kontuetatik soilik ordain daiteke.

Madrileko Autonomia Erkidegoa

Madrileko Autonomia Erkidegoko araudiaren ezaugarri nabarmenena da, batez ere, apustuen negozioari buruzkoa soilik izatea.

- Gehienez hiru baimen ematea ezartzen du, lehiaketa publiko bidez; baimenak bost urteko eperako ematen dira, berritzeko aukerarekin.
- Ez da ezinbestekoa autonomia-erkidegoan edukitzea egoitza soziala, baina bai zerga-egoitza edukitzea eta bertako Jokoaren Erregistro Nagusian izena emanda izatea.
- Madrileko Autonomia Erkidegoan soilik eman daitezke zerbitzuak.
- Kontrol-sistemak ezartzen dira, araudi britainiarrean ezarritakoak oinarri hartuta.

- 10 milioi euroko aseguru-poliza kontratatzeko betebeharra ezartzen du.

Italia

Italiako araudiak ez du berrikuntza berezirik eskaintzen, orain arte aztertutako araudietan xedatutakoarekiko. Funtsan, hauek dira ezaugarriak: (I) ezinbestekoa da egoitza soziala Italiako lurraldean izatea; (II) zerbitzuak soilik Italiako merkatuan eskaintzea baimentzen du; (III) bakarrik hiru baimen eman daitezke joko interaktiboko jarduerak ustiatzeko; eta (IV) xedapen britainiarretan oinarritutako kontrol-sistemak ezartzen ditu. Dena dela, Italiako araudiak badu berezitasunik: baimenik ez duten domeinuetan herritar italiarrak tresna informatiko italiarretatik sartzea eragozteko metodoa du. Polizia italiarrak duen berriarazko unitate batek egunero bidaltzen dio AAMS erakundeari Zerrenda Beltza izenekoak; hau da, sarean joko-zerbitzuak ematen dituzten Interneteko domeinuen zerrenda eguneratua. AAMS erakundeak, ondoren, Italian Interneteko zerbitzuak eskaintzen dituzten hornitzaileei bidaltzen die Zerrenda Beltza. Hornitzaile horiek, halaber, Zerrenda Beltzean adierazitako domeinuetan sartu nahi duten IP italiar guztiak AAMS erakundearen web-orrira bideratu behar ditu berriro, hor berriaz adieraziko baitzaie sartzen saiatu diren domeinua legearen aurkakoa dela.

Online jokoak araututa eta debekatuta dago

Online jokoak gizartean dagoen zerbait bada ere, zenbait estatuk, egun, legearen aurkako jardueratzat hartu dute beren araudietan. Joera horren aldekoak dira, besteak beste, Zipre, Grezia, Norvegia eta Ameriketako Estatu Batuak. Beste zenbait lurraldetan, Nafarroako Foru Komunitatean esaterako, online jokoak aurreikusten dute, baina, aldi berean, baimenduta dauden areto fisikoetatik kanpo gauzatzen diren jarduerak guztiak debekatzen dituzte. Hortaz, argi eta garbi adierazi gabe ere, debekatu egiten dute.

Estatu horiek arazo handiak izaten dituzte legearen kontrako jokoak kontrolatzen, eskaintza handia delako eta globalak eta inpertsonalak direlako. Ezarrita dituzten kontrol-sistemei da-

Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren sektoreak dituen erronkak



1. Sarrera

Atal honetan xehetasun handiz aztertuko ditugu ausazko jokoaren sektoreak dituen ahuleziak, mehatxuak, aukerak eta indarrak. Horrekin zerikusia duten alor guztiak lantzen saiatu gara; esate baterako: araudia, elkarteak, joko-eskaintza, informazioaren teknologiak, bezeroak, joko arduratsua eta herritarren babesa, publizitatea eta marketina, fabrikatzaileak edo hornitzaileak, sektorearen inguruko giza baliabideak eta zerga-alorra. Hala, Euskadin jokoaren sektoreak dituen erronkak identifikatzea da helburu.

Azterketa egiteko, ezinbestekoa izan da sektoreko eragile nagusiekin elkarrizketak egitea: enpresa pribatuak, sektoreko elkar-

teak eta jokoaren mendekotasuna duten pertsonen laguntzeko elkarteak. Lehendabiziko elkarrizketa-txanda hori egin ondoren, ondorio nagusiak dokumentu batean bildu genituen, eta lantailerra antolatzeko abiapuntu erabiltzeko balio izan zigun. Lantailer horretan, lehen aipatu ditugun sektoreko gizarte-eragile guztiek eta Eusko Jaurlaritzako zenbait sailek parte hartu zuten (Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza, Ogasuneko Zerga Administrazioiko Zuzendaritza eta Osasun Saila).

Hori guztia osatu dugu, halaber, Jokoaren Liburu Zuria egiten eman dugun denbora guztian hauteman ditugun gabezien bidez.



2. MIA azterketaren laburpena

	AHULEZIAK	MEHATXUAK	INDARRAK	AUKERAK
Legedia, araudia eta erregelamendua	Online joko / joko interaktiboari buruzko araudi gabezia Malgutasun eskasa	Debekatuztat hartutako jarduerei buruzko kontrolirik ez . Zeharka baimentzea eragin dezake	Egonkortasun juridikoa Garatutako eta aurreratutako esparrua	Arau-aldaketa onuragarriak, enpresen lehiakortasun eta herritarren babesaren arteko oreka errespetatzen dutenak
Produktuak eta zerbitzuak / Joko eskaintza	Hurrengo belaunaldiei eta ohiturei egokitu ez diren produktuak Mugikortasun gutxi	Jokoen arteko lehia gogorra Online joko ez legalak agertzea	Jokoaren eskaintza oso zabala Gogo ekintzaile handia	Modalitate berrien bultzada aprobetxatzea
Informazioaren teknologiak	Eragileen eskura dauden egiaztatutako teknologiarik ez sartzea	Erabiltzaileak ez du nahiko bermerik Interneten Egunean 24 orduz joka daiteke	Kudeatzeko tresna aurreratuak Jarduerari buruzko xehetasunezko informazioa kontrolatzea eta izatea	Kasu problematikoak hautematen eta auto-debekurako neurriak hobetu dira Kudeaketa eta sariak hobetu dira
Sektoreari lotutako enplegua eta giza baliabideak		Ohiko jokoei (joko aretoak, bingoa) lotutako lanpostuak gaitzea	Enplegu egonkorra	Modalitate berriei lotutako figura berriak eta enpleguak sortzea (lurreko apustu-etxeak)
Fabrikatzaileak eta hornitzaileak	Produktuen eta makinaren (B, BG motako makinak, bingoaren osagarriak, etab.) fabrikatzaile gutxi	Fabrikatzaileen artean lehia gutxi dago eta produktu berri gutxi	Esperientziako enpresak , finkatuta eta egonkorrak	Tokiko fabrikatzaileen merkatu-kuota hobetzeko ahalmena
Elkartek	Elkarte guztien arteko koordinazio eta lankidetzarik eza Jokoaren irudia hobetzeko lan gutxi Jokalarien elkarten profesionaltasun-maila eskasa	Jokalarien elkarten baliabide falta Jokalarien elkarten esperientzia falta ludopatia berrietan Jokalarien elkarten baliabideen eskasia	Erabat ordeztuta Jokalarien elkarten esperientzia	Gardentasuna eta informazioa, jokolariaren babesa, eskaintzaren kalitatea eta enpresarien diru-sarrerak hobetzea Elkarten arteko lankidetzaren hobea
Bezeroak	Biztanleria-segmentu bereziak Bezero berriak erakartzeko gaitasun gutxi	Jaitsiera	Egungo bezeroak ezagutzea	Jokoak osagarriak izatea
Joko arduratsua eta herritarra babestea	Adin txikikoak eta borondate-indar gutxiko pertsonak sartzeko zenbait jokotara Laguntza iturriei buruzko informazio eskasia	Joko eskaintza gora egiteak kontrol eta ikuskapenak txarrera egitea ekarri du	Atzemandako zehapen eta bidegabekeria- kopuru txikia	Herritarren babesa hobetzea
Publizitatea eta marketinga / Mugak eta arauak	Sektorearen irudi publiko txarra Internet bidezko jokoa legearen aurkakoa izateari buruzko informaziorik ez Publizitatean homogeneotasunik ez	Orekarik gabeko publizitate-mugak (jokoen eta lurreko/ Interneteko bertsioren artean)	Erregulatutako enpresek publizitate-arauei dioten errespetua	Irudi eta gardentasun hobea
Zerga-alorra	Zenbait kasutan, zergapetzea salmenta zifretan edo makina-kopuruan dago oinarrituta, errendimendu edo onurari lotuta egon beharrean Zergapetze bikoitza	Zerga-ordainketaren aldaketak Zerga-bilketan galerak kapital-ihesaren eraginez legearen kontrako negozioetara (Internet)	Sektoreari lotutako zerga-bilketa handia	Joko-modalitate guztiek duten ordaintzeko modua berriz diseinatzeko aukera

3. EAEn sektoreak dituen erronken xehetasunak

3.1. Legedia, araudia eta erregelamendua

Ahuleziak

Legediak duen ahulezia handienetako bat online jokoari buruzko araudi-gabezia da. Araututa dauden entitateek ezin dute bide hori erabilia lan egin, baina Euskadin joko-mota asko eskaintzen dira Internet bidez, eta operadoreak legearen aurka ari dira horiek abian jartzen.

Araudiaren inguruko beste ahulezia bat legearen malgutasun eskasa da; ondorioz, zaila, motela eta nekeza izaten da, askotan, makina berriak, joko berriak eta antzekoak ezar daitezen tramiteak betetzea.

Mehatxuak

Mehatxu garrantzitsua hau da: debekatutzat identifikatutako jardueri buruzko kontrol-gabezia; esate baterako, lehen ahuleziatzat identifikatutako online jokoari buruzko araudi-gabezia. Argi eta garbi adierazi gabe baimentzea edo zeharka baimentzea eragin dezake horrek guztiak. Online operadoreak sortzeaz gain, zailagoa da betikoak bizirik irautea. Internet bidezko jokoetan herritar gutxik parte hartzen badute ere, joera zein den garbi dago: urruneko jokoak operadore tradizionalak zuten merkatu-kuota hartzen ari dira pixkanaka.

Indarrak

Aztertzen ari garen alderdian, indar garrantzitsua da egonkortasun juridikoa. Esparru garatua eta aurreratua daukagu, bermeak eskaintzen dituen, eta baimendutako jokoei buruzko araudi osoa eta argia izatea eragin du horrek.

Aukerak

Hona hemen alor honetako aukera: gerora egingo diren arau-aldaketak enpresen lehiakortasuna eta herritarraren babesaren arteko oreka errespetatzera bideratuko dira.

3.2. Produktuak eta zerbitzuak / Joko-eskaintza

Ahuleziak

Ahulezia nagusia hau da: bingoek, joko-aretoek, ostalari-tzako makinek eta hipodromoek ez dituzte belaunaldi berriak erakartzen. Hari beretik jarraituz, biztanle-kopuru handi batentzat ez dira erakargarriak egun araututa eta eskura dauden jokoak eta, baliteke, azken 15 urteotan joko-eskaintza apenas ez aldatu izana izatea horren arrazoia. Egungo jokoek oso gutxi erabiltzen dituzte teknologia berriak eta oso antzekoak dira guztiak (B motako makinak, bingoak, aretoak, kasinoak...). Araudiak muga asko jartzeak eta, B motako makinaren kasuan, makina berriak jartzea oso garestia izateak eragin du, batez ere, hain gutxi berritza jokoaren sektorea. Makina gehienetan ezinezkoa da jokoak berritza makina bera erabat ordeztu gabe. Ondorioz, desberdintasun gutxi daude establezimenduen artean eta eskaintzen diren jokoen artean.

Mehatxuak

Egun araututa dauden jokoen artean eta apustu-etxeen artean lehia gogorra sortzeko arriskua dago. Horrez gain, bada bestelako mehatxurik: araututa dauden jokoek legearen kontrako erreplikak dituzte Interneten. Online operadoreen bitartez eskura daitezke joko-mota guztiak (kasinoak, slots eta skill games izenekoak eta pokerra, bingoa, apustuak...) eta, askotan, kalekoek baino sari handiagoak ematen dituzte. Araututa dauden operadoreek muga asko dituzte eta ezin diote lehiarik egin operadore birtualei.

Indarrak

Baimendutako joko-mota asko eskaintzen dira, eta Espainiako estatuak egiten duen eskaerarekiko indar handia du, bai eta Europako herrialde askok eskaintzen dutenarekiko ere.

Horrez gain, Euskadin finkatuta dauden enpresek gogo ekintzaille handia dute eta lagungarria izan daiteke negoziok egun daraman galerarako joerari buelta emateko, modalitate berrien bitartez eta establezimenduak berrituta.

Aukerak

Euskadin badira baimendu gabeko hainbat modalitate, eta joko horiek Europar Batasunean ere badaudenez eta horiek joko konpulsiboan izan dezaketen eraginei buruzko azterketak egin dituztenez, joko-mota gehiago sor daitezke (eta ez ezinbestez jokorako gune-kopurua), enpresen lehiakortasunaren eta herritarraren babesaren arteko orekari eusten zaiola.

Halaber, aurrerapen teknologikoak lagungarriak izan daitezke produktu berriak garatzeko eta daudenak aplikatzeko.

3.3. Informazioaren teknologiak

Ahuleziak

Teknologia berriak garatu direnez, joko- eta apustu-jardueren eskaintzak gora egin du, batez ere, Interneten, telefonian mugikorrek zerbitzuetan eta telebista interaktiboaren esparruan. Dena dela, egun merkatuan dauden eta eskura dituzten teknologia berriak operadoreek ezartzen ez dituztenez, hori da egungo ahulezia.

Mehatxuak

Interneten mugarik ez dagoenez, Euskadiko internautak errazago sartzen dira enpresa berrietan eta online jokoetan. Europako operadore garrantzitsuenek egoitza sozialak Interneten ausazko jarduerak edukitzearen alde dauden herrialdeetan dituzte eta herrialde horiek erregulatzen dituzte; esaterako, Ingalaterra, Gibraltar eta Malta. Baina, hala ere, operadore horietako asko ez daude herrialde horietan kokatuta eta, beraz, Euskal Herrian mota horretako zerbitzuak erabiltzen dituztenek ez dute berme juridiko askorik.

Bestalde, ezinbestekoa da adieraztea halako joko-motak irabazpide handikoak direla eta horrek arriskua dakarrela. Batetik, ez delako beharrezkoa establezimenduren batera desplazatzea eta, bestetik, egun guztian zabalik daudelako, 24 orduz, eta ez dago ordutegirik ez eta jokatzeko oztoporik ere. Halaber, enpresa operadore batzuek badituzte adin txikikoak hautemateko mekanismoak, baina gehienek ez dituzte.

Indarrak

Joko gehienak automatizatuta daudenez, errazago da datuak integratuta biltzea, eta horri esker kudeaketari buruzko informazio xehatua eskura daiteke. Halaber, joko-modalitateak kudeatzeko eta horiek zenbatzeko tresnak badira merkatuan, eta horiek baliagarriak dira ikuspegi integrala edukitzeko eta joerak berehala hautemateko (Adib.: Picmatic enpresaren IPS, B motako makinenzat).

Aukerak

Teknologiak jokoarekiko mendekotasuna murriztu zezakeen, joko problematikoa hautematen lagunduz. Adibidez eta fideltasun-txartelak egokiak diren ala ez balioetsi gabe, pertsona fisikoek fideltasun-txartelak izango balituzte, erabiltzaileek gastuaren historikoa aztertuko lukete, nor bere gastua mugatuko luke bai eta jokoan eman nahi duen denbora ere. Horrezaz gain, errazago izango litzateke autodebekurako neurriak ezartzea, inoiz kontrolik eduki ez duten jokoetarako.

Bestalde, aretoek makinak interkonexioan izango balituzte, sari hobeak jarri ahal izateaz gain, makinak kudeatzea ere errazago izango litzateke: ezustekoei aurre egin, arazoak hauteman, kudeaketa eta informazio integratua...

3.4. Sektorearekin zerikusia duen enplegua eta giza baliabideak

Mehatxuak

Sektorearekin zerikusia duen enplegu eta giza baliabideei dagokienez, litekeena da gero lanpostu gutxiago izatea, batez ere, bingoa dela eta. Joko-mota horrek gero eta mozkin-marjina txikiagoa uzten du eta diru-sarrerak ere txikiagoak dira eta, beraz, azken urteotan zenbait bingo itxi dituzte. Horrenbestez, joera hori ez bada aldatzen, litekeena da bingo gehiago ixtea eta horrek, jakina, lanpostuak galtzea dakar. Bingoa da zuzenean enplegu gehien sortzen duen joko-modalitateetako bat; 2007an 758 lagun ari ziren lanean.

Indarrak

Indarren artean, nabarmentzeko modukoa da azken urteotan sektorean sortu diren enplegu egonkor samarren kopurua;

horien etorkizuna negozioak izan dezakeen arrakastaren baitan dago ia erabat.

Aukerak

Hiru apustu-etxeak enplegu-iturri izango dira zalantzarik gabe, establezimenduak zabaltzen diren eta negozioa garatzen den heinean. Halaber, nahiz eta gutxi batzuk baino ez izan, profil kualifikatuagoko enpleguak sortuko dira; esate baterako, arrisku-analistak.

3.5. Fabrikatzaileak eta hornitzaileak

Ahuleziak

Jokorako makinak eta horien osagarrien (B eta BG motako makinak, bola-ateragailuak...) fabrikatzaileei dagokionez, gutxi batzuen esku dago nabarmen. Enpresaburuek diote Euskadin homologazioak egitea oso zaila dela, eta horregatik gertatzen dela hori. Horrezaz gain, adierazi dute euskal merkatua txikia izatea (batez ere, C motako makinak eta kasinoetako osagarrien kasuan) ez dela nahikoa arrazoi, homologazioa hain garesti eta nekeza izateko. Gutxi batzuen esku egoteak eragin du jokoak heterogeneoak ez izatea eta produktu-mota gutxi edukitzea.

Mehatxuak

Lehia gutxi izango duen oligopolioa sortzea mehatxua izan daiteke. Horren aldeko edozein joera kaltegarria izan daiteke enpresaburuentzat eta herritarrentzat.

Indarrak

Nolanahi ere, merkatua hala antolatuta egoteak alde onak ere izan ditzake; izan ere, esperientzia handiagoa dute, makinak hobeto ezagutzen dituzte eta bezeroen eta enpresaburuen arteko harremana egonkorragoa da.

Aukerak

Tokiko fabrikatzaileen merkatu-kuota txikia da, eta horrek aukera ematen die tokiko merkatuan hazteko. Gertutasunak eta tokiko kasuistika ezagutzeak erraztu egiten du herritarrek zer nahi duten jakitea eta, hala, eskaerari erantzutea. Joko-mo-

dalitate berriak baimenduz gero, tokiko fabrikatzaileek saturatu gabe dauden merkatuetan sartuko lirerateke, baldintza berdinetan.

3.6. Elkartek

Ahuleziak

Elkarteen arteko koordinazio eza da —horietako batzuk aldi berean zenbait elkartetako kide direnean ere gertatzen da— elkarre horietako bakoitzak berez duen ahulezia bat; koordinazio ezak, halaber, arazoak dituzten jokalariei zeharka eragiten die. Hala, egun araututa eta abian jarrita dauden negozioak beren artean erabat desberdinak badira ere (egituran, erregelamenduan, baldintzetan...), kezka eta proiektu berdin asko dituzte. Beraz, badute zertan elkarri lagundu eta, horrela, lobby egonkorragoa eta eraginkorragoa sortzea errazagoa litzateke. Halaber, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak duen egin-beharra erraztuko luke.

Enpresaburuen eta jokalarien elkarteen artean ere ez dago koordinaziorik ezta lankidetzarik ere, joko arduratsua sustatzeko neurriak hartu ahal izateko eta joko-modalitate berriak diseinatu ahal izateko. Horrezaz gain, ludopaten elkarreetan lanean aritzen diren pertsonak ez dute profesionaltasun-maila handirik, gehienak boluntarioak baitira eta, halaber, elkarre ez dute nahikoa dirurik izaten profesional gehiago kontratatzeke.

Mehatxuak

Jokalarien elkarre duten mehatxu nabarmenena baliabide eskasia da eta ahulezia bat eragiten du, horien profesionaltasunari dagokionez.

Indarrak

Hona hemen enpresaburuen elkarteen indarra: sektore guztia erabat ordeztuta dago; BAE, FVEJ eta ASE elkarteen kasuan %95 baino gehiago. Euskadin ez kasinoek ez eta apustu-etxeetako hiru esleipendunek ere, ez dute elkarterik.

Aukerak

Elkarteen artean lankidetzaren egongo balitz, gardentasuna, jokalariren babesa, eskaintzaren kalitatea eta jokoaren inguruko fakturazioa hobea izango litzateke.

3.7. Bezeroak

Ahuleziak

Joko-mota gehienetan bezero jakinak izateak eta biztanleria-segmentu berriak sartzeko aukera gutxi izateak (bingoa, B motako makinak, kasinoak, LAE, ONCE...) oztupo egiten dio sektoreak etorkizunean izango duen garapenari. Halaber, kontuan izan behar da bezero asko galdu direla azken urteotan, produktuak erakargarriak ez direlako.

Indarrak

Joko gehienetako bezeroak nolakoak diren jakin badakigunez, haiek eskatzen dutenari erantzutea errazagoa da.

Aukerak

Merkatuan joko berriak sartzea, bezero-segmentu berriak erakartzeko modua izan daiteke, egun bezero-xede ez direnak.

3.8. Joko arduratsua eta herritarraren babesa

Ahuleziak

Hona hemen hautemandako ahulezia nagusia: zenbait joko oso eskuragarri daude, eta neurri gutxi daude adin txikikoei eta borondate-indar gutxi dutenei sarrera debekatzeko. Horien artean, nabarmentzeko modukoak dira B motako makinak ostalaritzan eta makinak joko-aretoetan.

Batzuetan, adin txikikoentzat debekatutako makina dela dioen pegatina ezin da ondo irakurri eta txanponak sartzen eta ateratzen diren lekuetatik urrun jarrita daude. Sarrera kontrolatzeko mekanismoak ere ez dituzte establezimendu horiek guztiek, ez eta joko arduratsurako gomendioak edo jokalaritari laguntzeko telefono-zenbakirik ere. Internet bidezko operadoreek ere gabezia nabarmenak dituzte, adin txikikoei sarbidea kontrolatzeari dagokionez. Erantzukizun sozial korporatiboaren kontzientziak ez du modu berean eragin jokoaren azpisektore guztietan.

Mehatxuak

Ludopatía zenbait faktorek eragiten dute. Garrantzitsuenetako bat jokoak oso eskuragarri izatea da. Hala, eskaintzak gora egiten badu, eta kontrol-sistemak hobetzean ez badira eta laguntzeko sistemak hobetzen ez badira, joko problematikoen kasu-kopuruak gora egin dezake (ludopatía, arazoarekin zerkusua duen krimen-kopurua...).

Indarrak

Esanak esan, bada nabarmentzeko moduko datua: zehapen-eta bidegabekeria-kopuru txikia joko guztietan. Azken bost urteotan oso bidegabekeria gutxi hauteman dira.

Aukerak

Hona hemen alor honetako aukera: herritarrarekiko babesa hobe daiteke, informazioa hobeto emanda eta laguntzeko zerbitzuak hobetuta.

3.9. Publizitatea eta marketina / Mugak eta arauak

Ahulezia

Herritarrek jokoarekiko duten irudi txarra da jokoaren sektoreak duen ahulezia handiena eta, horrezaz gain, herritarrek jokoari buruz oso gutxi jakitea. Esate baterako, Internet bidezko jokoak legearen aurkakoa dela. Eskaintza handia denez, erabat legezkoa den itxura du.

Bestalde, online apustu-etxeei buruzko publizitatea legearen aurkakoa da, legez kanpo jarduten direlako eta, gainera, egiten duten publizitatea indarrean dagoen araudiaren aurkakoa delako.

Horrenbestez, ezinbestekoa da joko-mota guztiei buruzko araudia homogeneizatzea, horietako bakoitzak dituen bereizitasunak kontuan hartuta, operadore guztiek publizitatea egiteko aukera berberak izan ditzaten.

Mehatxuak

Inongo orekarik gabe publizitate-mugak ezartzea —esate baterako, online apustu-etxeen kasua— mehatxu handia da gainerako operadoreentzat.

Indarrak

Erregulatuta dauden enpresek publizitate-araubidea erabat betetzeak indarra izatea eragiten du, arauak benetan betetzen dituztenek erantzukizuna dutela erakusten baitu.

Aukerak

Aztertzen ari garen alderdiari dagokionez, sektorearen irudia hobetzea eta sektorea gardenago bilakatzea da aukera, aisialdiarekin lotura duela ikus dezaten lortzeko.

3.10. Zerga-alorra

Ahuleziak

Zerga-oinarriaren inguruko zergapetzea da ahulezia handiena; izan ere, kasu batzuetan finkoa da eta beste batzuetan diru-sarrerak berak dira. Zergapetze-modu horrek ez du kontuan hartzen ekitaldian izan daitezkeen galerak (aurretik ordaintzen baita) eta, halaber, karga bikoitza izatea eragiten du. Ez dituzte

soilik zerga horiek ordaintzen, Sozietateen gaineko Zerga ere ordaintzen baitute.

Mehatxuak


Edozein aldaketa zerga-arauetan, mehatxua izango litzateke, zerga-ordainketarekiko oso mende dagoen sektorea baita. Zerga-bilketan galerak izateko arriskua ere badago, kapital-ihesaren eraginez. Izan ere, halakoak gertatzen dira legearen aurkako negozioak egonez gero, eta hori da Internet bidezko apustu-etxeen kasua.

Indarrak

Sektorean jokutzen den diru-zenbatekoa kontuan izanik, diru-kopuru handiak ematen dituen sektorea da jokoarena. Hortaz, foru-aldundientzako eta erkidegoetako gobernuentzako diru-iturri garrantzitsua da.

Aukerak

Araudia berriz diseinatzeko aukera dago, joko-modalitate bakoitzak dituen ezaugarrietara egokituta.



D

Laburpen exekutiboa



1. Jokoaren sektorearen egoera ekonomikoa Euskadin

Jokoaren sektoreak eta apustuek Euskadin 1.365 milioi euro fakturatu zituen 2006. urtean; zenbateko horrek agerian uzten du baduela garrantzia Euskadiko aisia-eskaintzaren barruan. Ildo beretik jarraituz, egungo joko-motak eta zabaltzea aurreikusten diren apustu-etxeak kontuan hartuta, **Estatu guztian gure autonomia-erkidegoa da joko-barrietate handiena eskaintzen duena.** Espainian dauden jokoez gain —kasinoak, B motako makinak, bingoa, zaldi-lasterketetako apustuak eta loteriak (ONCE eta LAE)—, euskal herritarrek apustuak egin ditzakete herri-kiroletako lehiaketak direla-eta ere, zaldi-lasterketetako kanpoko apustuak egin ditzakete eta apustueterako terminaletan ere egin ditzakete apustuak.

Egun, jokoak Euskadin tradizio eta garrantzi handia badu ere, sektorea geldialdian dago; hortaz, ezinbestekoa da apustu-etxe berriek eragingo duten bultzada aprobetxatzea, sektorea berriz suspertzeko.

Jokatutako zenbatekoari dagokionez, B motako makinak dira arrakasta handien dutenak eta, ondoren, alde txikiarekin, LAEren jokoak, bingoa, kasinoak eta ONCE. Arrakasta gutxien, berriz, zaldi lasterketetako apustuek dute.

1999. urteaz geroztik, sektorea hazi egin da, urteko hazkunde-tasa konposatua %2,6koa izan da, eta horrek esan nahi du inflazioaren hazkunde-eritmoaren pare hazi dela. Nabarmen hazi diren joko bakarrak kasinoak eta Estatuko Loteria eta Apustuen jokoak dira.

Neurriz hazten ari delako eta heldutasuna duelako irudia du joko tradizionalaren sektoreak, eta beste muturrean ditugu online ausazko jokoak; izan ere, azken horiek Euskadiko Jokoen Katalogoan jasota ez badaude ere, aurten %50 haztea aurreikusten da. [1] 2006. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan hoge milioi euro jokatu zirela kalkulatu da [1].

Kasinoa da azken urteotan gehien hazi den jokoak. 1999. urteaz geroztik bisitari-kopuruak behera egin badu ere, **bisitari horietako bakoitzak jokatutako zenbatekoak gora egin du.** Estatuko gainerako lurraldeetan kontrako gertatu da. Bisitari-kopuruak gora egin du, 1999. urteaz geroztik hamahiru kasino zabaldu direlako agian, eta bisitari bakoitzak jokatutako diru-zenbatekoak behera egin du. Joerak behe-

ranzkoak badira ere, 1999. urteaz geroztik azpisektorearen urteko hazkunde tasa konposatua (ingelesez, CAGR) %6,19koa izan da Euskadin eta %7,36koa Espainiako estatu osoan.

Euskadin bi kasino daude: Bilboko Gran Casino Nervión kasinoa eta Donostiako Gran Casino Kursaal kasinoa.

B motako makina arrakasta handia duen joko-modalitatea da Euskadin. Horren haritik, B motako 10.272 makina daude ostalaritzako establezimenduetan eta 1.500 jolas-aretoetan. Hau da, merkatu-kuota handien duen jokoak da, jokatutako zenbatekoak kontuan hartuta. Inkoherentea dirudi, baina jokoez itzultzen duten ehunekoen artean alde handiak daudelako gertatzen da, eta B motako makinak LAEren jokoez baino gehiago itzultzen dute.

Makina-kopuru handia badago ere, oso antzekoak dira ostalaritzan zein joko-aretoetan dauden modeloak. Hau da, makina guztien %49, hain zuzen, lau modelo zehatzekoak dira.

Makinen sektoreari dagokionez, jokatutako zenbatekoaren urteko hazkunde-tasa konposatua %1,11koa da Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) eta %0,82koa Espainian. Beraz, balio nominaletan hazi egin da, baina benetako balioetan behera egin du.

Bingo-jokoaren egoera ez da oso ona, Euskadin tradizio handia badu ere. Egungo merkatu-kuota %10ekoa bada ere (Espainian %13koa), 1999. urteaz geroztik bingo-kopuruak %24 egin du behera. Sektoreko profesionalak esaten dutenaren arabera, jokoaren zergapetzea oso handia delako gertatu da. Adierazi dute, halaber, enpresek etekin-marjina txikia ateratzen dutela eta, ondorioz, halabeharrez garestitu behar izan dituztela kartoiaren prezioak. Beraz, joko garestia bihurtu da eta, ondorioz, jende gutxiagok jokatzen du. Dena dela, bingo jokoa dagokionez, jokatutako zenbatekoaren urteko hazkunde-tasa konposatua (ingelesez, CAGR) %3,48koa da Euskadin eta %3,47koa Espainian.

Estatuko Loteria eta Apustuen (gaztelaniaz, LAE) erakundeak kudeatzen dituen jokoak dira benetako

[1] AEDAPI.

gastu handien eragiten dutenak Euskadin, jokoan barruan. Dena dela, B motako makinetan baino diru gutxiago jokatzen da. **Egun, merkatu-kuota %38koa da gure autonomia-erkidegoan,** eta %33koa Espainian. Hazkundera ere nabarmentzeko modukoa da, gainerako jokoekin alderatuz gero. 2000. urteaz geroztik, LAEren urteko hazkundera konposatua %4,46koa da Euskadin eta %6,02koa Espainian. Seguruena, Euromiloi joko 2004. urtean merkaturatzeak eta Interneten erabilerak bultzatu du joera halakoa izatea.

ONCE erakundearen jokoak dira, bestalde, merkatu-kuota txikien dutenak, jokatutako diru-zenbatekoari dagokionez. Hori hala da Euskadin zein Espainian, merkatu-kuotak %5ekoa eta %7koa baitira, hurrenez hurren. Horrez gain, benetako gastuak behera egin du, %3,27 EAEn eta %2,09 Espainian. Halaber, hauteman dugu joera beheranzkoa dela, nahiz eta erakundeak diru-kopuru handia inbertitu publizitatean.

Euskadiko joko-eskaintzaren barruan, zaldilasterketetako apustuak ere sartzen dira, barrukoak (hipodromoan bertan egiten diren apustuak) **zein kanpokoak** (kanpoko terminaletan egiten diren apustuak). 2006. urtean 2,8 milioi euro jokatu ziren; kopuru handi samarra da, kontuan hartuz gero zaldi-lasterketak soilik uda partean izaten direla.

2007. urtean apustu-etxeak jartzeko hiru lizentzia eman ziren. Horien artean, guztira, 75 establezimendu zabaldu eta 1.500 makina instalatu ahal izango dituzte, hiru lurraldeetan barrena.

Azkenik, adierazi nahi dugu Euskadin jokoaren sektorearen eskaintza osatzen dutela herri-kiroletako eta pilotako lehiaketak direla-eta egiten diren apustuek.



2. Jokoaren sektorea Euskadin 2005/2006, begi kolpe batean

Kasinoak ^[1] Merkatu-kuota: %6,8	Zenbaki eragigaia	2
	C motako makinak	80
	Langileak	250-270 lagun ^[2]
	Jokatutako kopurua	86.760.000 €
	Zerga-bilketa	4.277.330 € ^[3]
Bingoak ^[1] Merkatu-kuota: %10	Zenbaki eragigaia	19
	B motako joko-makinak	>228 (12 bingo bakoitzeko)
	Langileak	Zenbatetsita 758 ^[2] (legearen gutx. 76)
	Jokatutako kopurua	142.410.000 €
	Zerga-bilketa	38.497.990 € ^[3]
B motako makinak ^[1]	Jokatutako kopurua	545.050.000 €
	Zerga-bilketa	36.515.240 € ^[3]
Ostalaritza	Makinen kopurua	10.272
	Langileak	616 (makina bakoitzeko 0,06 pertsona) ^[5]
Joko-aretoak Merkatu-kuota: %40	Zenbaki eragigaia	93
	B eta B+ motako joko-makinak	1.500
	Langileak	300 – 500 lagun ^[6]
Zaldi-lasterketetako apustuak ^[7]	Hipodromoak	1
	Kanpoko apustuen tokiak	16 (10 Gipuzkoa, 6 Bizkaia)
	Lasterketak	72
	Langileak	12 (lasterketa garaian 142)
	Barneko apustua	1.083.161 €
	Kanpoko apustua	1.802.652 €
Apustu-etxeak ^[1]	Lizentzien kopurua	3
	Baimendutako makinen kopurua	1500 (500 lizentziako)
	Baimendutako establezimenduen gehieneko kopurua	75 (25 lizentziako)
Onlineko apustuak ^[8]	Erabiltzaile aktiboak	88.000* Estatu osoan erregistratuta (2005) 20.000.000* € (2006) ^[9]
	EAE n jokatutako kopurua	413.000.000* € (2006)
	Estatuan jokatutako kopurua	
	Publizitaterako inbertsioa	32.645.182* € (2005)
LAE Merkatu-kuota: %38	Salmenta-tokien zenbatekoa	587
	Jokatutako kopurua	525.000.000 €
ONCE ^[10] Merkatu-kuota: %5	Salmenta-tokien zenbatekoa	812
	Jokatutako kopurua	65.000.000 €

^[1] Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

^[2] Kursaal eta Nervión Kasinoak.

^[3] Eusko Jaurlaritzako Ogasuneko Zerga-koordinazioa.

^[4] Euskadiko bingo elkartuak.

^[5] Euskadiko Euskal Enpresaburuen Federazioa.

^[6] Euskadiko Joko-aretoen Elkarteak.

^[7] Hipódromos y Apuestas Hípicas de Euskadi, S.A. Merkatu-kuota ez da kontuan hartu datu historikorik ez egoteagatik.

^[8] (Apustularien Espainiako Elkarteak) AEDAPI-ren datuak.

^[9] PricewaterhouseCoopers-en estimazioak, AEDAPIren datuetan oinarrituta.

^[9] LAEren Euskadiko probintzia ordezkariak.

^[10] ONCEren Euskadiko probintzia ordezkariak.

3. Euskal herritarrek jokoaren inguruan dituzten ohiturak

Inkesta 1.000 euskal herritarri egin zaie, eta jokoaren inguruan dituzten ohiturei eta iritziei buruzko datu interesgarriak atera ditugu. 1990. urtean beste inkesta bat egin zen, eta harrezkero euskaldunen ohiturak asko aldatu ez badira ere, aldatu egin dira jokatzeko arrazoiei buruzko iritziak eta jokoarekiko iritziak. Hona hemen nabarmentzeko moduko emaitzetako bat: inkestatutako ehuneko handi batek, **%49k, uste du dirua irabazteko jokatzeko duela jendeak**. 1990. urteaz geroztik asko hazi da hala pentsatzen duen herritarren ehunekoa.

Euskal herritarrek jokoari buruz irudi hobea dute; jende gutxiagok uste du jokia arriskutsua dela eta ondorio kaltegarriak ekar ditzakeela (%52,1 versus %58,2).

Herritarren ohitura sozialak ez dira aldatu. **Jokatzeko duela aitortzen duen biztanleriaren ehunekoa %67,6koa zen 1990. urtean eta %63,66koa 2007. urtean**. Halaber, biztanleriaren %57,59k uste du lehen baino gehiago jokatzeko dela egun; 1990. urtean %89,2k pentsatzen zuen hala.

Bezera-tipologia joko-motaren arabera bada ere, hau da jokalariren profila Euskadin: 45 urtetik 65 urte bitarteko gizonezkoa, soldata ertain-txikia duena. Jokatzeko dutela gutxi aitortzen dutenak unibertsitateko ikasleak badira ere, egunero gehien jokatzeko dutenak izateagatik nabarmentzen dira. Gehiago jokatzeko dute ezkondua edo bikotekidea duten herritarrek, ezkongabe eta alargun dauden herritarrek baino (%68,2, %59,8 eta %53,8, hurrenez hurren).

Teknologia berriei dagokionez, inkestatutako herritarren **%2,7k esan du Internet bidez jokatu edo apustua egin duela azken hilabeteetan**. Hau da, **60.000 euskal herritarrek jokatu du**. Nahiz eta hazi egin den, ez dirudi online jokia hedatu denik euskal gizartean.

Jokoak Euskal Herrian kutsu sozial handia du. **Gutxi gorabehera jokalariren %60k jokatzeko du beste norbaitekin batera**. Batez ere, senideekin eta lagunekin jokatzeko da. Badira sexuen arabera aldeak ere; %43,8 gizonezkoak jokatzeko bakarrik eta %30,1 emakumezkoak.

Lehen aipatu dugun jokoari buruzko balorazio ezkorra berretsi egin da, inkestatutako ehuneko handi batek ez baitu

ausazko jokoekiko konfiantzarik. **Horien %56k uste du trankiloki eta trikimailuak egiten direla jokoetan**. Engainua errazten egin daitekeen jokotzat aipatu dituzte B motako makinak, kasinoa eta bingoa. Jokatzeko moduen inguruko bermeei dagokionez, nabarmena da bitarteko tradizionalen aldeko joera; izan ere, %64k esan du seguruagoa dela bitarteko tradizionalak erabili jokatzea.

Administrazioaren esku-hartzeari dagokionez, **%38,5ek uste du jokia kontrolatzera mugatu beharko litzatekeela administrazioaren eginbeharra**. Inkestatuko %42,4k uste du joko guztiak baimendu egin beharko liratekeela eta %8,2k soilik du aurkako iritzia. Zenbait joko debekatu beharko balira, jendearen %84k esan du B motako makinak debekatu beharko liratekeela lehendabizi eta, ondoren, alde txikiarekin, kasinoa eta Internet eta eskuko telefonoen bidezko apustuak. Teknologia berriak biztanleriaren ehuneko txiki batek bakarrik erabiltzen baditu ere, Internet bidezko jokoak arriskutsutzat hartzen dira.

Euskal herritarrek adierazitakoaren arabera, zenbait joko debekatzeko arrazoia eragin dezaketen mendekotasuna da. **Jendearen %89,8k uste du B motako makinek mendekotasuna eragin dezaketela**. Inkestatuen arabera, kiniela da mendekotasuna eragiteko arrisku gutxi duen jokia.

Jokoaren arriskuak ezabatzeko babes-neurriak ere ebaluatu dituzte herritarrek. Inkestatuen %66,4k uste du ez daudela nahikoa neurri adin txikikoei eta jokalariek problematikoei sarrera debekatzeko; herritarrek ez dute jokalariek babesteko elkarrekin eskaintzen duten informazioaren eta dauden laguntzen berri. Horren haritik, herritarren %89k ez du horietako bakar baten berri. Zenbateko hori txikiagoa da ohiko jokalarien artean: **egunero jokatzeko duten jokalariren %88,8k ez du eskura laguntzeko zerbitzuen berri**.

Azkenik, sektoreak egiten duen publizitateari buruz galdetu genien herritarrei, eta emandako iritzia aztertu dugu. **%81,2k uste du publizitateak eragina izan dezakeela jendearengan eta jendeak gehiago jokatzeko eragin dezakeela**. Hala, herritarren %52k egokitzen hartzen du publizitatea mugatzea, adin txikikoak eta mendekotasun-arazoak dituzten pertsonak babeste aldera; %16 publizitate oro baimentzearen alde dago; eta %20k ez luke inongo pu-

4. Jokoari buruzko araudia Euskadin

Euskal erakundeek dute eskumen eksklusiboa joko, apustu eta kasinoen alorrean. Hau da, eskumena dute, eksklusiboa, jokoaren sektorearekin zerikusia duten legegintzako eta exekuzioko funtzio guztietarako. Dena dela, eksklusibotasun hori EEIn ezarritako helburuetara eta politiketara lotuta eta mugatuta dago; izan ere, erkidegoko erakundeen eta estatu kideen artean partekatu behar dira jokoaren inguruko eskumen horiek. Beraz, erkidegoko erakundeek egokitzat hartzen dituzten neurriak har ditzakete, estatu kideren bateko araudiak erkidegoak ezarritako helburuak eta printzipioak urratzen badiu edo ezin baditu horiek behar bezala lortu.

Aipatutako eskumen eksklusibo horren babespean, euskal erakundeek arau-esparru zabala ezarri dute jokoaren sektorearentzat. Hau da, izaera orokorreko arauak zein alor jakinak arautzekoak onartu dituzte eta, hala, araudi orokorra garatu dute, eta jokoaren sektorearen barruan sartzan diren negozio bakoitzerako berariazko arau-esparrua osatu dute. Arau-esparrua zortzi elementutan laburbil daiteke, eta horietan jasotako edukiak ematen du Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duen arau-esparruari buruzko diagnosiaren berri.

1. Ezarpen-eremua. Euskal araudiak, jokoaren alorrean, jarduera legezkoa dela hartzen du abiapuntutzat; hau da, jokoak Euskadin legezkoa da. Dena dela, joko-jarduera antolatzen edo kudeatzen duenak profesionaltasun-maila jakin bat lortzen duenean, irabazi-asmoa duenean kudeaketan eta apustuetan muga ekonomiko jakinak gainditzan direnean (lanbide arteko gutxieneko soldata), joko-jarduera hori ustiatzeko aurretiazko baimena izan behar da, eta gero Administrazioak kontrolatu beharrekoa da.

Horren haritik jarraituz, Euskadiko Jokoen Katalogoan erantsita eta araututa dauden jokoak soilik baimen daitezke, eta gainerako guztiak debekatuta daude. Nolanahi ere, Jokoen Katalogoak joko-sorta handia hartzen du bere baitan, eta bat dator gizartearen egoerarekin eta eskaerarekin. Hau da, herritarrek ezagutzen dituzten eta jokatzen dituzten ia joko guztiak baimenduta daude baina, jakina, beste alor bati buruzko arau-esparruak debekatzen dituen jarduerak edo herritarren oinarritzko eskubideak urratzen dituzten jarduerak izan ezik. Hain zuzen ere, baimenduta dauden joko-motak

bost negozio hauetan sailka daitezke: (i) jokorako makinak, (ii) bingoak, (iii) kasinoak, (iv) apustuak eta (v) zozketak.

Lehen esan duguna aintzat hartuta, begi-bistakoa da azken urteotan joko-mota berriak garatu direla. Joko horiek, pixkanaka, baimendutako joko-sortan erantsi dituzte Europako autonomia-erkidego eta herrialde gehienek, baina Euskadin, egun, ez daude baimenduta. Hala gertatzen da, esate baterako, zenbait poker-motarekin kasinoetan eta beste bitarteko batzuk erabilia (batez ere, Internet, telebista edo telefonia mugikorra) herritarrek eskura dituzten jokoei dagokienez.

2. Baimen-araubidea. Joko-jarduerak ustiatzeko Administrazioak alde aurretik eman behar du baimena; negozio jakin batzuk ustiatzeko, halaber, baimen bat baino gehiago behar da, jarduerari dagozkionak. Hori hala izanik, bi baimen-prozedura daude. Batetik, araututako baimen-prozedura; hau da, araudiak ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztenentzako eta bertan ezarritako epealdian eta moduan eskatzen dituztenentzako baimena lortzeko (esate baterako, jokorako makinak, bingoa eta ausazko konbinazioak). Eta bestetik, esku-hartze eta kontrol handiagoa eskatzen duen prozedura, eta Administrazioari hautatzeko marjina handiagoa ematen diona; hau da, lehiaketa publikoa. Azken prozedura horrek, publikitate-printzipioa eta lehia-printzipioa ditu oinarri, eta kopuru aldetik mugatuta dauden jarduerari aplikatzen zaie (esate baterako, kasinoen, apustuen eta zozketen inguruan).

Nolanahi ere, adierazteko modukoa da euskal araudiak ez duela jarrera protekzionistarik jokoaren alorrean, eta ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko eta juridiko guztiak, baldintza berberetan, dutela aukera joko ustiatu ahal izateko baimena lortzeko. Ez ditu mugak ezartzen, esaterako, nazionalitatearen ingurukoak, nahiz eta noizean behin interesatuari eskatzen zaion EBko estatu kideren batean izatea egoitza soziala.

3. Areto baimenduak. Euskal araudiak, joko-jarduerak ustiatzen diren lokalak seguruagoak eta egokiagoak izatea lortze aldera, bai eta horiekiko kontrol handiagoa edukitze aldera ere, areto guztiak aurretiazko baimena eskuratzeko betebeharra ezartzen du, joko-jardueraren bat garatu nahi izanez gero horietan. Horrezaz gain, gehienetan, negozio bakoitzerako berariazko aretoak soilik baimentzen ditu joko-

areto izateko (kasinoak, bingo-aretoak, joko-aretoak, apustu-aretoak, kirol-esparruak...) eta, zenbait muga jartzen dizkie ostalaritzako aretoei eta gune publiko isolatu eta itxi jakin batzuei, ez baitie baimentzen herritarren begibistan jartzen. Ildo beretik jarraituz, Apustuen Erregelamenduan berariaz xedatutakoa izan ezik, eta Bingoaren Erregelamenduan egiten den aipamen labur bat izan ezik, joko-jarduerak zenbait baldintza eta ezaugarri betetzen dituzten areto fisikoetan garatzeko betebeharra ezartzen du euskal araudiak.

4. Muga pertsonalak, eskaintzakoak eta prezio eta sarien ingurukoak. Helburu hauek hartzen ditu kontuan: (i) joko-jardueren ondorio kaltegarriak eragozteko eta (ii) horiek ahalik eta kontrol handiena lortzea; hortaz, euskal araudiak zenbait muga pertsonal jartzen ditu jokalarientzat eta kudeatzaileentzat (adinez nagusi izatea, besteak beste), bai eta eskaintzaren inguruan eta apustuen prezioen eta horiek eragiten dituzten behin-behineko sarien inguruan ere.

5. Fidantzak. Negozio ia guztietan, operadoreek aurretik fidantza bat edo gehiago jartzeko betebeharra ezartzen da, jardueraren kudeaketak eragin ditzakeen ordainketa-betebeharrak beteko dituela bermatzeko.

6. Publizitatea. Jokoak osasun publikoan eragin dezakeen arriskua dela eta, joko-jardueri buruzko publizitate- eta sustapen-kanpainetikiko kontrol zorrotza ezartzen du euskal

araudiak, eta hartzailea konbentitzea helburu duten guztiguztiak debekatzen ditu. Negozio bakoitzerako dauden xehetasunak xehetasun, euskal araudiak ezarritakoari jarraiki, oro har, publizitate-kanpainaren berri alde aurretik eman behar zaio Joko Zuzendaritzari eta hark baimendu egingo du, beti ere, baldintza hauek betetzen badira: prentsan, irradian eta telebistan informazioa hutsik emateko publizitatea bada (azken bi horien kasuan, ordutegi-mugak jarrita); adingabeentzako ez diren kirol- edo erakunde-ekitaldiak sustatzeko bada; eta sektorean espezializatutako aldizkarietan edo prentsan egitekoa bada. Halaber, baimenduta dago, Administrazioari alde aurretik jakinarazi gabe, joko-areto barruan egiten den publizitate komertziala. Araubide horrek badu salbuespen garrantzitsu bat: berariaz debekatzen da jokorako makinei buruzko publizitate-mota oro.

7. Zehapen-araubidea. Administrazio-izaerako arau-hausteen eta zehapenen araubidea ezartzen da, eta oso antzekoa da negozio guztientzako; bertan ezarritakoaren arabera, 60, 10 euro eta 601.012, 10 euro bitartekoak dira zehapenak, arau-haustearen larritasun-mailaren arabera.

8. Zerga-araubidea. Jokoa baimentzea, antolatzea eta abian jartzea zergapetzeko da, jokoaren gaineko zergaren bidez, funtsean. Edonola ere, eduki-arauan gertatzen ez den bezala, legeak egiteko eskumena Euskadin, ikuspuntu fiskal orokorrari dagokionez, eta bereziki jokoari dagokionez, lurralde historikoetako erakundeei dagokie (Ekonomi Ituna). Lurralde historiko horietako bakoitzak nork bere arauak onartu ditu; arau horiek, funtsean, antzekoak dira eta, batez ere, jokoari buruzko zergaren ingurukoak dira.

5. Araudien joerak jokoaren esparruan

Jokoaren sektoreari buruzko lege-xedapenak desberdinak dira benetan nazioartean; hala, araudi-eredu oso bestelakoak eratu dira, ezberdinak ez soilik estatuen artean, baita estatu beraren barruan ere, negozioaren arabera.

Oro har, esan daiteke bi joera daudela. Batetik, legezko joera liberala, joko-jardueri eta horretan aritzen diren enpresetako operadorei mugapen asko ezartzen ez diena. Eta bestetik, joera murriztailea, erabat aurrekoaren aurkakoa; hau da, neurri handi batean mugatzen dituen joko-jarduerak, zenbaitetan debekatu ere egiten dituen eta horien eskaintza ere mugatzen duena, joko-jardueraren kudeaketa eta ustiapena estatuaren edo erakunde publikoen esku utzita.

Joera horiek aplikatzeak ondorio hauek eragiten ditu jokoaren lege-esparruko arauzko elementu definitzaileetan.

Ezarpen-eremua. Sistema liberalaren eredu da eta gizartearen egoerara egokituta dago eredu britainiarra. Eredu horren arabera, joko-mota guztiak baimenduta daude, bai eta biztanleria-sektore ahulenetara egokitutako jokoak ere. Ez du joko-eskaintza asko mugatzen eta, beraz, eskaintza zabala, anitza eta gizarteak eskatzen duenarekin bat dator.

Erresuma Batuan ezarritako ereduaren beste muturreko eredu, joera murriztailea da. Joera horrek joko-mota jakin batzuk debekatzen ditu kaltegarriak izan daitezkeelako, apustu-tuetako zenbatekoak eta baimendutako jokoen sariak mugatzen ditu, eta baimendutako jokoen eskaintza ere mugatzen du; halaber, arrisku gutxien eragiten duen jokoak sustatzen du. Badu ezkutuko arriskurik: jokalaria legearen aurkako jokora bidera daitezke, joko-jardueraren eskaintza nahikoa ez delako.

Aurreko bi eredu horien arteko erdibideko irtenbidea da Holandako eredu. Joko-mota nahikoa zabala baimentzen du eta eskaintza-baldintzak behar adinakoak baino ez dira, herri-tarrek legearen aurkako jokora jo ez dezaten baitu helburu. Dena dela, apustuen eta sarien zenbatekoen inguruan muga asko ezartzen ditu eta, hala, kontsumitzailearentzat jokoak ez da eredu liberalean bezain erakargarria.

Baimen-araubidea. Eredu liberaletan, pertsona orok eskura dezake joko-jarduera ustiatzeko baimena, edozein dela haren

izaera eta nazionalitatea, inongo kopuru-mugarik gabe, ez bada zentzugabeko kopurua, behintzat. Eredu horri jarraitzen dio, zenbait mugarekin, Erresuma Batuak.

Aurkako eredu, joko-jardueretik kontrol zorrotza ezartzea helburu dutela, esku-hartzearen aldeko jarrera duten estatuak ditugu. Estatu horiek eman beharreko baimen-kopurua mugatu egiten dute eta bakarra ematen dute, operadore nazionaleri. Joera muturrekoenak monopolio estatala ezartzen du; hau da, estatuak bakarrik edo estatuak parte hartzen duen eta kontrolatzen duen erakundeak soilik eskaini ditzake joko-zerbitzuak eta, hala, sektorea erabat kontrolpean du edo bertan esku-hartzen du. Joera horrek, Europar Batasunean, EEln ezarrita dauden printzipioak ez betetzea eragin dezake; dena dela, EElren 39. artikulua ezarritakoaren babespean, mugapenak ezartzen dizkie printzipio horri, goreneko ondaren juridikoak babestea oinarri hartuta.

Horrez gain, joera alternatiboak ere badira; esaterako, esku-hartzea arrazoi ekonomikoak direla eta. Zenbait lurraldek egoitza soziala beren barrutian ezartzea eskatzen diete operadorei eta, ordainetan, zerga-onura handiak eskaintzen dizkiete, inongo kopuru-mugarik jarri gabe, joko-zerbitzuen esportatzaile bihurtzea helburua dutela.

Beste joera alternatibo bat ere bada, Portugal, Danimarka eta Bavariako zenbait negoziotan ezartzen dena; herrialde horietan, irabazi asmorik ez duten eta etekinak ongintzako proiektuetara bideratu behar dituzten erakundeei bakar-bakarrik ematen dizkiete baimenak.

Publizitate-araubidea. Jokoa sustatzeko kanpainak dagokienez, araudi-eredu guztiak bat datoz ideia honetan: joko-jardueri buruzko sustapen-mezuak informatiboak soilik izango dira eta horiek ez dute zuzenean bultzatu behar jokoan aritzera. Printzipio hori abiapuntu hartuta, joera batzuek beharrezkotzat jotzen dute kanpainak aurretiaz kontrolatzea, eta baimena lortzeko betebeharra ezartzen dute.

Beste joera batzuek, berriz, kontuan hartu beharreko irizpideak ezarri baino ez dute egiten, eta mugak jartzen dizkiete joko-jardueri buruzko sustapen-mezuei, baina *ex post* zigor-tzen edo mugatzen dituztela kanpainak arauak ezarritakoa urratuz gero. Nabarmentzeko modukoa da Holandan sortu

duten neurri aitzindaria: joko-jarduerei buruzko berariazko publizitate-kodea.

Azkenik, zenbait arauk zuzenean debekatzen dituzte joko-jarduera batzuk, baimena lortzeko aukerarik eman gabe. Kasu horri dagokionez, atzerriko operadoreei buruzko publizitatea debekatzeko joera orokor samarra da, nahiz eta beste herrialde batzuetan baimenduta egon.

Zehapen-araubidea. Oinarritzko bi joera daude: batetik, (i) administrazio-izaerako arau-hausteen eta zehapenen sistemaren alde dagoena, lege-xedapenak urratzea arau-hausteztat hartzen duena eta larritasunaren arabera zehatzen dituen arau-hausteak, zenbateko handiko isunak jarrita zenbaitetan (Espainiako estatuko autonomia-erkidegoak). Eta bestetik, (ii) zigor-izaerako zehapen-araubidea ezartzen duena eta, ondorioz, askatasunaz gabetzeko zigorrak ezartzen dituen, zenbaitetan, jokoari buruzko lege-xedapenak urratuz gero (esaterako, Erresuma Batua, Frantzia, Alemania, Holanda eta Italia).

Online jokoa. Ezinbestekoa da bereziki aipatzea joko interaktiboaren esparruan dauden joerak, epealdi motzean izugarri hazi delako eta, zoritxarrez, lurralde askotan arautu gabe dagoelako.

Zenbait herrialdek online jokoa baimentzearen alde egin dute, eta joko tradizionalako jardueri emandako tratamendu bera eman diote, baina kontrol-neurri zorrotzak ezarrita, joko interaktiboak berez dituen ezaugarriak kontuan hartuta. Neurri horiek, funtsean, betebeharrak hauetan laburbiltzen dira:

- Tresna eta sistema informatikoei barneko kontrol-sistema ezartzea, parametro batzuk kontrolatu ahal izateko, esate-

rako, jokalaria nor den eta haren nazionalitatea; eta joko-prozesuari segurtasun-neurriak ezartzea iruzurrak egin ez daitezzen.

- Pertsona fisiko bat edo batzuk izendatzea, operadorea estatuan ordezkatzeko.
- Ordaindutako zenbatekoaren jatorria eta jomuga kontrolatzea, bai eta emandako sariak ere.
- Zenbaitetan, establezimendu fisiko iraunkorra ezartzea eta, halaber, tresna informatikoak estatuan jartzea.
- Horrezaz gain, kasu jakinetan, aseguru-poliza bat kontratatzea, handia kuantitatibo zein kualitatiboki.

Beste herrialde batzuk, berriz, joko interaktiboak debekatzearen alde daude. Joera horrek badu arazorik: legearen aurkako jokoa kontrolatzea. Ahal den neurrian, arazo horri gastu publiko handia eginda egiten zaio aurre eta, halaber, Interneteko zerbitzu-hornitzaileen eta estatuko banku- eta finantza-sarearen ordainezineko laguntzarekin.

Eta bukatzeko, hirugarren eta azken neurria, zaharkituta geratu dena; hau da, online jokoari buruzko inongo araurik ez duena. Eredu hori bere egiten duten lurraldeek, oker bada ere, joko interaktiboaren egoera alegala delako ustearen jarrera dute eta, berez, joko interaktiboak legearen aurkakoa da, hain zuzen ere, horren inguruko legerik ez dagoelako. Joera hori da gutxien gomendatzen dena, joko interaktiboko jarduerak ez direlako kontrolatzen eta, ondorioz, esparru ezin aproposagoa sortzen delako legearen aurkako jardueretarako, iruzurrerako eta kapital-zuriketarako; eta, horrezaz gain, kontsumitzailea eta osasun publikoa ez direlako babesten.

6. Jardunbide onenak joko arduratsuaren alorrean

Euskadi nabarmendu egiten da, Espainian zein Europan, joko-mota asko eskaintzen dituelako. Apustu-etxeak zabalitzeak sektorea suspertzea ekarriko du eta egoera hori aprobeztatu egin behar da, Euskal Herria aitzindari eta lider izan dadin, baita ere, joko arduratsuaren sustapenean eta herritarra babestearen inguruan, hain zuzen ere, gainerako autonomia-erkidegoetan gutxi garatutako arloa. Joko arduratsua sustatzeko, jokoak eragiten dituen arazoei buruz informatu behar da jokalaria, eskura duen laguntza-zerbitzuaren berri eman behar zaio eta jokoa ondo pasatzeko eta entretenitzeko dela gogorarazi behar zaio eta ez dela, inondik inora, dirua irabazteko bidea. Horrezaz gain, joko arduratsua sustatzeko, jokalariek beren burua kontrolatzeko neurriak ezarri behar dira; hau da, jokalariek berek muga dezaten denbora eta dirua eta, egokia iruditzen zaienean, beren burua kanpoan utz dezaten.

Gambling Act 2005 Legea indarrean sartuz geroztik 2007ko irailean, Erresuma Batua nabarmentzen da horren inguruko jardunbide onenei dagokienez. Legeak operadoreei baldintza jakin batzuk betetzea eskatzeaz gain, joko problematikoaren aurka egiteko, adin txikikoei joko-aretoetan sartzen debekatzeko eta joko arduratsua sustatzeko eginkizuna beren gain har dezaten eskatzen die, erantzule izan daitezen.

Gambling Act 2005 Legeak joko-operadoreak behartu egiten ditu, lehen aipatu ditugun baldintzei eta erantzukizunei aurre egiteko prozedurak ezartzera. Europan ezarritako neurrien artean, hauek dira nabarmentzeko modukoak:

- Jokalariari laguntzeko informazio-pegatinak Erresuma Batuko makina guztietan.
- Laguntzari buruzko informazioa emateko eta joko arduratsuaren inguruko aholkuak emateko posterrak eta liburuxkak jokorako establezimendu guztietan.
- Nortasun-agiria nahitaez erakutsi beharra, halaber, kasi-noetako eta bingoetako joko-aretoetan.
- Joko-enpresatako operadoreek eta haien arautzaileek dituzten web-orrialdeetan, jokalariari laguntzeko eskura dauden zerbitzuetarako estekak.
- Nork bere burua kanpoan uzteko neurri eraginkorrak, jokorako establezimendu guztietan (joko-aretoak, bingoak, kasinoak...).
- Jokoari buruzko informazioa, eragiten dituen ondorioei buruzko informazioa, jokoa arduratsua izan dadin aholkuen ingurukoa eta laguntzari buruzko informazioa sustatzen du, hortaz soilik arduratzen den web-orrialde baten bitartez (*Gambleaware*, Erresuma Batua), gardentasuna hobea izatea helburu duena, hain zuzen.
- Bidezko jokoa eta arduratsua sustatzen dute, herritarrak kontzientziatzeko kanpainak abian jarrita (*AAMSren* ekimena, "Gioco Sicuro" izenekoa, Italia).